


10/10









H-8529 / R-36216

ATV

CURUTZE SANTEAREN

1506

AITA GURE TA AVE' MARIEN

GANECO ERACUSALDIAC

Aita Frai Pedro Antonio Añibarroc ifiniac,

ETA ÓRAIN MOLDERA EMOTEN DIRANAC,

CRISTIÑAU EUSCALDUNEN ONERAGO.

BEAR DAN LEGUEZ


DURANGO:

IMPRESA Y LIBRERÍA DE F. DE BLOSU.

1897



CENSURA ECLESIAÍSTICA



Hay un sello que dice: Obispado de Vitoria. — Habiendo sido examinado de nuestra orden el adjunto opúsculo titulado «Curutze Santearen Aita gure ta Ave Marien etc.» y no oponiéndose en nada á nuestra Santa Fé católica y sana moral según la censura, antes bien considerándose útil á los fieles su lectura, concedemos á V. nuestra licencia para que pueda imprimirlo y publicarlo.—Dios guarde á V. m.^a a.^s—Vitoria 15 de Julio de 1896.
—El Obispo de Vitoria.

Es propiedad de la
Imprenta y librería de
Elusa.

EUSCALDUN IRACURLEARI.

Iracurle maitea: aimbeste eusquerazco liburu, Bizcaico Abade Jaunac arguitara emon dabezenen artean, iracurricoz zendu-ala uste dot sarri ta atzeguin andiaz, Aita Frai Pedro Antonio Añibarroc, Zarauzco Colegioco Aita San Franciscoren Ordeaco Misiñoguilleac Bizcaico euzqueran ifini eban escu liburua, ta aimbeste bider moldera emona izan dana.

Fraille boneragarrionec ichi zituan es-cribiduric baita beste iracatsi asco ta onac bere, cristiñau biotzetan amodiozco su santua sortu ta iraun eraguiteco guztiz egoquiaco, baña orainguiño moldera emon izan ez diranac. Iracatzi onen artean aibat ceruzco onera ta mesede ceure arimara ecarri leiezanac dira, batez bere, Curutze Santean celan eguin, ta Aita gurea


ta Ave María celan errezau biar doguzan iracasten dabenac. Oneec bada, emoten deutzuz orain beste Aita San Franciscoren Seme, Añibarroren jarratzalle batec: ta emoten deutzuz berac ifini cituzan leguez, ez gueitu, ez guichitu baga, ta ceure berbetearen erara. Artuizuz, bada, gogo onagaz, eta sarrichu ta aztiro iracurri eguizuz, berotu dedin zure biotza ceruco amodiozco suagaz, bete zure adimentua pentzamentu santuacaz, eta gueitu zure ariman Jaungoicnaren gloriaren gurari errexeguiña edo bicia. Eguizu curutze santea, ta erresau Aita gurea ta Ave Maria, liburuchu onetan eracusten jatsun leguez, eta artuco dozuz ceruco doe ta atseguin miragarriac, poztuco da zure biotza Aita Jaungoicoac biralduco deutzuzan arimaco gozagarriacaz, berotuco da gueiango Virgiña-ganaco zure debociñoa, eta izango da emen lurrean ta demporan, zure bicitzea, ceruan Aingueru santuac, betiraute guztian eguiten daben, eta zuc guero euracaz batera eguingo dozunaren antzecoa.

Aita Añibarroren iracatsi onei gueitu

deutsedas beste oraciño labur batzue, ceintsue direan, goizean ta gabea eguin bear diranac, curutzeco ibilbideac, eta jatorduan eguitecoac: laburrac dira eta buruz arin artu leitequezanac.

Lan bearronen saritzat ezaite aztu, asco gura deutsun Aita San Franciscoren seme fraille onegaz.

Agur.





Celan ciñatu bear garean curutze Santeaz



1.º Curutzean josiric gure Jesus mai-
tea iltzan, ta cristiñau biotz guztietan jo-
siric egon bear leuque curutze santeac.
Beragaz Jesucristoc erosi guinduzan, diño
San Pauloc. Beragaz idigui euseuzan ce-
ruco ate ichi zarratuac. Beragaz baquetu,
bitartetu, bildu, alcartu, ta adisquidetu
guinduzan bere Aita Jaungoico aserratu-
az. Beragaz adore baga deabrua ichi eban;
bere arrotasuna azpiratu, umildu, beeratu,
ta goiartu eban; bere escubide, aguintari-
tza, al ta jabetazuna catigatu, lotu ta estu
eban. Beragaz zoriondu, aberaztu ta doa-

tsutu cituan Adanen seme zotingaldu erru-
quigarriac. Beragaz pecatuaren illumpe,
este ta oxin ondagarritic atera guinduzan;
ta len bere arerioac guñianoc semetu, laz-
tandu ta maitetu guinduzan.

2.^{en} Curutze santea da Altare arria ce-
ñevan Sacrificioric adoragarriena eguin
zan. Da iltoquia ceñetan guztien Bicitzeac
bere bicitzea galdu eban, guztioac biztute-
co. Da oea ceñetan Jesus gure Aita bio-
tzecoa il zan. Auxe beran zan asco gue
curutze santea maitetu ta biotz-cutuntzat
euqui ta preciatuteco. Bada seme galdu
oquer gaistoena zamurtuten bada, bere gu-
raso ona il zan oea dacuzanean, ¿cer eguin
bear eztau cristiñau fededun sinislo batec
bere Aita-curutzecoaren eriotztoqui, ta il-
oea icusiric? Esposa batec ain estimaga-
rritzat badauco bere senarrac ichirico alaja
edo bichi baliotsu bat, ¿cembat gueiagotan
euqui bear guenduque Jesus maiteac em-
nico prenda ceruzco au? Bai celambere.

3.^{en} Curutze Santa au da bada cristi-
ñau sinislo guztien señalear, cerren dan
Cristo curutzean josiaren antz irudi adi-
garria, ceñetan erosi, doatu ta zoriendu

guinduzan. Era bitara señale au cristiñan-
ac eguiten dau: batari; dericho *ciñatutia*,
au da, iru curutze eguitea, escoaco atz lo-
di, edo orcoroaz, becoquian, aoran, ta bu-
larrean, esanic: *Curutze Santearen † seña-
lea gaiti, gure † arerioetarie, libradu gai-
zuz † gure Jaun eta Jaungoicua*. Besteari
dericho, *Aitearen eguitea*; eta da, escoaco
atz bi, iru edo escu guztiaz curutze bat
eguitea becoquitic bularrera, ta ezquerreco
besa burutic, escoaco solbardara, esanic:
*Aitearen, ta Semearen † ta Espiritu San-
tuaren icenean. Amen.*

4.^{en} Ciñatutean, lenengo curutzea be-
coquian eguiten dogu, Jaungoicua librau
gaizan pentsamentu deunguetarie, gogo-
raciño charretarie, beguitaune izugarrie-
tarie, gomute, uste, asmo ta asmu gaisto
cite letarie. Eta alan, ¿aldi charrac do-
zuz? ¿Gogoratu ta burutatuten jatzuz pen-
tzamentu loiac, gogoraciño gaistoac, bes-
teai gach eguiteco ustea, ondamura, icu-
siesiña, gorrotoa, arrotasuna, baneria, on-
do orechinaia, ta andigurac? Ciñatu zaite
becoquian, ta burutaldi, ta gogarte citel
guztioc ceuganic alde eguin, bota ta igues-

ca urrinduco dozuz erraz, ta erraz, diño San Agustin erascule andiarguiac. Bigarren curutzea eguiten dogu aoran, Jaungoicuac libran gaizan berba loi esate zorrotz aztun, esaca iraindu sentigarrietarie, aozco utseguite, birao, añen, juramentu, madarica-oiño, berba eguicune gaisto, barriqueta, esamesa, errierta, ta iscuntza suminduetarie. Ceure berbac ezece, besteenac bere quendu ciñeiz curutze santeaz diño San Juan Crisostomoc. Irugarren curutzea eguiten dogu bularrean, ceñetan daucan jarleca biotzac, ta Jesu cristoc dirauscun leguez, biotzean gurari oquerrac ernetan dira, non gura charrac sortuten ta biotzetie eguite gaisto oquer guztiaç jaio ta urteten dabe. ¿Gura dozuz, zucendu ceure lan, bear, eguite ta ceregniñac guztiaç? Bada ciñatu zaite bularrean debociño bici benetacoaz; ondo jaquinic, curutzea baño zucenguille oberic topauco eztozula, diño San Jerónimo jaquitun andiac.

Curutzearen mirariac.

5.^{en} ¿Gura dozu zucen, artez, cinr ta

ondo ibilli? ¿Nazi alde eguin pecatueta-
ric, ibillera dennguetaric, ondaquizun,
arriscu, peligru ta galbide guztietaric?
¿Nazuz urrindu, deseguin, ta asagotu,
etorquizun gaistoac ta uxatu euli infenu-
tar gogaicarriac? Bada jaquin eguizu, diño
San Buenaventurac, bitartecoric onena
curutzea dala; baita dala deabruarentzat
su arma, ta euli izugarri bat, astindu ta
goiberatuteco bere deabrutasuna, ta bana-
tuteco bere asmo, asmu, laquio ta sareac.

6.^m Santo Tomas Eleissaco jaquitun
Angueruzcoac, fraidetu baño len ta orain
diño zaldun gaztea zala, ondo ciñaturic,
ta illinti suzco bategaz orman curutze bat
eguinic, izutu, uxatu ta igues eraguin en-
tsan andra loi galdu probocaguille bati.
Suagaz sua amatau eban, ta arrezquero
iñozco alditan bere gorputzean amau ez
eban suzco tentamenduric, ez araguizco
loiqueriaric, ez griña charric, ta gueratu
zan ordu artaric Anguera baten antzera.
Deabruac berac esan eutsan San Cipriano
martir santuari, (sorguintzalle zala) ondo
ciñatuten cirianen contra ez encala aguin-

Crux est optima medela contra zabolonis tela.

tzeric, poderioric, escubideric, alic ez indarri. Miragarria da jaso zana San Constantino martir santuagaz. Zan au judegubat: cristiñau artean icasi eban ciñatuten bere guertaldi gaisto guztietan. Bere bici lecura bein andra galdu loi bat sartu jacon beragaz pecatu eguiteco gogo charraz. Judeguba bazan bere, laquetu gura ez eban alango loitasunic, andra lotsabague gaistoari curutze santea ezarri eutsanta beingo baten celaiari aratinic illic jausi zan andracumea. Ciñatu eban barriro, ta jagui zan bizturic, onduric ta obeturic. Mirari arrigarri onegaz biac cristiñautu ta laztandu eben fede santua. ¿Cembat guizon ta emacume pecatuan jausi ta ondutuco ez dirian, beste onembeste eguin balebe? ¿Cembat gogoraciño char, cembat guertaldi negargarri, cembat calte gogor, ta jazoera zorigaistoco mundu zabalean icusico ez zan, cristiñauac ondo ta astiro ciñatu balira? Bearbada urlia araco pecatu lotzagarrizcoan jausico etzan, goxcan ondo ciñatu baliz. Menturaz urlicia ilgo ez eben, curutze santearen echeric urtetean eguin baleu. ¡Ah! ameneco bestea orain

infernuan ez legoque, ecandutu ta oitu baltz curutze santeaz nosic bein cinatuten. ¡Ay eta baguenqui, ce ondasun ugariac, ce zorion muga bagueac, ce mirari enzuezac dagozan estalpeturic, ondo ta astiro ciñatutean! Ciñatuteaz adirazoten dogu, cristiñauac gareala, ta Jesucristoren taldeco ardiac bere Elessa santaco semeac ta soldadnac. Ciñatuteaz fedea autoruten dogu: sinistuten dogu Jaungoico bazar bat. Irutasun santu baten: Jaungoicuaran Semea Ama Virginaren sabel garbian araguiz jantzi ta guizon eguin zala: curutze baten gure erruac gaiti il zala, ta bere eriotzeaz aldatu guinduzala eriotzaric bicitzara. Ciñatuteaz bildurtu ta izututen dogu deabrua, diño San Ignacio Martirac: banatuten doguz bere sare guztiac, diño San Efreneac.

Nos ciñatu bear garean.


Eta nos ciñatu bear gara? Baña ¡ay! nos ciñatu bear ez gara? Nos, eta non gagoz arerio barga? Eztirauzcu San Pedroac, zur, zoli, irazarriric gagozala, cerren non nai

deabru amurratuac darraigun? Eztirauz-
 cu San Juanec; ¡ay lurraren! ay guizonen!
 cerren deabruac infernutic urten daben,
 galdn, ondatu, irandausi ta iruntziteco
 guizonac? Alam bada, esanic doa, sarri-
 tan ciñatu bear gareala, gure arerio asmu-
 tsuac beti zain dabiltzelaco, gu galtzeco.
 Baña batez bere ta guichienez ciñatu ta
 escudatu bear gara curutze Santeaz oetic
 jaguitean ta echuntean, echetic urtetean,
 jatorduan, eguite, lan bear guztien asie-
 ran: estuera, tentamentu, gogo char, arris-
 cu ta galbide guztietan, Elexan sartzean
 ta Mezaco demporan: ta edolabere consa-
 graciño aurrean. Santa Teresac bere mon-
 jai cirautzen; gau ta egun ciñatu citecela
 curutzearen bidez ta bitartez deabruari
 igues eraguiteco. San Antonio Eremita-
 rrac bere icasleai esan eroien, sarriro ci-
 ñatutera oitu citecela, ondo jaquinic, cu-
 rutzea zala deabruarentzat, cicada gogo-
 rrac emon, ta eurt erasoten deutsan acullu
 zorrotza, ta guilla indartsu bat leguez
 ceñegaz gure biotzeco ateac ondo ichi za-
 rraturic, iñondi bere gugan deabrua sartu
 ecin liteque. Beste onembeste cirautsan

San Jeronimoc Eustoquia bere discipulari. San Patricio gaiti diño bere errezuac, errezuco ordu bacochean eun bider ciñatuten zala.

Artu daigun bada gogo onaz, ondo ta azcotan ciñatutea. Lotsatu gaitazan len cuqui dogun debociño guichiaz ciñatuteaz, ta len eguin doguzan caco curutze barre garriaz ciñatute orduan. Gomutau gaitazan, curutzean josiric Jesus maiteac igaro cituzan neque, pena, larritasun ta eriotza gogorra gure amorea gaiti, mereci daigun sartutea curutzeaz berac irabaci euscun ceruco gloriara.

Amen.



AITA GURECO ORACIÑO

Oraciño guztien artean lenena, bearrena, ta onena da *Aita gurea*: Jesucristoc bere aoz esan ebalaco Apostoluen escaeraz, ta ditualaco zazpi escabide caridade-ti datozenac. Oraciño au laburra da, baña beragan dagozan berbac, guztiz miragarriac ta ceruzcoac dira. Anchinaco Igarlac, Aita-len edo Aita-aurrenac, ta Santuac asman, atera ta esan cituezan oraciñoac, Escritura Santan dagozan escariac, erreguac ta oraciñoac; guztiaac dagoz sarturic ta barruturic *Aita gureco* oraciñoan. Guizon ta Angueru guztiaac ecin asman ta atera enquean beran baño oraciño labor gozoagoric. Jesucristo san bere aslea, maisna ta iracaslea; bere ac gozoac ta bere ezpan bedeincatuac lenen esan ta compondu eban; oraciño eguiten guri iracasteco. Apostolnac esan eutzen Jesusi: *Jauna, iracatsi eiguru oraciño eguiten*: ta Jesucristoc esan eutzen: Onela oraciñoa eguin-

go dozue: *Aita gurea ceruetan zagozana, santifica bedi zure icena....* eta gañeracoac.

Anchinaco Guraso guztiac, beintzat Santuac, oraciño eguiten iracasten eutzen euren umeai; eta Jesus gure Aita biotze-coac bere semeoi iracatsi euscun *Aita gureco* oraciñoa. Adanec iracatsi eutsen bere semeai cer escatu, cer esan, cer eguin bear eben, Jaungoicoa maitatzeco. Set erichon gurasuac iracatsi entsezan bere seme alabai ain adibide onac ece, Escritureac berac deituten dituz Jaungoicoaren seme ta adisquideac. Beste onembeste eguin eben euren umeacaz Abraham, Isac, Jacob, Job, Tobías ta beste guraso santu ascoc. Baña gure dicha ta zoriona zan ain andia, ce, iracatsi euscun oraciño eguiten, ez edocein Santuc, ez cernco Anguernac, ezpada Jesucristo jaquituris guztiaren iturriac, Jaungoicoaren Semeac.

Agaiti Elessa Ama Santeac deutso debociño andia oraciño oni. Agaiti beran esan baño len mezan, dirautso Jaungoicari: Jauna, emon beigu licencia, esaten asiteco, berorren Seme maiteac aguinduta iracatsi euscun oraciñoa: *Aita gurea*

ceruelan zagozana ⁽¹⁾ Agaiti danco aguin-
durie errezuco ordu guztiaē asi ta azquen-
du daitezala *Aita gureco* oraciñoaz. Agaiti
Aita Santuac ta Dotore jaquitunac diñoez
ain alabantza miragarriac oraciño onegai-
ti. Santo Tomas Elessaco Dotoreac, San
Cipriano gaz diño, iñoe iños erresau ezta-
bela *Aita gurea*, irabaci baga ondasun, es-
quer ta mesede ugariac: dalaco oraciño
arteza, zucena, laburra, umilla, ta ceruz-
coa. Santuac berac diño, oraciño onen bi-
tartez escatuten dan guztia Jaungoicoac
emoten dabela, baldin conbeni bajaen.

San Agustinec diño: *Aita gurea* jaqui-
nic, ganeco oraciño guztiaē daquiguzala,
ta beran esate orduan, Jaungoicoaz ber-
baz gagozala. San Juan Crisostomoc diño,
biotz biciaz *Aita gurea* esanic, irabacico
doguzala pecatuen paracaciñoa, arimaco
garbitasuna, ceruco ondasunac, Jesucris-
toren anaetasuna, ta Espiritu Santuaren
doiac, frutuac ta graciae. ¿Nazu, diño San-
tuac berac, nazu igues eguin peligru, gal-

(1) Divina institutione formati audemus di-
cere: Pater noster qui es in caelis.....

bide ta jazvera charretatic? Errezan egizu sarritan, astiro ta fedo errexeguinaz *Aita gurea*. Tertuliano guizón andiac ciñoan: Oraciño onetan egoala ezcutaturic, sarturic, barruraturic ta laburturic Eban-gelio guztia ⁽¹⁾ Jesucristoc oraciño ain arin laburrau ichi euscun, laster icasi daigun, erraz gogoratu daigun, sarri esan daigun, ta edocein bide, leon, lan ta cereguñetan, non nai ta nos nai esan gueinquean, ta guztia era ta modu bateco oraciñoa eu-qui guñajan, dala chiquia edo andia, zarr-ra edo gaztea, erregue edo esquecoa, jaquituna edo ez jaquiña. Oraciño miragurri onec dacarguz gogora bere zazpi esca-bideetan daracuscuzan gauzac: gueure ari-ma ta gorputzeraco bear doguna, Jaungoi-coaz, progimu lagun urcoaz ta gueure bu-ruaz eguin bear doguna. Emen dacusgu, ceru zabal ederrean daucagula Aita mai-tea, aberatza, ona, asco gura deuscuna, gure onen billa dabillena, ta betico zorio-nae guretzat ceruan gorderic dituana. Da-

(1) Hac oratione totum Evangelium concludi, ac breviarium quoddam esse totius Evangelii.

cusgu, ce andia dan bere icena, ce bene-
ragarria, ce orrespagarria, ce andizcatua
ta alabadua cernan ta lurean; ce maite-
garria ta gozoa. Dacusgu, ce andia, lucea
ta zabala dan bere erreñua, ce aguinta-
ritza, ce escubidea, ce gobernuia dancan
Angueruetan, guizonetan, criatura guztie-
tan: guztia zaindu, gorde ta jagoten di-
tuala: guztia mantendu, janaritu, jantsi
ta bedeincatuten dituala: guztien Erregue,
defentzalle, nagusi ta buru eguiten dala;
ta guztia bere contura, bere escupean, ta
bere aginduaren azpian dituala.

Oraciño onec iracasten dencu Jaun-
goicoari obedietan, bere borondate santua
guztian ta beti eguiten, bere agindua
gordeetan, bere esanac betetan, bere deia
erantzuten, berari guztu emoten, gueure
grina ta ecandu charrac eciten, bera ofen-
dietaco bide oquer, lagun ta ocasiño guis-
toetic alde eguiten, bere borondateaz gu-
rea bat eguiten, ta bera iraindute-ecarren,
gueure osasuna, ondasuna ta bicitzea gal-
duteco prest egoten. Iracasten dencu es-
catuten gorputz eta arinaco alimentua:
gorputzeraco, eguneango oguia, janaria,

edaria, jaztecoa, bicilecua, osasuna, bicit-
zea ta combeni jacun ondasuna, ez goseaz
ilteco. Arimaraco barriz escatutendoguz,
gracia, dotrinea, sacramentuac, sermoiac,
fedea, birtuteac, ta batez bere Comuniño
Sautua.

Oraciño onetan Jaungoicuari escatuten
deutsagu, parcatu daiguzala gueure peca-
tuac, gaistaqueriac, bere contra eguñico
ofentsac. Escatuten dogu, begui erruqui-
tzuaz beguiratu daigula; euqui daguiala
gure misericordia; aaztu daizala bere con-
tra eguñ doguzan iraiñac, desobedientsiac,
desprecioac, lotsabaguetasunac. Parcatu
daiguzala ez bacarric pecatuac, baita bere
euroi zor jaquezan pena, azote ta casti-
gnac: ta artu gaizala bere adisquide ta
semetzat. Eta au obeto irabasteco, dirau-
tsagu Jaungoicoari, guene bere borondate
osoaz, pocic ta gogo onez parcatuten deu-
tseegula gueure arerio ta perseguille guz-
tiai biotz guztiaz. Escatuten deutsagu, ez
gaizala ichi tentaciñoan jausten; deabruac,
sraguiac, ta munduac tontetan gaitueza-
nean, emon daigula bere escua, bere gra-
cia ta laguntasuna. Azquenez, escatuten

deutzagu Jaungoicoari libran gaizala gacheric, pecatuetic, infernutic, galduteco bidetic, lagun deunguetaric, arrisen ta peligruetaric: andiuste, euticia, lujuria, gorroto ta ecandu char guztietaric, arima eta gorputseco ondaquisunetaric, lengo, oraingo ta etorquizuneco gach ta calte guztietaric.

Beguir a emen, ceinbat mirari ta gauza on sartzen direan *Aita gureco* oraciño laburrean. Beronetan pentsetea da asco, oraciño mentala, gogozcoa edo adimentuzcoa euquiteco ordu ta lecu guztietan; eztozu beste liburuen bearrie. Ordu ta egun osoac emoten cituezan santuac oraciño onetaco berba ceruzcoac gogoratuten. ¡Oh! eta cembat birtute ta gracia irabacico cenduan, errezau bacendu debociño amorezcuz! ¡ceinbat bider libranco ciñian manduco laquio ta naigura gaistoeticaric *Aita gurea* fede biciaz errezau bacendu! ¿Ceinbat bider goiartu, benzutu ta goitueco etzenduan deabru madaricatua, bera esanic? ¿Ceinbat alditan Jaungoico erraquirrac ceure pecatu guztiac parcatuco ez eutsuzan? ¿Ceinbat bider lucetueco ez eban

bere esen zabal prestua zu janaritu, jantsi, aberastu ta zorionduteko, baldin escatu baceuntzoz oraciño santu onen bitartez? ¿Ceinbat aldiz ceruco Aitac zugaz ta zure echeaz barriztauco cituan, eremuau eguin cituzan mirariac, bein Israeldarracaz, beste bein Elias ta beste santuacaz, beste bein bost milla guizon goseac illacaz? ¿Ceinbat tentaciño char, griña gaisto, gogoraciño loi ta pentsamentu deungue quenduco cenduan, *Aita gurea* biotz biotzetie errezau bacendu?

Aita San Franciscori eldu jacon bein fraile bat cirantzala negarrez ta larrituric: ay Aita, ¿cer izango da nigaz? Inondie bere ecin amatan dot aragniaren sua, garra ta tentaciño gogor gogaicarri bat. Eciten dot gorputza barau ta necaldiacaz, zatitu ta ebagniten dot odolezco azote, cilicio ta laz-tasunacaz; baña orrez guztiaz beti diraut aragniaren tentamenduac. Bildur nas jausi ez nadin pecatuan ta ondatu infernuan: emon beguit arren erremedioren bat. Aita San Franciscoc erantzun eutsan; oitu ta ecandutu zaite *Aita gurea* devociñoz erretetara, ta tentaciño charra asmetan dozu-

nean esaizu iru bider Jaungoicoaren Trutasun Santuaren icenean, ta onembeste gaz aldegingo dozu ceuganic arerio gaisto bildulgarrian. Celan esan, alan jazo: ta ez eban guciago asmau araguiaren gurari gaistoa.

Ay! ezagutu baleie cristiñauac, cembat galduten daben, *Aita gurea* ez ondo erreceaz, aguin arte nastus erreceaz, presaca, arinca, ganora bague! ¡Ay! ceinbati esan leion Jaungoicoac, beste dempora baten judegu itsu, sor gogorrai esan eroi-
 ona: *erri onec noaz ta ezpanacaz alabetan nau, baña euren biotza urrin dago ni ganic.* Ceimbati esan lequiquio, Santiago Apostoluac diñoana, *escatuten dozu, baña escatua emoten ez jatsu, ondo escatuten ezt. zulaco: eo quod male petatis.* San Juanec diño: Jaungoicuac entzuten eztituzala pecatarien oraciñoac, au da, pecatuac ta bicitsa charra ichi gura estituanenac, biotz loiaz escatuten ditnarenac. San Bernar-
 doc diño, *alper miña darabil, daucanac gogoa ill.*

Bada eguiaz ¿cer balioco dentsu esatea *Aita gurea ceruetan zagozana,* bazagoz

deabruaren seme eguinié pecatuaz? bere
 agundu Santnac gordeten ezpadozuz? be-
 rari gusturic emoten ezpadeutzazu? ¿Ce-
 lan enqui ciñei Jaungoicoa *Aitatzot*, gentil
 baten antzera bici bazara, beti pecatuan
 sarturic, urteric gueienean confesau бага,
 pecatu mortalean comulguetan zareala,
 beti gorrotoan sarturic, ceure arerioaz ha-
 quetu ta adisquidetu gura eztozula, inoren
 fama ona ta gauza ostua osotu бага, beti
 aucitan, erriertan enredoan zabiltzala,
 Jaungoicoric ezpalego leguez bici zareala?
 Cer balioco deutsu esatea, *santificadu be-
 di zure icena*: alabadua, onratua, andizca-
 tua, errespetatua, beneratua izan bedi zure
 icena, zue bestetic desouratu, ezaindu,
 lotzatuten badozu icen santu beneragarri
 ori berba loi, eiquin ece desonragarriacaz,
 canta, soñu labanaeaz, juramentu guzu-
 rrezcoacaz, murmuraciño, esaca gaisto,
 madaricaciño, birso, añen ta beste berba
 eguicune lotzagarriacaz?

Cetaco da esatea: *betor gugana zure
 erreinua*, zure aguintaritza, zure escubidea,
 zure gobernuá, zure probidencia; zue ceu-
 ganic botaten badozu Jaungoicoa, zue gu-


ra ezpadozu bici bere aguinuaren azpian, zuc badiñozu judeguacaz: ⁽¹⁾ eztot equi gura Jaungoicoa erreguetzat, nenre gogora ta gustura bici gura dot? Diñozu, *eguin dedilla Jaungoicouren borondatea*, ta berac nai dabena. Baña zuc beti eguiten dozu ceure borondatea, ceure buruac emuten dentsuna, ceure gorputzac ta gogoac escatuten dentsuna. Obrac dira amore, ez berba oueen colore, esatea da erraz, eguitea garratz. ¿Nos eguin dozu Jaungoicouren borondate santua? Aren borondatea da, zuc bicitza on garbi bat eguitea, bere legue ta aguinuac gordetea; berac biraldurico nequeac, gaisotasunac ta curutzeac zuc gogo ta borondate onagaz eroatea; ta bera ez ofenditea, projinuaz caridadea equitea. Zuc barriz aurrera daroazuz ceure gustu charrac, ceure atzeguin, olgura ta gustu ciquinac. ¿Celan emongo deutzu Jaungoicoac *eguneango oguia*, ondasuna ta bear dozuna, icusten bazaitu alperrio, arlote galdu bat eguinic, ancitan, ordique-rian, jan edan gueieguietan, soñeco apaindu costotsuac eguiten, escu zabalaz ceu-

(1) Nolumus hunc regnare super nos.

gaz, ta escu laburraz pobre beartsuacaz, jocoan, amoretasunean ta gaistaquerian emon, ondatu ta urtuten dozula ceure ondasuna ta echea, zorrac quitutu baga, alogueracoai euren bear saria pagan baga?

Parcatu eiguzuz gueue zorrac, gure pecatuac, gure utseguiteac, diñozu aoazi ta biotzaz zagoz sarturic buruz pecatuan. Ta au esatean zagoz pecatuaz Jaungoicoa irainduten, soberbiaz ta arrotasunez, injuriaz ta desonezqueriaz, lapurreta ta gorrotoz bera ofendietan: Pecaturic urten gura ecie, penitenciaric ez confesiño onic beimbere eguin baga. ¿Celan zure pecatuac parcatuco dentzuz, ceuc ceure zordunai, arerioai, perseguillai, deunguero esan edo eguin dentsuenai parcatu gura ezpadeutsezu? beti arerioturic, barbaric eguin gura ecie, igues euretaric, malsinduric, gorroto bician eurecaz bazagoz? ¿Celan adisquidetuco zara Jaungoicuaz, baqueric ez maitetasunic ezpadozu arerioaz? Diñozu, ichi eztaizula *tentaciñoan jausten*: baña ¿celan jausico eztzara ceu bazabiltz tentaciñoen billa? Lagunduten zara aracogazte zoro eroaz, araco berba loiac, llane-

zac, oracadac, cirriac ienago bere eguin deutzuzanaz, maiteegui zaituela daquizun mutil edo nescachaz, eztago errian, ez inguruan fiesta, erromeria, dantza ta jolasic zu idoroten etzareanic: bada orrela, ¿celan jausico etzara tentaciño ta pecatuan? Utza da, alper da, ecer balio eztau, zuc Jaungoicoari escatutea aoaz, *librau zaizala gacheric*, pecaturic, deabru, mundu ta aragua ganic, ceuc badacartzuz gachac, ceuc bidea pecatuari emonic, ceuc ceure burua peligru, ocasiño, ondamendi, galbide, arriscu guztietarie gordeten ezpadozu. Orregaitic, baldin Jaungoicoac oraciño onetan eguiten doguzan zazpi escabideac entsungo baditu, errezau bear dogu debociñoaz, sarri, confiantza ta umiltasunaz. Eguin bear dogu Jaungoicoaz, gueuc gura doguna berac gugaz eguitea. ¡O Jesus maitea!, erruqitu zaite guzaz. Parcatu eiguzuz orainguiñoco uts eguiteac. Damu dogu zu ofendituaz.



ORACIÑO ONETACO ASIEREA:

AITA GUREA CERÛETAN ZAGOZANA.

Aitaren icen gozoaz *Aita gurea* oraciñoari Jesus maiteac asierea emon eutsan. Ez eban asi gura Eguillearen icenaz, ez Erreguearenaz, ez Jaunarenaz, ez Jueza-
renaz, ez Egercituen Jaungoicoarenaz an-
chinaco legue zarrean leguez: bada icen
errespetagarrioc bildur icara lotzazcoa da-
carde; baña Aitaren icen gozo eztizcoac
biotzean sartu ta sortuten deuscu maite-
tasuna, confianza ta esperantza andia, di-
ño Santo Tomas Dotoreac. Aita-amaren
icena baño ¿ee gauza gozoagoric? *Aita*
da gure Jaungoicoa era guztietara. *Aita* da
gu sortu gaitualaco ecerbere ezetic, ta
agaiti cirautsen Israeltarra; zuec ichi,
larga ta aztudozue ceuroc eguin ta sortu
zaituezan Jauna. Eta sortu bacituan bere,
cerua, lurra, izarrac, eguzquia ta Angue-
ruac, etzan orregaiti deitu ta icentatu eu-
ren Aita, baña guizonaren bai. Aita da
bereac ta bere senideac garealaco, diño

San Pauloc. ⁽¹⁾ Aita da, bere antzera eguin gaitualaco; bere Semea guizon zalaco; gure naturaleza artu ebalaco: bere Pasiño ta eriotzeaz erosi gaituzalaco; pecatu ta infernutic atéra gaitualaco; izate barri bat emon deusculaco: ta bere ceruco gloria ta erreinuco jabe gai eguin gaituzalaco, ondo bici bagara, San Pauloc diñolez. ⁽²⁾ Aita da gure Jaungoicoa guizon guztiena, guztioe bere Seme Jesucristoren anaiac garealaco; bada gu Jaungoicoaren Semearen anae eguinic eguiten gara Aita baten Semeac, baña diferencia onegaz, Jesucristo da Jaungoicoaren Semea naturalezaz, gu barriz graciaz.

Evangelioo lecu ascotan diranscu Jesucristoc bere anaiac gareala. Apostolu ta beragan sinisten ebeenac gaiti esan eban aldibaten, bere anaiac ciriala. Beste bein esan entsen Apostoluai ta bere Dicipuluai, zuec guztioe nire anaiac zaree; ta zuen Aita ta nire Aita bat bacarra da, ceruetan dagoana. Beste bein ciñoan nire anaieai

(1) Ipsiis enim et genios sumus.

(2) Hoeredes quidem Dei: cohoeredes autem christi.

eguiten deutzazuen ona, neuri eguiten deustazue. Biztu zanean illen arteric esan eutsen monumentura joan cirjan andra santai: zoaze esatera nire anae Apostoluai, biztu nazala ta doazala Galileara, non icusico naben. Eta cerura igotean, esan eutsen: banao neure Aita gana ta zuen Aita gana. Orregaiti Evangelioco lecu ascotan Jesucristoc dirauscu, Jaungoicoa Aitatzat dazaugula. *Aita gureco* oraciño au iracatsi ebanean, eracutsi euscun esaten: *Aita gurea ceruetan zagozana*. Beste lecu baten diño: zuen Aitac egaztai, bear daben janaria ta jancia emoten deutse, eurac lanic, bearric, ereinteric, goruetan ta eunetan eguin baga, ta bacho bere, danic chiquiena, aztuten eztau. San Pauloc diño, Jesucristo lotza eztala gu anaetzat euquiteaz. Semetasun Jaungoicozco au Jesusec irabaci euscun bera guizon eguinaz, araguz janciaz, gure naturaleza artuaz, lurrean Ama euquiteaz, munduan guizonen artean bici, egon, ta berba eguinaz, gugaitic bere odol ta bicitzea emonaz, altaraco Sacramentuan gure laguntzan gueldituaz, beragaz ta bere Aita Jaungoicoaz gu guz-

tioc bat eguinaz ta Jaungoicoaren seme-
tasun espirituala guretzat irabaciaz, San
Pauloc diñoan leguez: eta San Juanec be-
re Evangelioco asieran diño, Jesucristogan
sinistu ta bere legue Santna gordetan da-
ben guizon guztiai, emoten deutsecla es-
cubidea Jaungoicoaren Semeac izateco.⁽¹⁾

Eta alangoz gura dau izan gure Aita,
ce Jesusec berac diño San Mateoren aotic:
hurrean iñori deitu ez eguiozue Aita; bada
zuen Aita bacarra da cernetan dagoana.
Onegaz adirazoten dencu, diño Fr. Luis
Granada Beneragarriac, munduco gure
guraso natural guztiaac baño maiteago gai-
tuzala ta gure ardura gueiago dancala aec
baño. Orregaiti ciñoan David Erregue ta
Igarle Santuac: *neure Aita ta amac ichi
ta larga nabe, baño Jaungoicoac artu nau
beragan ta bere contura: beronec zaindu,
jagon, gobernau ta semetzat nauco. Jan-
nac berac diño Isaias Igarle santuaren
aotic: ¿menturaz ama batec bere semecho
bat aztu lei? ¿bere sabelean sortu, bere bu-
larreco ugatzaz janaritu, neque, ardura an-
diaz aci, biotzeco cutuna ta bere zoraga-*

(1) Dedit eis potestatem filios Dei fieri.

rri guztia dan umecho maitea aztu lei? ¿Celan au jaso liteque? Bada au guertaco baliz bere, ta baletor ama bat bularreco Semechoa aztutera, *ecin daiteque ni zuecaz aztutea*, cerren neure escuetan beti zarabildezan. ¿Cer gueiago esan lei Jaungoicoac gu segurutu ta guri eracusteco berara dala gure Aitaric onena, maiteena, ardurazcoena ta eguiazcoena? Au gogoraturic, diño Fr. Luis Granada berac, guztia suturic, gorturic ta mirarituric: ¿cer da au? ¿Jaungoicoa da nire Aita? ¡Oh berba gozoa, oh berba consolagarria! ¡debociños, maitetasunez ta pozcariz gure biotza betetan dabena! ¡Au dala bai dicha zorionecoal! ¡Au bai mesedeal! ¡Oh! eta cembat zor deutzadan onegaiti! ¿Nor azartu ta aurreratuco zan Aita deieguiten Jaungoicoari berari, berac esan ta aguindu ezpaleuzcu esatea, *Aita gurea ceruetan zagozana*? ¿Oh Jauna, nor zara zu, ta nor ni Aitaren icenaz aitetu, deitu ta icentauteco zulaco Jaun andi adoragarria? Izanic zu gauza guztien Eguillea, Jabea, Erregueen Erreguea, Santu ta Angueru guztien Jauna, ¿gura dozu Aita deitutea nic, cria-

tura billan, ezerez batec, lurra, autza ta atsa nazan onec? ¡Oh ontasuna! ¡oh zoriona! ¡oh berba amoriozcoa! ¿Emon lei berba an baño ezti gozoagoric, ezne bigun suabeagoric, balsamu usaintsuagoric, gauza baliotsuagoric ta prenda preciatuagoric? Beguira, diño San Juanec bere cartan, ce maite gaituzan Jaungoicoac, bada gaucaz bere biotzeco semetzat.

¿Eta ce ondasunac ichedongo eztodaz onelaco Aita maite, aberatz, erruquior ta gauza guztien Jabe bacarra ganic? ¿Ceren bearra ta premiña euqui nei, onelango Aita prestu bat euquiric? Soñecoric ezpadot, berac jantzico nau; cer jan ezpadaucac berac mantendu ta janarituc, nau; berac bear dodan guztia emongo deust. Berac ateraco nau areriotaric, berac aldeguin ondaquizunetaric, berac gorde arriscu ta peligruetan, berac arguitu illuntasunean, berac zucendu gauza guztietan. Errezqui esan nei San Paulo Apostoluaz, Cernco Aita nigaz badago, ¿nor izango da nire contra? ¿noc gachic eguin leit? Ceren bildurra euquico dot? Ciur nago gachic eguingo ezteuztela ez deabruac, ez

guizonac, ez eriotseac, ez bestec. Bada David Santuac ciñoan leguez, guraso batec bere semeari maitetasun erruquizecoaz beguiratuten deutzan leguez, alan guri Jaungoicoac:⁽¹⁾ bada da; misericordiazco Aita, ta atseguin guztien Jaungoicoa, estura, larritasun ta tristuran poztuten gaituana, San Pauloc dirautsen leguez Corintiocoai bigarren cartan.

¿Ce gurasoc eracutsi deutso bere semeari, ceruco Aitac guri daracuscun amodio maitegarria? ¿Ce gurasoc ichi deutzaz bere semeari, Aita Jaungoicoac bere seme guizonai emon deutzezan ondasun, eche, seniparte ta aberastasunac? guizona sortu baño len, sortu, eguin ta ifini eutzan munduco eche eder miragarri an, bera ondo bici cedin, eceren falta bague. Munduco Erregue guztiac ezteutsee ichi euren umeai eche eder, polit galantagoric. Beguirada bat eguizu alde guztietara, ta icusico dozu, ceruco Aita maiteac bere seme guizonentzat eguin eban bici lecua. Munduco eche oni goiti ifini entsan ceru eder bat, izar arguiz beteric, gaberaco

(1) Sicut miseretur Pater filiorum.

illarguia, eguneraco eguzquia, cein seimi-
lla urte oneetan beimbere urten baga egon
ezta, ta odoiac queriza eguiteco ta urac
emoteco. Mundu zabal andi astun au ifini
eban aidean, arimu, estribu ta cimendu
eutsigarri baga goitic, beetic ta albotic;
baña cime, sendo, gueldi, loca ta quili-colo
baga, beti baten ta mugitu baga.

¿Lurrean bertan ceimbat ondasun ifini
ezituan bere seme guizonentzat? ¿Ceim-
bat baso, egurra, zula ta ola emoten dabe-
nac, gue echeac, ta ontsiac ta sua eguite-
co? ¿Ceimbat mendi, urrea, cidarra meta-
la ta arria emoten dabenac? ¿gu aecaz ba-
liatuteco? ¿Ceimbat solo, ortu, jardin,
ibar ta lur, guretzat lorac, frutuac, frutac,
bedar ta janari gozoac emoten dituenac?
¿Ceimbat animalie, abere ta ganadu, ba-
tzuc, gu euren ganean descantzuz ibilteco,
beste batzuc carga astunac ecarteco, bes-
te asco guri jatecoa, eznea, narrua, ullea,
ta soñeco ta oñecoa emoten deuscueza-
nac? ¿Ceimbat arrain ichaso zabal orretan
ta ibaletan gure maian ifiniteco? ¿Ceim-
bat iturri, erreca, erreten ta ur, erri ta
bide guztietan, gu guztiaz baliatuteco, bi-

citza on soseguzeo bat enquiteco? ¡Oh ce-ruacl! ¡Oh lurra! ¡Oh guizonacl! ¡alabatu, andizcatu, bedeincatu eguizue ceruco Aita maitea onembeste mesede gaiti! ¡Oh ce miragarria dan Jaungoicoa gauza guztietan! ¡Oh ce maitetasun andia eracusten daben guizonacaz! Eta guizonac ¿eztan maite izango? ¿Eta guizonac ofendietan dan ain erraz ta ain sarri bere Aita on au? ¡Oh itsutasuna! ¡oh ezquer gaistoa! ¡oh billauqueria! ¡sinistu bere ecin lei ezpagnencus!

¿Eta guizonari bere ariman ta gorputsean ceimbat eta ceimbat mesede eguiten ezteentzaz? Ariman bada, gomutea, adimentua, ezagüera borondatea emonic; ceruco arguiac, deiac ta gracia biralduric. Gorputzean bada, centzunac, beguiac, escuac, oñac ta gañeco zatiac emonic. ¿Non da guero, gugaz egunero ta orduro eracusten daben probidencia ta eguiten deuscutzan mesedeac? ¡Oh! eztabe neurric, ez mugaric; contaquisunac eztira; combatetu ecin leiz. Eta ¿non da araco mesede arri-garria, bere seme bacarra ta beragaz bat eta bardiña dana gauza guztietan, biral-

dutea mundu onetara, gugaz bici ta gu zoriønduteco? ¿Nori burura etorri lequiquion, Jaungoicoaren seme biotzecoa mundura jatzico zala, gure aragui argal, senticor, ilcor ta lurrezcoaz jantsico zala: ta curutze baten ilgo zala, guizon galdua peccatutic atera ta cerura eroateco? Èta au guichi balits leguez, gueratutea Altaraco Sacramentu santuan, guri lagunduteco, guc berari mesedeac escatuteco, guri ceruco prenda seguruaac emoteco? ¡Au dala bai mesede! ¡Au bai amoriozco prueba esaugarri eracuzgarria! ¡Oh ce Aita ona dan Jaungoicoa! ¡Oh gu seme onac baguiña!

Batu orain mesede ta esquer eutsuez onegaz, eguin euscuna, emonic Amatzat Ama Birgiña Santissima, ceru lurreco Erreguiña, Jaungoicoaren urrengoa ta berac sortu daben criaturaric andiena, santuena, miragarriena. Batu mesedeoi, eguin euscuna, emonic guizon bacochari Angueru zain, jaola gordeguilla bat: ordu, lecu ta bide guztietan gorde gaizan, Davidec diñolez. Orrez gueiago, arimaraco emoten deuscuz graciaac escu betean ta Sacramentu Santuac. Gorputzeraco emoten deus-

cuz jatecoa, jaztecoa, osasuna, indarra, bicitzea ta bear dogun guztia; inozbere inori utseguin бага izan arren pecatari gaisto oquerrena. Bada berac Evangelioan diñoan leguez, eguzquiari deutso aguinduric, onen ta gaistoen ganera jaio dedilla. Daviden aotic diño, guizonaren borondate ta aguinduaren azpian ifini dituala Jaunac criatura guztia.⁽¹⁾ Ain ardura andia dauco gugaz Aita cerucoac, ce diño Isaiasec, guraso guztiaac baño obeto gordeten gaituala gueune amaren sabelean, ume chiquitan, gaztetasunean, zartasunean, gaissoric, bearturic, estularriric gagozanean. Eta Evangelioco seme galduaren Aitac baño obeto esan leigu; neure semeac, zuecaz nago beti, munduan ta ceruan dagozan ondasun guztiaac zuentzaco daucadaz.⁽²⁾

Gogoratuco baguengui sarri, Jaungoicoa dala gure Aita, biotzie euquico ezquenduque, berari sentimenturic chiquerrena emoteco: negarrez urtuco guintequez Evangelioco seme galdua leguez, icu-

(1) Omnia subiecisti sub pedibus ejus.

(2) Fili, tu semper mecum es: Omnia mea tua sunt.

siric Aita bat ain ona ofendidu dogula, ilgo guintequez damuz ta miñez araco beste orain esango dodana leguez. Gau baten erri baten aserre aldi bat erne zan guizacumeen artean, batac bestea ilten ebala. Seme batec ez jaquinean il eban bere aita, ta bere bularrean lantza sartua bertan ichiric, iguez eguin eban. Eguzentian joan zan icustera nor zan berac il eban guizona, ta lantzaren señalear ezaguturic bere aita zala illa, asi zan negarrez ta deardarrez esatera: ¿cer da dacusdan au? ¿Nic il dot nire aita maitea? ¿nic pagu au emou deusnat neuri bicitzea ta izatea emon deustanari? ¿Oh nire dicha baguea! artu eban lantza bera, echun zan bere ganean, ta damuaren damuz berac bere burua acabatu eban. ¿Eta guri damuric emoten ezteuscu icusteac pecatu mortala eguiten dogun bacochean Jesus Aita maiteari enrutze baten barrero bicitzea quenduten deusagula, San Pauloc dirauscunez?


¿Celan astuten doguz, ceruco Aita onec eguin deuscuzan mesedeac ta eracutsi deuscun maitetasuna? Berac artu gaituz semetzat, berac sortu ta bere contura gau-

caz: berac mundu au ta munduan dan guztia guretzat emoten deuscu; berac lurreco guraso guztiao baño ardura gueiagodan gugaz: berac bere seme Jesucristo mundura biraldu euscun: berac arima ta gorputzeraco bear dogun guztia prestutasun ugariaz emoten deuscu, ta Aita maite eguiazco baten officioa gugaz eguiten dau. Baña guc ¿celan erantzuten dentsagu Aita cerucoaren amore oni? ¿ce azturic ez dogu Aita Jaungoico maite au? ¿ce guichitan ez doguz bere gauzac? ¿cer eguiten dogu berari gustu emoteco? Baña ¡ay! ¿cer eguiten eztogu bera ofendidu, iraindu, injuriatu ta desonretaco? ¿cetan eracusten dogu bere semeac gareala? ¿Bago egunic edo orduric, ofendietan eztogunic? ¿Judellai baño errasoe andiagoaz esango ez teuscu: Zuen Aita Abraham santua bada, cegaitic onen obra onac eguiten eztozuez? ¿Eztenscu arpeguian emongo Malaquiaz Igarle santuaren berbacaz, esanic; edocein semec bere gurasua onrretan dau, ta otsein, serbitsari, oguipeco batec, bere Ugazaba: ta barriz ni zuen Aita ta Janna izanic, non da zor jatan estimaciñoa, onetsia, amo-

rioa, obedientsia, lotsa ta bildurra? ¿Ce
 guraso dago ni baño aztuagoric, despre-
 ciatuagoric? ¿ce nagusi ni baño deungue-
 go serbituric? Zuec gaiti esan nei, Jude-
 gu itsu gogorrac gaiti beste bein esan ne-
 bana: ⁽¹⁾ etzare zuec nire semeac, ezpada
 suguearenac ta infernuco sierpe citalenac
 ta pecatuarenac. Seme galdu gaistoenac
 bere gurasoari emongo ez leusquio, zuec
 niri zeuroen Aita ta Jaungoicoari emoten
 deustazuen tratu charra. Ardura baga aus-
 ten dozubez nire aguinduac ta nire esanac.
 ¿Bago mandamenturic gordeten dozuenic?
 ¿ce amorio deustazue? ¿ce obedientsia,
 lotsa ta errespetoa? ¿ce estimaciñoan nau-
 cazue nire semeac izatea? ¿cetan emoten
 dozne, nie emonico osasuua, ondasuna,
 beguiac, escuac ta miña? guztiaz baliatu-
 ten zaree nire contra jaguiteco: pecatuac
 ta gaistaqueriac jarraituteco. Beiac esa-
 gutu ninduan Belengo cortan, ta astoac
 lagun eguin eustan asca baten nengoala,
 baña cristiñau semeac jaramoten ezteuste,
 eznazaude Aitatzat.

(1) Genimina viperarum, progenies vipera-
rum.

¡Oh cristiñau maiteac, negar eguin dai-
gun onela eguiteaz gure Aita maiteaz!
Echun gaitazan bere oñetara Evangelio-
coseme gastalaria legnez. Esan daiogun, ac
esan eutsana: neure Aita maitea, bazaut
nire ezquerbagnetasuna: eznas duin zure
semea izatea: lotsaturic ta damaturic na-
go: artu naguzu ceure echean: bada ¿nora
ta nogana joango naz, neure Aitac artuten
ezpanan? Erruquitu zaite nigaz: bai arren.
Orain iracurri eguzuz escabideac.



AITA GURECO LENENGO ESCABIDEA:

SANTIFICADU BEDI ZURE ICENA.

Aurrengo eracutsian icusi dozu, Aita cerucoaren seme zareala: beguira bada orain, ce bearturic ta premiñaturic zagozan semetasun onegaitic bere icen benegarria ondo ta santuro erabiltera. Alan izan dedin, lenengo escabide onetan diñozu, *Santificadu bedi zure icena*. Jaungoicoac zure bearric ez dau, bere icena santifiquetaco; baña alambere gura dau, zuc ceure aldez aleguin guztia eguitea, bere icen adoragarria zabaldu, adirazo ta ezanerazoteco besteai; ta albalitz, mundu guztian. Dana baño gueiago ecin gueitu, ascotu ta santutu guiñai Jaungoicoaren icena: neurri betean santua da: mugaric eztazau: ecin gueiagoan da miragarria: Angueru ta guizon guztia ecin andizeatu, ez andiagotu leie, diño San Agustinec.⁽¹⁾ Agaiti Eseritura santeac deituten deutso:

(1) Nullius indigens, ipse sibi sufficiens.

Icen andia, santua, doatsua, miragarria: Icen chito bildurgarria ta errespetagarria; ceruan ta cerupe guztian danie andiena: eguzkien urteeratic sartalderaño dan ta asman litequean andi, zabalena. Eta alan escari onetan bacarric dirautsegu Jaungoicoari, ezau guerazo daiala *Icen* pare bacoa munduco lan aldeetan: lecu guztietan zabaldu daiala; gure arimetau erne: gure biotzetan erresseguin: gure gogoan biztu: cristiñau errietau sustraitu: enda sortu ta sartu Judegu, Moro ta gentil itsuen artean. ¡Ay alan balitz!

Esateaz *santificadu bedi zure icena*, escatuten dogu, munducoac, cerutarren antzera, bedeincatu ta alabatu daiela Jaungoicoaren icena: guban ta besteetan gueitu dedilla beraganaco bildur, lotsa, umiltasun ta mempetasuna. Mundu guztia obeditu, ta auzpeztu, beeratu, macurtu daiola burua: darabilgula beti bere *icena* gure adimentuan, gogoan, biotzean, borondatean, esate, eguite ta gauza guztietan, lecu guztietan, non nai ta beinbere aztu baga. Esateaz *santificadu bedi zure icena*, esque gagocaz Jaungoicoari, beragandu

daiceela deslai galduric, ceruco bidetic
camporaturic dabilitzen guizonac: biurtu
daizala bere gracia ta adisquidetasunera
pecatari galduac: escudatu ta zaindu da-
guiala Elessa Ama santea: estalpetu bere
egapean cristiñan fededunac: gorde gure
fede santua: estu deabrua gachic eguin ez-
taigun; ondatu betico bere aguintaritza
munduan.

Escatuten dogu, arguitu daizala gentil
itsuac, judegu gogortuac, moro fedeba-
gueac: banatu, deseguin, ta erbestetu
Jaungoico guzurrezcoac: urrindu ta ece-
reztu heregiac, erracuntsac, gach ta peca-
tuac: eta dacartzala Elessa Ama santaren
sabel, ta altzora, beraganic campora da-
biltzan seme galdu, zotin erruquiac. Alan
adirazoten dau Trentoco Catecismuac es-
cabide au, ta era onetara azaldu ta iracas-
ten dabe San Cipriano ta San Agustinec.

Esateaz *santificadu bedi zure icena* es-
catuten dogu, mundu guztiac ezagutu
daijala gure Aita cerucoaren gloria, iza-
tea, anditasuna, aberastasuna, escubidea,
aguintaritza, jaquituria, maitetasuna, on-
tasuna, zabalera ondo baguea ta ganeco

obetande edergarriac. Au alan escatutera beartuten gaituz, ain Aita onaren semeac gu izateac. ¿Eztacutsu, ce aleguin ardu-razcoac ifinten dituan Aide nagusi baten semeac, adierazoteco bere Aitaren ondasunac, aberastasunac, senidetasuna, odola, etorquia ta andiqueria? ¿Eta barriz gue beste onembeste eguingo eztogu andizquetaco, aguertzeco, adietan emoteco gueure Aita ceruco maitearen *icena* ta gloria? Baña ¡ay! guztia contrara eguiten dogu, diño San Pauloc:⁽¹⁾ gueure asmo ta gogo guztia dogu josirie gueure gaucetan, ta Jaungoicoa da atzerengoa. Diruac ta ondasunac ardura baga urtuten dira munduaren serbicioan, soñeco barri costosuac eguiten, jan edan, joco ta dibersiñoetan, eche andi arroac eguiten ta beste milla eroqueri lotzagarrietan: Jaungoicoarentzat barriz eztago ecer: pobre bateri emoteco, meza bat aterateco, testamentuco aguinuac cumplietaco, zor eguiazcoai erantzuteco, gauza ostua bere jaubeari biurtzeco, eztago bapere, eztago maraibat.

(1) Omnes quæ sua sunt quaerunt, non quæ Jesucristi.

Ta orrez guztiaz, aurrera doaz confesiño-
ac, eztago quezcaric.

¡Oh ceruco Aita biotzecoal! ¡Ceu baño
ganza aztuagoric ezdogu gogoan! Eztago
munduan zu baño detuuguego serbituric
dagoan nagusiric. ¿Ce Erregue contentau-
co liteque, guc zuri baño serbicio oberic
eguingo ezpalichaco?. ¿Ce gurasoc eguin
dau bere semeacaz, zuc guri beste? Eldu-
gozuz ceure semeac eguiteraño, diño San
Pauloc. Goitu ta jaso gozuz onratic andie-
nera diño David Erregueac: gueure aguín-
dura ta escupean ifini dozu cerupean dan
guztia, diño Davidec berac: eguin gozuz
ceruco jabegai ta derechoaz ango gloria-
raco, diño beste bein San Pauloc. Eta
alambere, esquer, mesede neurribagaco
oneec ez gaituc erazo, muguitu ta beartu-
ten ceu maitatzera, ceuri guztu emotera,
ceure *icen* ta izate adoragarria santificatu,
alabatu ta bedeincatutera, ceure esanac
ta aguinduac cumpli ta betetzera. ¡Oh
esquer gaistoa! ¡Oh itsutasuna! ¡Oh Jaun-
goicoaren *icen* santua, ce andia, errespe-
tagarria, ce miragarria zarean, baña ce az-
turic ta guichian zaucaguzan!

Eguia da ecertaco bear ezgaituzala gure Jaungoicoac, santifiquetaco ta zabalduteco bere icena, diño oi daben berotasunaz Frai Luis Granada Beneragarriac: bada diño Maissu andi onec, gu guztioe mututu, issildu ta chitic eguin ezgaiti, baucala Jaungoicoac, noc bedeincatu ta alabatu bere *icena*. Criatura guztiaac dira bere predicariaac, diño Igarle Erregueac:⁽¹⁾ Angueruac cer besteric eguindaroo diño Isaiasec, ezpada emon ta emon gloria ta alabantza euren Eguilleari? ¿Eguzquia, illarguia, ceru ederrac, egun sentico izarrac eztagoz beti alabetan? ¿Lurreco lorapillac, larrosac, frutuac, ichasoco ur gora beerac, arraiñac, egaztiaac, abereac ta munduan direan gauza miragarri ta edertasun guztiaac, menturaz eztira Jaungoicoaren *icen* ta izate santuaren predicariaac? ¡Bai celambere! Errazoi andiagoaz bada guizonac bear dau donestu ta santutu Jaungoicoaren *icena*, curren San Gregorioc diñonez, guizonagan batu, bildu ta ifini cituan criature guztien obetande edo perfeciño guztiaac, ta agaiti guizona deituten da mundu labor bat.

(1) Coeli enarrant gloriam Dei.

Orain bada, jaquin guraco dozu celan santifiquetan dan Jaungoicoaren icena? Ama Virgíñac adirazo eutzan Maria Jesus Agreda beneragarriari era ascotara au batec eguin leiqueala: batzuc oraciñoacaz, erreguacaz ta guraria erresseguíñaz Jaungoicoari escaturic, arren zabaldu ta ezaue-razo daiala bere *icen* santua munduco lecu ta baster guztietan. Beste batzuc Predicariái, Confesoreái ta Sacerdoteái lagunduric euren oraciñoacaz, irabasteco arimac, arteztuteco pecatariac, arguituteco pecatuaren odoi illumpean bici direnac, ta ecarteco ceruco bidera bide oquerretan dabilzanic; beste batzuc limosnacaz, on eguínaz, lan bearrac ta aleguínac onetaraco eguínaz. Beste batzuc Jaunari escatuaz, bere Elessa santara biraldu daizala Ministro ta Bearguille on onac, bada *lana da ugari ta languillac urri* diño Jesusec Evangelioan. Nortzuc an ondoen eguin leien dira Aberatsac, Ondasundunac Aide nagusiac, Elex-buruac: ta alan eguiten ezpadabe, ondo contu estuaren beguira dagoz egunen bateraco, diño Maria Santisimac berac.

San Juan Crisostomoc iracasten dau galanto, noc eta celan *santifiquetan* dau Jaungoicoaren *icena*. Santifiquetan dau, diño, ondo bici danac, arimea garbi daucañac, aoz ta biotzez eguia diñoanac, lagun urcoari gogarazoten ezteutzanac; Jaungoicoaren leguea gorde, bere esanai, deiai erantzun ta bere agindunac betetan dituanac. Santifiquetan dau, peccatariac Jaungoicoaren maitetasunera dacartzanac, peccatariac peccaturic ateraten dituanac, pulpitoan ta confesonarioan bear eguiten dabena, arimac onduten, obetuten ta graciaco estadura ecarteco aleguñac eguiten dituanac. Eta ejemplu charra, edo peccaturaco bidea emonic desonrretan dau leguez Jaungoicoaren *icena*, diño Jesucristoc berac.⁽¹⁾ Larrosac jastecoai usain ona emoten dentzan leguez, ta arpegi eder bat icusteaz berari gura izatera gacartzan leguez, alan guban, ganza onac icusiric, etorrico dira besteac bere Jaungoicoa alabetara. Nabucodonosor erregue gentil gogorra eutzunic Babiloniaco iru zaldun santuac

(1) Videant opera vestra bona, ut glorificent Patrem vestrum qui in coelis est.

laba gori baten esaten cituezan alabantza santuac ta bapere erretan etziriala, Jaungoicoagana biurtu zan, ta erreñu guztian zabaldu ta adirazo eban Jaungoicoaren *icen* santua ta bere mirari arrigarriac.

Santifiquetan dau Jaungoicoaren icena, diño San Crisostomoc berac eguiten dabena aleguin guztia, iñoc loitu ta ezaindu eztaian pecatuaren quirats atsituaz ain *icen* adoragarria, cein entzutean, balaunico jarten dira ceruan, lurrean ta infernuan direanac, diño San Pauloc. Santifiquetan da Jaungoicoaren *icena*, dotrinea iracasteaz, mesac entsun ta atereaz, altarac apainduaz, besteac Elessaco gaucetara zaletuaz, besteen aurrean berba santuac esateaz, Jerusalengo eche santu ta catibu dagozan cristiñanac-gaiti limosna eguiñaz; Elessa Ama Santearen premiñac-gaiti escatuaz; juramentuac, biraoac, añenac, berba loi ciquiñac entsunic, Jaungoicoa alabatu ta bedeincatuaz. Santifiquetan dabe euren umeac ondo aci ta eciten dituesan gurasoac: erria zucen darabilan Alcateac, peccatariai zucembide ona emoten deutseenac: arimac ceruraco ira-

baztea gaiti bere bicitsea, icerdia ta odola emoten dabeenac. ¡Ay eta ceimbat Bearguin santu dabilizan Indietan, gentil ta judegu artean. Jaungoicoraentzat arimac irabasten, gu emenche gueldi, epe ta soseguz gagozan artean, guc gueure escandalo bicio, ta gaiztaqueriaca Jaungoicoaren *icena* desonrretan dogun artean! Ay baguecuz emetic, an iruntsi ta igaroten dituezan garratz suiñac, latztasunac, nequeac, gose-egarriac, icerdi labanac, presondegui ta eriozsac, Jaungoicoaren *icen* ta amorioa gaiti, San Pauloc ichi eban leguez esanic.

Aec Bearguille santuac orrembeste gogortade igaroten daben bitartean Jaunaren *icena* ta izatea ezagutua izan dedin, guc cer eguiten dogu? ¡Jaungoicoari escatu deutsegu, sendotu ta lagundu daiela Bearguin, Predicari ta serbitsari santu onei? ¡Obetu dogu gure bicitzea? ¡urtu jacuz iñoz negarrez beguiac onetaraco? ¡larga doguz gueure gaistaqueriac, guichitu gastuac, laburtu joco luce, jan-edan gueieguiac, gala soñeco eder, apañadura, baneria ta ibillera zoragarriac? ¡Ce limos-

nae eguin doguz, ce meza ateradoguz, ce
 escaera, erregu, errezu ta oraciño eguin
 dogu, Jaungoicoac arguitu daizan queriz-
 pe, odoi ta illumpe itzalean datzazan ju-
 degu, herege ta gentil itsu sor gortuac?
 ¿Ta esango dogu cristiñan fededunac ta
 Jaungoicoaren semeac gareala au baño
 gneiago ez eguinic santifiquetaco bere
icena? Baña ¡ay! ez bacarric santificatu,
 alabatu ta bedeiucatuten eztoqu, ezpada
 desonrratu, lotsatu ta desprecietan dogu
 bere *icena*. Desonrretan dabe denuguero
 bici direan cristiñauac. Azcori entzuten
 ez jaco ezpada madaricaciñoia ta biraoa:
 eche ascoo eztirudie cristiñan echeac, ez-
 pada infernucoac: ezta entsuten beste ora-
 ciñoric, ezpada infernua gora ta infernua
 bera; demoniñoa batetic diabrua bestetic:
 satanasec daroiala: itoco alda; biciric eto-
 rrico ez al da; istanda eguingo al dan; be-
 gui biac bota daizala; lupnac acabanco
 aldau; erraoiac erreco al dan, ta beste
 onetarico birao madaricatuac. Murmure-
 tan asten badira, eztago iñor libre bere ao
 ta min zorrotzetic; esta errian echeric, ez
 personaric euren esate gaistoric libranco

danic: eche batean au jaso bada, besteac ori eguin badau, ta orrez guztiaz bildur ta quezca baga confesetan dira, ta euren us-te faltsoz ondo. Min ta ao bategaz comulgau, ta min beragaz esan daroez biraoric icaragarrienac, murmuraciño baltz senti-garrienac. Min bategaz santificatu Jaungoicoaren *icen* santua, ta miñagaz beragaz desonrratu, ezaindu ta baltzitu. Onela desonrretan dan icen santuan, araco tentatzalle besteai pecaturaco bidea emoten deutzanac, dala berba loi ciquin, zantarrac esanic; dala bere bular, beso ta araguiac erdi billosic erabilliric: dala gauza santu ceruzcoetarie aldeeguiteco adibide charra emonic dala pecaturaco bidea emonic. Onelan desonrretan dan Jaunaren *icen*, adoragarria, araco Elessan lotsa ta errespeto baga egoten danac, araco urteric gueiencan edo osoan sacramentu santuetara elduten oztanac: araco Jaungoicoaren contra, bere Ministro ta serbitsarien hurla barre ta deunguero esaten dabenac. ¿Eta ceibat bestec ez? ¿Au da Jaungoicoaren *icena* santifiquetea? ¿au da cristiñau izatea? ¿Onetara eldu gara? ¿Oh

guztien erremedioa! ¡oh guztien bitarteco-
coa! Virgíña Maria alcantzau eiguzu,
Jaungoicoaren *icen* santua santifiquetaco
biar dogun gracia. Amen.



BIGARREN ESCABIDEA:

BETOR GUGANA ZURE ERREIÑUA.

Esanic: *santificadu bedi zure icena*, bertati bere nrrengo ta jarraian diñogu: *betor gugana zure erreinua*. Adierazoteco, ecin santificadu, bedeincatu, andizcatu ta alabatu guiñaiela Jaungoicoa, berac gugan aguin datu ta erreñatuten ezpadau: ta ezabela gugan erreguiñatuco, gueuc bere icen santu adoragarria santifiquetan ezpadogu. Escabide oneetan batez bere escatuten doguna da *graciazco erreinua*. Erreiñu au da, diño Erromaco Catecismnac, Evangelioco lecu ascotan sarri aitetu ta icentauten dana. Beroneganic San Juan Bautistac bere predicaldia asi eban, ciñoala: *penitencia eguizue, bada elduda ceruco erreinua*. Jesucristoc berac bere erreinua onegaz bere sermoiai asierea emon eutsen: ta mendian eguin eban sermoi lucean, lenengo berbac cirian: *zorionecoac biotzetic pobre ta premiñadunac direanac, cerren euren a dan ceruco erreinua*. Au zan adie-

tan emon ebana, esan ebanean: *beste erri ascotara bere joan bear nas, iracastera Jaungoicoaren erreinua, bada orretaraco nire Aitac biraldu nau.* Baita, Apostoluai agiundu eutsenean predicau eguiela erreiñu berau; baita, bere aita lurpetu edo enterretara joan gura eban gazte bati erantzun entzanean: *larga ori, ta zoaz Jaungoicoaren erreinua prediquetara.* Biztu zanean illen arteric ta aguerturic bere iracaslai, diño San Lucasec, ascotan berba eguin eutseela Jaungoicoaren erreiñu onen ganean.

Escaera onec barruratuten ditu, arimarraco, gorputzeraco ta munduraco escatu bear dogun guztia. Baña lenen escatu bear dira arimeari dagocazan ganzac. Jesucristoc berac au adierazo euscun, esan euscunean: *Jaungoicoaren erreinua billatu eguizue lenengo, ta ganeco gauza guztiac ganezca emongo jatzuez.* Au ondo ezaguturic Davidec ciñon: *Jaunac gobernetan banau eceren bearric izango ez dot.*

Jaungoicoa gure gobernaria ta gure Erregue izanic, bere ardurara ta bere contura artuco gaitu. Enda munduco Erregue

batec bere contura ta bere ardurara artu-
ten badan bere erreñua ondo gordetea,
bere mende ta escupecoen bicitzea gaiti
beguiratutea, bear direan janariac ta gau-
zac campotic ecartea, bere arerio guztie-
taric ichazoz ta leorrez defendietea, ¿ce
ardura andiagoaz Jaungoico maiteac zain-
du, gorde, escudata ta zorionduco ezitu
bere erreñu graciazcoan biei direan ari-
ma onac? ¡Ay cristiñau maiteac! ¿cer li-
tzateque gugaz, ain Erregue on, prestu,
escu zabal-ta aberatz bat ezpagueunque?
¿Non idoroco dogu erregue oberic? ¿Noc
serbidu lei Jaun andiagoric? ¿Ce seguru
bici ezta bere graciazco erreñu onetan bi-
ci dana? Jaungoicoac bere erreñutarra-
caz daucan contu ardurazcoa dacuzcu Es-
critu santuan, eguin ebanaz bere erri mai-
teco Isrraeldarracaz. Mirari arrigarriacaz
atera cituan Egitoco erri gaistoric *iru mi-*
lloi persona. bada bacarric armac jaso eu-
quezan guizonac cirian *seiregun milla*.
Idigui eutsen bide leorra ichasoan ta Jor-
daneco ibaian, ur corrontac gueratuten
cituala. Faraon ta bere soldadu persegui-
lla guztiac ito ta ondatu cituan ichasoco

ureetan. Erriric ez egoan ermu bacarretic joiazala, Jaungoicoac cerutic biraldūten eutseen gabero *Mana* janari gozoa: ta ori berroguet urtean, bein bere utseguin baga. Berroguet urte oneetan etzirian gasta iru milloi personeen oñetacoac, ez eta urratu, eten ta altsitu euren soñecoac. Gaubez suzco abe arguitsu batec argui eguiten eutseen, ta egunez quericea eguzquiaren berotic. Uric ez egoanean, Moises Capitaiac eigor zotz bategaz arri ach bat jotea zan asco, iturrico ur gozoac aterateco. Librau cituan bere arerio guztietaric: sartu cituan Isrraelgo erri ugari zorionecoan. Escu betez mesedetu cituan Jaungoicoac, bere aguinduren azpian, bere adisquidetasunean iraun eben dempora guztian. Noc estacuz emen Jaungoicoac bere graciazco erreñuan bici direanacaz daucan ardurea, contua, gobernua ta maitetasuna? ¡Oh ce gozoa, ce erruquiorra, ce miragarria dan Jaungoicoa bere contura dagozanaz!

Beragaiti, diño San Juan Crisostomoc, debociño andi bategaz escatu bear dogula datorrela gugana Jaungoicoaren erreñua,

ta bera izan dedilla gure Erreguea, cerren arerio ascoren artean bici garean, campotic ta barrutic, Job santuac diño: *guerra bici bat dala guizonaren bicitzea*. San Pedroc diño: *non gura ta non nai dabillela deabrua leoi amorratu bat leguez gure inguruan, gu galdu, iruntsi ta ondatuteco*. Eta noc, ezpada ceruco Erregue indartsuac, euretariac gordeco gaitu? Guerra utsa da dacuzcun guztia: bici gara negarrezco erri onetan cerutic erbesteturic: arimea ta gorputza, espiritua ta araguaia beti dagoz guer-ran alcarren artean, diño San Paulo Apostoluac: arimeac gura dabena, gorputzac nai eztau: betico pelean dabiltz. Peligrnac ta arrizeuac, andiac ta bildulgarriac dira: jausteac ascotacuac: ta sarriago jausico guintequez, cernco Aita Erregue maiteac escua emongo ezpaleuseu: eta San Pauloc ciñoalez Corintioarrai: Campotic guerra, barrutic bildurra.

Gure griña, pasiño ta ecandu gaistoac gure contra jagui ta jasoten dira: lurreco ondasunac itsututen gaituez: labanque-riac, arrotu; onrrac ta estimaciñoac, zora-biatu: lan bearrac, astundu; jolasac ta di-

bersiñoac, nequetuten gaituez: alperque-
riac, aspertu: jan edan gueieguiac, gaisso-
tu: tristureac, mindu: poz larreguiac, ga-
neztu; atseguin araguizcoac, argalduten
gaitue. ¡Oh ce guerra edo guda luce go-
gaicarria dan gure bicitzeal! Adimentua
illunduric dogu: biotzac, engañetan gaitu:
odola iraquiten jaen; colera ta aserreac
sutu ta gartuten gaitu: araguaia argala ta
senticorra da: centzunac, guzurtiac enga-
natzalleac dira: borondatea, beti dago ga-
chera macurtua, echuna, jausia ta oquer-
tua. Beti gagoz icara, izaturic, bildurturic,
ta cer jasoco jacun jaquin baga: *campotic
guerra, barrutic bildurra*. Eta noc ezpa-
da ceruco erregue andiac libradu guiñeiz
aimbeste arerio ganic? Ez gagoz seguru,
diño San Pauloc, ez aguirian, ez baca-
rrean, ez echean, ez bideetan; ecin fiatu
leiteque ez aideetan, ez adisquideetan, ez
senideetan, ez anaetan. Asco dabenac,
gueiago gura dan, ta secula bere cuticia
ase, betetan ezda, diño Espiritu Santuac.
Ez dogunean gauza bat, aren egarria do-
gu, ta daucagunean galdu eztedin bildu-
rra. Orain gura dogu gauza bat, biar beste

bat. Bein dogu osasunaren faltea, beste bein ondasunena: baque pusca bati darraio guerreak, persecuciñoac, gaisotasunac ta zorigachac. Guztione gaiti bear dogu, Jaungoicoac gure ganean erreguñatu, lagundu, ta aguintautea. Bestela, noc gorde ta atera lei bere burua, aibeste arerio, gorabera ta arriscuric? ¡Oh Jauna, izan zaite ordu onean gure Erregue maittea! Damu dogu orainguiño ez euqui ta ez ezagutu izana ceu gueuren Aguintaritzat, Gobernaritzat, Defentzaritzat, Aita ardurazcotzat.

Betor gugana zure erreñua esanic, escatuten dogu, diño Concilio Trentoco Catecismuac, ta autortuten dogu, Jaungoicoac guizon guztietan, ta gauza guztietan daucan jauntasuna, jabetasuna, poderioa, aala, escubidea ta aguintaritzta oso betea. Eracusten deuscu, daucan gobernuac dan guztian; guztia gorde, zucendu, ta bere contura artuten dabela. Agaiti ciñoan David santuac: *Jauna, zeure escuan ta zeure aguindura dagoz munduco lau aldeac.* Ceruan, lurrean, ta lurraren erraietan dagoan guztia berac beguiratu, gorde, ta go-

bernetan dan. Eta Mardoqueoc ciñoan leguez: *¡Oh Jaungoico maitea! guztiaren Jauna zara ta eztago noc ecer eragotsi ta galerazo daizun.* Gueuretic eztogu areambere, ecerbere: dogun guztia cernco Erregueac emona da. Onegaiti araco zazpi martir Macabeotaric batec, Antioco Erregue gogorrac escatu eutzazanean ebaguiteco, miña, escuac ta oñac, erantzun eban azartazun andiaz: Jaungoicoac emonac dira direanoc: aror guztioac, ebagui gura bozuz. Escatuten dogu, diño San Crisostomoc, datorrela Jaungoicoa gure arimetara; batez bere Comuniño Santuan: atera daiala deabrua guganic; bete daizala gure arimac bere graciaz: arguitu gure adimentua, berotu gure biotza: emon daigula indarra eciteco gure griña ta pasiño gaistoac: gorde gaizala batzan, adisquidetasunean ta baquean, *gueure arerioen bildur бага, bera bacarric serbidu daigun, Zacariaz, San Juan Bautistaren Aitac ciñoan leguez.* Esan daigun San Bernardogaz: *Erdu Jesus maitea ta quendu eguizuz ceune erreiñua dan arimaco gach guztia, bada zeuc bacarric nigan aguintaritu bear dozu.*

Onetaraco jaquin bear dogu, deabrua, mandua, ta araguaia beti betico guerra ta pelean dagozala gure contra. Deabruac bere sareacaz, asmuacaz, tentaciñoacaz: munduac bere baneriacaz, diversiñoacaz, pozcaria utsacaz: araguiac bere atseguiniacaz, gozotasunacaz, gustu citelacaz. Deabruac ifinten daben lenengo capitaia guri esetsiteco, da, *soberbia*, ta onec gobernetan ditu andiustea, andigura, arrota-suna, goitura, presunciñoa, baneriazco apaindura gueieguiac, modac, besteac desprecietea, maltsinduric egotea, tema, porfia, enbidia, icusiesiña, gorrotoa, bereaz urten bearra, errierta, aserrea, colera, biotzeco gogortasuna; desobedientsia, herregia, erracuntsa, fedebaguetasuna. Bigarren capitaia da, araguizco atseguina. Onen banderapean dabiltz lujuria, desonestueria, gorputz-gustu charrac, escuca loiac, ucutse ciquiñac beguicuste deungac, berba zantarrac, cantu, soñu, ipuin desonestuac, esate ta eguite caltetsuac, oracada, albocada ezgarbiac, dantzaz nastuac, ordiqueria, alperqueria, jan-edan lareguia, mundutasunez beterico ta infer-

nuco usaiña ditnan gauza ezain, itsusi, lotsagarriac. Irugarren Capitain da, abaricia edo cequentasuna. Onec darabiltz bere agnindura cuticia, lapirqueria, ostuteac trampa ta engañuac, neurri laburrac, pisu laburrac lucreria irabaste bidegabeac, saldu eroste gueieguiac, zor eguiazcoac bere jabearen borondatearen contra lucteac, calte eguinac ez quitututzeac, testamentuco manda ta sufragioac ez betetzeac, pobreacaz gogorra izatea, lagun urcoai ordeaz emoteco esen entsicoa izatea, aloguereco bearguillai euren bear-sarria ez emotea, unezurztac ta alarguac larritutea. ¿Eta ceimbat beste onetarico?

Ara bada orain, ce bearturic gagozan cernco Erregueaz baliatuteco, onembeste arerioz pelestaco, aimbeste gach caltequizon aldeeguiteco, aimbeste sare, asmu ta laquioric libreteco. Onetaraco ta guri la Gunduteco, beti dago prest ta gure fabore ceruco Erregue maitea. ta emoten deusen Capitai ta Erreguetzat, lenengo bere Seme Jesucristo, ta guero Anguern Santuac, Sacerdoteac, Elex-Maissuac, Predicariac, confesariac, Sacramento, Dotriña ta libu-

ru santuac, gu zucendu, gñidatuteco, gue ondo pelcetaco aibeste arerioen contra. ¡Oh ce zorionecuac direan, Jaungoicoaren erreñu graciazco onetan bici direanac! ¡Jaungoicoa bacarric Erreguetzat dauqueenac! Baña milla bider adugaistocoac erreñu onetarie campora bici direanac. San Juan Crisostomoc diño, ez bacarric Heregeac ta Judeguac dagozala erreñu onetarie camporatuac, baña baita cristiñau asco bere. Eztago erreñu onetan, diño santuac, pecatu mortalean bici dana: pecatu mortalac lotzaz confezatzaga dituana, pecatuzco ocasiñoan sarturic dagoana, damuta propositu eguiazcoa baga confesetan dana: confesiñoetan beti ecanduzco pecatuacaz gora ta bera, atzera ta aurrera, iñoz ondu ta obetu baga dabiltzenac, pecatu mortalean comulguetan direanac, euren berba loi, esate ta eguite charracaz besteac pecatura dacartzeenac, gauza ostua ta fama galdua biurtsen eztabenac. Onelacuen Erreguea ezta Jaungoicoa, ezpada deabrua, diño San Crisostomoc.⁽¹⁾

(1) In iniquis hominibus non Deus, sed diabolus regnat, cujus faciunt voluntatem.

Pecatu mortalean dagozanac, ichirie Jaungoicoa, deabruaren borondatera, aguindura, ta esanera dagoz. Eta deabruac ta peccatariac badagoz bere Jaungoicoaren aguindupean: baña eztira orregaiti bere erreñucoac. Oneec guztioac dirautse Jesucristori, Judegu itsuac cirautsena: gura etzaitugu gure erreguetzat:⁽¹⁾ dirautse aec leguez: *Bici bedi Barrabas, il bedi Jesus:* euren aldetie prest dagoz Jesusi bicitzea quentseco, cerren pecatu mortalaz barriro curutzean josi gura dogu, diño San Pauloc. Desonestuac daucaz erreguetzat bere araguizeo atseguintasunac: cuticia dun cequenac dazauz erreguetzat lurreco ondasunac, diruac, aberastasunac: edaleac, ardaoa; jatunac, bere sabel gaistoa, San Pauloc diñolez: banosa batec, bere modac, apaindura ederrac, ta onela beste peccatariac euren gustueo atseguinac. Baña esango deutse Jesucristoc Judegu curai leguez: ¡Oh seme gaistoa! ¡Oh desleial esquer gaistocoac! quenduco jatsue Jaungoicoaren erreñu santuau: largaco zaituedaz deabruaren escu gogorretan: ichico zaitue-

(1) Nolumus hunc regnare super nos.

daz usteltsen ceuroen pecatuetan: ceuroen pecatuan ilgo zare, azquen char bat euquico dozne; secula betico niganic aldeguingo zaituedaz Judegu gogorrac leguez, ceintzuec ezantu gura ez ninduen erregnetzat: baña lazqui pagau eben: bada Erromaco aguintariac erre eutsen Jerusalengo uria ta Templua, ichi baga arria arriaren ganean. Salmanasar Erregueac guztiac eroan cituzan Samariara, ta lenago Nabucodonor Erregueac Babiloniara: ta orain dabiltz deslai erbesteturic mundu guztian, erregue baga, erri ta templu baga, depreciaturic, iñoc icusi ecinic, guztien gogaicariac eguinic. ¡Oh cristiñan maiteal ¡gura dozu beste onembeste ceure buruaz icusi? bada biurtu zaitte Jaungoicoagana: eguizu penitencia: confesa zaitte: quendu eguizuz pecatuzco lagnac ta ocasiñoac, eguizu cristan bicitza bat.

Escatu ezquero graciazco erreññ au, escatu bear dogu cerucoa, cein Jesucristoc bere odolaz erosi euscun, ta emon euscun senipartea, diño San Pauloc. Ceruco erreñña ezta munducua leguez: emen semeaz seniparteric eztauco, ezpada bere

aita ilten danean: an guztiaç dira erregue ta herederuac. Jacob ta Esau anac bicochac amareu sabeletic asi circan disputan maiorasguiaren ganean. Abilemec arri baten ganean il cituan irurogueta amar anac, bere burna erregututea gaiti. Atalia Erreguiñac beste onembeste gaiti acabau eban erregue-casta guztia. Absalonec ilgura eban onetaraco David bere Aita ona. Baña ceruco erreñua guztiaç osoro gozauco dabe; guztientzaco dago an lecua: ta San Gregorioc diñoan leguez, ceimbat eta gueiago sartsen direan, aibat gueiago zabalduten da. Erreiñu gloriaczo onetara arteztu bear doguz gueure gogo ta escaera guztiaç, bada bera da gure erri zorionecoa; an eracusten da Jaungoicoa bere edertasun gustiaz: an sarituten dira oraingo neque bear guztiaç: an ase betetan dira arimac gozotasun guztiaz: an icusi ta entsuten dira, secula entsun icusi eztirian gauzac.

Ceruco erreñuareu gomuteac sendotu cituen martir santuac: bete dituz eremu, conventuac, gorde ditu dontzellac ta atera ditu asco munduco zoraquerietaric. Ceim-

bat neque, laztazun ta penitencia eguin etzituezan santuac ceru au irabazteagaiti? San Inacio, Obispo ta martir Santuac ciñon: Jesucristo ta bere erreñua irabastea gaiti, betoz nequeric bicienac, betoz sua, curutzea, leoiac zatitu beguiez nire gorputzeco aragui guztia, ausi nire azurac, zati-puzcatu nasan guztian: guztia ariu gogotzat euquico dot cerura joatea gaiti. Maximiano Aguintariaren persecuciñon eguin cituezan gogortade arrigarriac Antioquiaco cristiñau batzuecaz: cigor ta zan gogorracaz ebagui entseezan araguiac: arriacaz aguiñac ausi ta ebagui miñac. Adriano erichan borreroa miñarituric icusteaz Santu Martiren poza ta eroapena, itandu eutsen: zuec ceuroen Jaungoicoagane ce mesede ichadoten dozue orrembeste neque, pena, bere amorioz igarotea gaiti? Erantzun eben santuac: cer? Secula betico iraungo daben gloria bat. Au entzunic berduguac, asi zan dedarrez: nie bere cristiñau izan gura dot: santuocaz batera il gura dot. Besteacaz batera bicitza oni bere quendu eutsen ta guztioe batera dagoz orain Jesucristogaz ceruco erreñuan.

*Oh zorioneco penitencia aimbete gloria
mereci deustana, cirautsan santa. Teresari
San Pedro Alcantarac cerutic aguertu ja-
coneau. Eta gure cerbait eguingo eztogu
irabasteco orain graciazco erreinua, eta
guero cerucoa? ¿Non da gure fedea? ¿Cec
itsututen gatuz? ¿Ce encantu da gurea?
¿Orren guichi balio dau Janngoicoac?*

¡Oh gure Janngoico maitea! betor guga-
na zure erreinua: erreinatu eguizū guran:
Ceure agninduaren azpian bici gura dot:
damu dot orainguiño ez zurea izana, damu
dot, mundua serbitu izana: esango dot
San Agustinegaz, oh Jauna! ce berandu
ezagutu zaitudan, ce belu asten nazan zu
maitatzen! celan obeditu ez deutzut? ce-
lan gorde ezdot zure legue ariña ta gozoa?
celan egonaz ain lucero pecatuan sarturic?
celan egonaz gorturic zure deitara? Oh ce
miseria negargarrian egon nazan, deabrua-
ren agnindupean bici izan nazan dempora
guztian! ¿Cer atera dot erregue bat ain
gogorra serviduric? ¿ce sari emon deust?
Ta ¿cer emongo eustan infernura eroan
baindu? ¡Oh zorioneco ordua zu serbitsen
asi nazana! ¡zurea izan gura dot secula

betico! Bai Jauna, bai arren artu naguizu
zeure contura ta eroan naguizu ceruco
erreinura. Amen.



IRUGARREN ESCABIDEA:

EGUIN BEDI ZURE BORONDATEA, CELAN
CERUAN ALAN LURREAN.

Aita gureco Jaungoicoari dagocazan iru escabideetario irugarrena da: *eguin bedi zure borondatea, celan ceruan alan lurrean*. Jaungoicoac bere borondatea eguiten dan, berac gura daben guztian, non nai, ta nos nai, eta inoe eragotsi ecin leio: gura izan eban guztia eguin eban, diño Davidec. Eta alan, escabide onetan escatuten deutsaguna da, diño San Juan Crisostomoc, emon daigula, bear dogun gracia, laguntza, bitartetasuna, gogo ta borondate on bat, bere borondatea eguiteco lurrean gagozanac, ceruan santuac eguiten daben leguez. Jaungoicoaren borondatea eguiten da, berac gura dabena esan, adierazo, ercutsi ta aguinduten deuscuna gue eguinic. Bere legueco ta Elessa Ama Santaren aguinduac, obra erruquizcoac gorderic: cristiñau eguitecoac

ta norberac bere estadu ta oficioco premi-
ñac cumpli ta beteric. Pecaturic chiquie-
na ez eguiñic ta len eguiñac damuz, gar-
baz ta negarrez urturic: pecatuzco ocasi-
ño, eche, lagun ta bide gaiztoetarie urrin-
du, aldeeguin, asagotu ta ignez eguñic.
Jaungoicoaren gauceetara zaletu ta emo-
nic: birtutea, debociñoa ta ceruzco gau-
zac jarraituric: gueure arimac ta bestee-
nac santuturic: Sacramentu Santuac sa-
rrituric: umillac, moduzcoac, mansoac
ichadependunac, eroapendunac baque-
tsuac izanic: Jesucristo gure Jaunaren
moldera ta antzera biciric.

Esateaz, *eguin beda zure borondatea*,
escatuten dogu, diño Erromaco Catecis-
muac, Jaungoicoac emon deigula sendo-
tasuna, indarra, escua, arguia, ezagüera ta
gracia, bere aguindu santuac gordeteco:
gauza guztia ondo eguiteco: *santutasun*
ta biotz garbiaz gueure bici guztian bera
serbietaco. Zacariasec ciñoan leguez:
prest, pocic ta borondatez gueure bicitzea
galduteco, bere ontasun maitegarria ofen-
didu baño lenago. Escatuten deuntsagu
San Paulo Apostoluaz, ichi ezteigula

guenre aragui gaistoaren atseguñac, nairgurac, maiña, bicio ta griña charren jarraian joatea: bada oneec quenduten dabe arimaco bicitzea, ta euroi jarraituric ichi ta zarratuco jacu ceruco atea, diño San Pauloc berac. Escatnten dogu, diño Frai Luis Granada Beneragarriac, Jaungoicoac escutic garoazala, jausi ez gaitezán; ama batec bere umea daroian leguez, itsu mutiliac ichua daroan leguez: gueure beguie-taco lausoa ta odoia quendu deigula, Jaunaren mandamentuetaco bidean jausi, estropezu ta laprast eguin baga ibilteco. Artzetu daizala gure escaerac, erreguac ta deseoa, ezcatu eztaiogun bere borondatearen contra dan gauzaric. Escatuten dogu, Jaungoicoac zucendu daizala gure adimentua borondatea, almenac ta centzunac, Jaunac berac gura dabenera. Gogo onaz maitetu daiguzala, berac gure oneraco biralduten deuscuzan castiguac, azotoac, curutzeac, iñardausteac, astinduteac, gaisotasunac ta contraquisunac: eci daizala gure griña, pasiño, oitura ta ecan-du charrac, eciten dan leguez cecor bat buztarriaz ta zaldi osticari, oincari bat

frenu ta espuelaz. Emon deigula dempo-
rea, epea, gogo ta borondatea guere pe-
catuen penitentsia eguiteco; birtuteari ja-
rraituteco: bicitza on, garbi bat asteco;
ceruco bidetic ez alde eguiteco: santuta-
sun andi batera elduteco ta Jaungoicoa-
ren borondatea gauza guztietan eguiteco.

Jesucristoc berac iracatsi euscun, Jaun-
goicoaren borondatea gauza guztietan ta
dempora guztietan eguiten. Jesus maitea-
ren mirari guztia amabi urteetarie ogueta
amar guñocoac sartu, azaldatu ta barru-
tu cituan San Lucasec berba baten, esa-
nic:⁽¹⁾ bere Ama ta San Joseren obedien-
tziara, agnindura, esanera ta borondatera
egon zala amazortzi urte onetan Nazare-
teco errian: ¡Oh ce adibide ta iracaste
ederra dan au guretzat! Jesucristoc berac
esan eban: *mundura etorri enintzan nire
borondatea eguiteco*, ezpada nire Aita
Jaungoicoarena. Beti cirautsan bere Aita-
ri: *equin cedilla bere borondatea*. Beste
bein esan eutseenean; bere Ama ta bere
senideac bere beguira egozala, erantzun
eban, ¿nortzuc dira nire Ama ta nire

(1) Et erat subditus illis.

anaiac? *Nire Aitaren borondatea eguiten dabena, onexec dira nire Ama ta nire anaiac.* Beste aldi baten ciñoan: *nire Aitaren borondatea eguiten dabena, auxe sartuco da ceruco erreñuan. Aita gureco oraciño onetan bere iracatsi euscun esaten: *eguin bedi zure borondatea, celan ceruan alan lurrean.* Azquenengo gauban Gesemanico larritasun estuan iru bider esan eban: *neure Aita maitea, eguin bedi zure borondatea.* Eta San Pauloc diño: Jesucristoc eracutsi eban obediencia onegaiti eriotzaraño, bere Aitac andizatu ebala agundurie, ceruan munduan ta infernuan dagozan guztia beeratu ta ma curtu daiela belana ta burua Jesusen icen santuari. Adibideoc Jesusec emon euscuzan guri iracasteco Jaungoicoaren borondate santua eguiten, nai dala gauza erracean, nai garratsean: nai dala gure gustuco ganceetan, nai gure borondatearen contracoetan.*

Ez bacarrie Jesucristo berac daracusec Jaungoicoaren borondatea eguiten, baita onetaraco ifini deuscuz beguien aurrean santu asco ispillutzat; moldetzat, iracas-

letzat, zucen bidetzat. Mundua danic izan dira Jaungoicoaren borondateari obediten jaquin daben santuac. Abel Adanen bigarren seme onac, ezaguturic, Jaunaren borondatea zala amarrenac ta primiciac berari opa ta ezquenitea, zucen ta oneneturic paguetan cituan: Jaungoicoac onegaiti zoriondu ta aberastu eban: baña emetic bidea artu eban Cain bere anae gaistoac Abel santuari bicitzea quentzeco, ondamuz, embideaz, gorrotoz icusi eciña gaiti. Noe santuac obeditu eutzan Jaungoicoari, ta ito бага salbau zan mundu guztico uriolan. Abraham Aitaurren santuari Jaungoicoac aguindu eutsan il eguiala bere seme maite bacar Isaac, ta ilgo eban Jaunaren borondatea eguitearren, Angueru batec eragotzi ezpaleutso. Jose Jacoben semeac igaro cituan carcela, presondegui ta gogortade latzac, Jaungoicoaren borondatearen contra ez joatea gaiti. David Santuac ceimbat gorabera, persecuciñoe, arriscu ta neque igaro eztsituan onegaiti? ¿ta ceimbat adivide santu ichi ez euscuzan escribiduric Salmuetan Jaungoicoaren borondatearen ganean?

Susana andra garbiac larritasunac, loutsariac ta estura andiac igaro cituan, castidadea ez bitu ta ezaindutearren: ta Juez agure tentatzalleai erantsun eutseen: gurago ebala iltea, Jaungoicoa ofendietia baño. Matatias Macabeo eutsute andicoac Antioco Erregue crubelari esan eutsan: pecatu onetan erri guztia obedietan badeutsu bere, nie eta nire semeac ceruco Erreguearen esana ta aguindua bacarrie gordeco dogu, ez zurea, ez beste inorenena. Zazpi Macabeo martir santuac Antioco beroni erantsun eutzen; prest gagoz ilteco; pocie gneure bicia galduco dogu, Jaungoicoaren borondate santuaren contra joan baño len. Daniel santua ichi eben icoi amurratu goseac illeen artean. Babilonia-co iru zaldun santuac laba-gori baten sartu cituezan. Martir santu ascoc igaro cituezan penitentsia arrigarriac, laztasun erruquibagneac, martirio garratz min nequezoac. Apostolu santuac ceimbat gogortade, carcela, azote, arricada, catea, erbeste ta neque igaro ez eben Jaungoicoaren borondatea eguite arren?

Alan erantsun eben bein: Jerusalengo

Aguintari nagusien aurrean: *guizonari ba-
ña lenago, Jaungoicoari obeditu bear deu-
tsagu.* Baña noc ondoen iracatsi euscun
Jaungoicoaren borondatea eguiten zan Job
santu miragarria. Egun baten galdu cituan
seme alaba guztiac: il jacozan ganadu guz-
tiac, jausi, banatu ta ondatu jacan echea:
bere gorputz guztia gueratu jacon zaoriz
llagaz beteric, ustelduric, arrac eriozala:
tella zati bategaz igortsen eban bere gor-
putza, ta muna baten satsaren ganean
egon zan jarriric egun ascotan, guztiac
desamparaturic; bere emaste ta iru adisqui-
deac bere gogaierazoten eutseela. Eta or-
duan Job santuac, cer eguiten ta cer esa-
ten eban? Menturaz biracca, aserreca edo
gogaituric bere buruaren contra? Ce gui-
chi. Miseria, bacartasun ta ecach andi
onetan, entzuten echacan beste barbaric,
ezpada: *Jaungoicoaren escuric onac artu
badoguz, cergatic gachac artuco eztoguz?*
*Jaungoicoac emon eustan, Jaungoicoac
quendu deust; bedeincatua izan dedilla
bere icen santua cumpli-bede guztian bere
borondatea.* Santu guztioe maite eben
Jaungoicoa, ta onegaitic eguiten eben

beti aren borondatea. Guc eguiten ezpadogu, da, maite ezdogulaco.

Guizonac ez beste criatura guztiac Jaungoicoaren borondate santua eguiten dabe. Angueruac, ta cerutar guztiac eztabe besteric eguiten; Davidec diñoan leguez. Au beran adierazoteco, esan eban Jesusec escabide onetan: *celan eguiten dan ceruan Jaungoicoaren borondatea, alan daigula lurtean*. Deabruac eurac cein gaistoac direan, Jaungoicoari obedieta deitse nai ta nai ez bada bere. Ta bein baten Apostoluac Jesucristori esan eutseen: Jauna, zure icena aiteturic, ta zure icenean aguiduric, deabruac larga gorputzac ta ignez doaz. Criatura guztiac dagoz euren Eguillearen esanera. Ichasoa eguin ebanean aguidu eutsan, diño Job santuac, neguiño eldu bear zan, ta neurri, marra, muga ta bazter onetarie urteten eztau. Suari ascotan aguidu deutso bere martir santuac erre eztaizala: leoiac gachic eguin eztaioela, urari, ito eztaicela, odoiac euria emon daiela: eguzquiari, illarguiari, izarrai, arguitu gaicela: eguzquiari berari, guelditu cedilla pusca baten Josuen aguin-

dura: lurrari aguinduten dentso frutuac
emoteco: ta onela beste criatura guztiai.
Ta celan esan, alan eguiten dabe. Bacar-
ric guizonac desobeditu ta contra eguiten
deutso bere Eguilleari, bere Jaunari, bere
Onguille, Aita, ta Jabe bacarrari, gorde
baga bere leguea, cumplidu baga bere
esanac ta aguinduac, jaramon baga Jau-
ngoicari: jarraituric gogoac emoten deu-
tsazan atseguin utsac, bein bere gauza
onic eguin baga. Onetan criatura errasoï
bagueac ta deabruac eurac baño gaistoa-
goac eracusten gara guizonac. ¡Oh ce go-
gorra, ce billanba, ce citela, ce ezquerba-
guea dan guizonaren biotza! ¡Oh ce calte
negargarriac eguin dituezan gudan pecatu
jatorrizcuac ta guenc eguiñac! Onegaitic
Elessa Ama Santeac diño oraziño baten:⁽¹⁾
Oh Jauna, bigundu, samurtu, eci ta ausi,
ta bentsutu eguizuz gure borondate ta
biotz gogor, arrizeoac: zeure borondatea
beti ta gauza guztian eguin daigun bada
ecerbere ecin guñei gure aldetic zu baga,
zure laguntza ta gracia baga.

(1) Nostras ad te rebelles compelle propitius
voluntates.

Nos eta gogo santuagoaz, biotz gartuagoaz, debociño erresseguiñagoaz, esan bear dogun, *equin bedi zure borondatea*, da, estura, premiña ta larritasunen baten idoroten gareanean: zorigachac, atsecabac ta neque gogorren batsuc jacorcuzanean, gaisoric, bearturic, aricaturic, perseguituric gagozanean: gurasoac, umeac, adisquide maiteac, ganaduac, abereac ilten jacuzanean; arriac, chilgorrac, abazuzac, ecachac, urjolac, suac, edo beste onclangoac eguiten deuseu onean calteren bat solbetan, echeetan, ondasunetan: echean edo ehecoren bategaz oquerren bat jazoten jacunean; injuria, ofensa, iraiña astunen bat eguiten deuseuenean: auci justicia bague bat ifinten deuseuenean: ondasun bat quendu, eragotsi, galdu edo ostuten deuseuenean; guzurrezco testimoniorren bat ereguiten deuseuenean: batec azpitic zaldu, edo laburtasun, billanqueria, dollorqueria, citelqueria zantarqueriaren bat eguiten deuseuenean. Guertaldi charroc jazoten jacuzanean, acorda gomuta gaitezan Jaungoicoac gure oneraco laquetuten dituala, gomute gaitezan bere escuric da-

tozala: berac gure oneraco biralduten deus-
cuzala. Urte izan bear dogu euroen bitar-
ten ceru eder betico bat irabacico dogula.
Oh ceimbat irabacico guenduquean au
alan gogoraturic.

Jesus maiteac diranscu San Mateoren
aotic: eztala chori bat bere lurrera jausten
Jaungoicoaren borondatea baga, ta con-
tauric dituala gure buruco ulle gniñocoac,
eta eztala jazoten ganza chiquerric ez an-
diric bere borondate, gura ta naia baga.
Eta guc uste izan arren au edo beste gau-
za esan edo eguin deuscuela uste baga,
edo Jaungoicoaren borondatea baga; ezta
alan izan, bada berac au ordendu dan,
icusteco gure paciencia, eroapeua, umilta-
suna. Jaungoicoac eternidadetic gauza
guztiac ditu disponiduric bere muga ta
neurrian, diño Espiritu santu Jaunac. Ga-
chac ta naibagueac gogo onaz ezpadaroa-
guz, da, eztazaugulaco ondo euren balioa,
eurac eguiten deuscuen ona, euretariac da-
torcuzan zorionac. Onetan dirudigu Zebe-
deoren Seme Apostolu biai, ceintsuei esan
cutsen Jesucristoc: *eztaquizue cer escalu-
ten dozuen*. Inhor contentu eztago bere es-

tadu ta suertez: batec guradabena, besteac nai eztau: onec maite dabena, besteac gorroto dan. *Zuen Aita cerucoac, ciñoan Jesusec, ondo daqui ceren bearra dozuen: eguizu beti bere borondatea ta eceren saltaric izango eztozue.* Chori bat, lurreco ar bat bere eztauco azturic. David santuac diño: *ceure ardura ta gogo guztia Jaungoicoagan ifini eguizu, ta berac gobernauco zaitu.* Berac daqui, cec on, ta cec calte eguingo deutsun. Zuc escatuten dozuz umeac, baña Jaungoicoac emoten ezteutzuz, combeni ez jatzuzalaco. Ceimbat guraso berez onac condenau dira umeac deunguero aztea gaiti? Jesusec berac Jerusalemgo alabai esan eutsen: egunen baten zorionecoztat euquico ciriala seme alabaric secula equi ez ebenac. ¿Ce deunguero aciric eztacuzguz gaurco seme alabac? Ascoren echeac infernua bera dirudi. Ezta entsuten beste oraciñoric ezpada maldiciñoa biraoa, añena, deabrua, infernua, satanas, barrabas. Dotriña icasi baño len, icasten dabe birao eguiten: berba loi zantarrac esaten, ostuten, alcarregaz aserratuten; desonesqueriaco gauza charrac icasten ta

eguiten. Baña ce gauza icasi leie seme alabac, guraso gaisto cristautazunic ez dabenic? Jaungoico maiteac guraso ascori mesede andia eguiten deutse, umeric ez emonaz edo emonac quenduaz.

Beste batec escatuten dau auci bat irabaztea: ondasunen baten jabe izatea: officio, aguintaritza edo carguren bat errian euquitea. Baña orain errico carguric ez euquiric bazabiltz beti erri guztia nastuten, bear eztozunean sartzen, guztia iri biatu ta contrara eguiten, ayuntamentuan guztia nastuten, ¿cer izango liteque, errico carguduna ta aguintaria baciña? Jaungoicoac daqui, cer combeni jatsun. Besteac escatuten dau osasuna, edo aberastusuna. Baña orain gaisotia izanic, pecatuari badarraiozu, cer liteque osasun oso sendoan bacengoz? Orain pobrea, beartsua, premiñaduna, ondasun laburrecoa izanic, bazabiltz aucitan, jocoan, ordiquerian, amoretasunean, eder-ederric apainduric, plazari plaza, erromeriaric erromeria, dantza ta gaiztaquerietan, ¿cer litzateque zugaz maiorazguia bat baceunco, lau milla duquet urterocoen jabe baciña? Ceure con-

denagarria izango litequez, ta beragaiti Jaungoicoac ucatuten deutzuz. ¿Ce mesede andiagoric? San Agustinec diñon leguez, onetan eguiten dau Jaungoicoac, Medicu osaguille batec gaissoaz eguiten dabena: emoten deutzaz bear dituan gauza asco, baña quendu calte eguingo deute seenac. Aita batec bere ume bati quentsen deutzaz escutic labañac, ta zotzac, calte ta min eguin leusquioenac: baña emoten deutzaz beste jateco, soñeco ta bear dituzan gauzac.


¿Ce mesede andia eguingo ez eutseen Jaungoicoac, condenatu direan ascori, eguin balituz pobreac, itsnac, mutuac, gorrac, errenac, elbarrituac edo baldanac? *Gaissotasunac oberuten gaituz*, diño San Paulo. Jacob santuaren semeac ezagutu ez eben, eguin eben gaistaqueria Jose euren anae onagaz, aric eta icusi artean euren buruac Egitoco presondeguian. Ez eta Antioco erregue gogorrac Jerusalengo santuacaz eguin cituan gogortade arrigarriac, icusi arteraño bere burua erdi illic, ustelduric, gogaituric. David erregueari segnratu entseen cerua bere neque ta persecu-

ciñoac; baña dudan Salomon bere semearen salbaciñoa ifini eben bere ondasun, osasun, jaquituria ta atseguñac. David berac diño: icusi nintzanean nequepeturic, deitu neutsan Jaunari. Jesucristoc lenengo eguin ebana San Paulo Apostolua beraganatuteco, zan, castigatu, zalditic bera bota, itsutu ta nequetu. Apostolua berac guero esan eban, Jaungoicoac Aita batec leguez castiguetan dabela semetsat artsen dabena. Nabucodonosor erreguea, Manases ta beste asco biurtu cirian Jaungoicoagana neque ta gaisotasunaren bitartez. Guc baño obeto daqui Jaungoicoac, cer combeni jacun. Bere borondatea egunic, seguru goaz. Guztioe salba gaitazan, gura dau; ta castignetan gaituzanean bere, beti da Aita maite baten antsera, diño San Pauloc.

Baña nos ta celan eguiten dogu Jaungoicoaren borondatea? Egunic eztago esaten eztoگونیک: *eguin bedi zeure borondatea celan ceruan, alan lurrean.* Au diñogu aoz: baña biotzaz? baña eguitez? Jaungoicoaren borondatea da, seme alabac obeditu daiocela bere lecuan dagozan gu-

rasoai. Cetan eguiten dan borondate an araco seme oquer deunguero aciác, beimbere gurasoaren esana ta aguindua eguiten eztabenac? beti ernegaraso ta desobedietan dentsanac: eragotsi deutsan echea, lagun-charra, jocoá, berandu echera etortea ta beste gaistaquerietan obedietan ezteutzanac. Cetan eguiten dan Jaungoicoaren borondatea araco alaba soberbia, banosa, temosa, dantzalari, mutilzale, secula gurasoaren gusturic eguiten eztabenac? araco ibillera char, adisquidetasun deunga, pecaturaco bidea emoten dabillenac? Jaungoicoac bere borondatea eracutsi deutsu Predicadore ta Confesorearen aotic, dirautsula, gorroto orretan iraun eztaizula: Ceure arerioaz adisquidetu, baquetu ta berba eguin daizula: ceure pecaturaco lagunaz bacarric egon etzaitela: araco sospechaco echera sartu etzaitela: ceure artean ceure buruaz ta gorputzaz escuca loiric eguin eztaizula: berba santar ciquinic esan eztaizula: oracada, bultzaca, arimac tentetan ibilli etzaitela. Ceimbat bider aguindu ezteutsube Confesoreac ardanteguirá, tabernara, ordilecura ez juate-

co, zoazan guztian moscortsen zarealaco? Ceimbat alditan agundu deutsue, gauza ostua, quendua edo gordea bere jabeari biurtuteco? Beti erantsuten dozu, baietz: baña iñoz bere eguiten eztozu. Celan doaz zure confesiñoac? Celan zoaz comulgetara? Celan uste dozu, ondo ilgo zareala, orrela biciric? Nos, bein edo bein eguingo dozu Jaungoicoac aginduten deutsana? Nos eracutsico dozu cristinaua zareala: ondu gura dozula: bicitsa barri on garbi bat eguin gura dozula? Oh nenre Jaungoico maitea! oraindiño zure borondateric eguin eztot, ezagutu etzaitut, obeditu eztentzut. Damu dot biotseric: erruquia nigaz. Amen.



LAUGARREN ESCABIDEA:

EGUNEANGO GUEURE OGUIA GAUR

IGUZU.

Jaungoicoaren amar mandamentuetan lenengo irurac Jaungoicoari dagocazan leguez, alan Aita gureco zazpi escabidetarie lenengo irurac dagocaz Jaungoicoari, ta beste laurac gueure onari. Onetaric lenengoa da, *eguneango gueure oguia gaur iguzu*. Emen Jaungoicoari escatuten deutsaguz arimaraco ta gorputzeraco bear doguzan gauza guztiac. Arimaraco escatuten doguz cristiñau-dotrinea, sermoiac, Jaungoicoaren berbea, Elex-guizonac, Predicariac, Sacerdote santu batsuc, batezbere Parroco on bat, Jesucristoren gracia, fedea, biotzeco arguitasuna, Jaunaren esauguera ta amoria, pecatuen damua, Comuniñoco Sacramentua, bicitsa ta eriotzaraco, ceruzco oguia, Angueruen oguia. Ta onegaiti San Lucasec diñoan lecuan, *eguneango gueure ogui gaur iguzu*, San Mateoc seigarren

buruan diño,⁽¹⁾ iguzu, *Jauna, gurez ganera dan ceruzco oguia*. San Agustinec diño, Jaungoico maiteac ichi deuscula egunero-co Comuññoco ogui Santu au, gneure eguneango uts eguite chiqui arinac parca-nteco: arimeari indarra, sendotasuna, gracia ta janaria espiritualala emoteco. Agaiti Trentoco Batzar Santuac deseetan dau, egunero bada bere, comulguetea, onetara-co cristiñan fededunac ondo prestetan baldin badira; baba au da ogui bedeincatu bearrena ta escatu bear doguna.

Gorputzeraco escatuten doguna da, alimentua, jatecoa, jaztecoa, bicilecua, ta bi-otzaraco bear dogun guztia. Escaera au, ondo eguiteco, escatu bear dogu Salomon jaquitun Erregueac leguez: ceñec cirau-tzan Jaungoicoari: *Jauna, aberastasun, ez pobreza andiric emon ez eidazu, ezpada bicitzaraco combeni jatana*: ta escari umil au, eguin ebalaco, Jaungoicoac emon eutsazan secula entsun-icusì eztirean on-dasun ugariac, ta jaquituria miragarri bat. Escatu bear eztoguz erregaloac, jan edan

(1) Panem nostrum supersubstantialem da nobis hodie.

gueieguiac, gala apaindura eder costosuac, diru piloac, aberastasun larreguiac, ezpada bear dogun adiñ-ona ta combeni jacuna janaritu ta jantsiteco. Jesucristoc oraciño onetan ezteuzcu iracusten ezpada oguia escatuten, baña oguiaren icenez adietan dira beste jateco, edateco, jantsiera ta gorputzac bear dabena: bada oguiaz bacarric guizona bici ezta, diño Escritura Santeac. Oguia emoten deuscunac, beste gauzac bere emongo deuscuz. Diñogu *gueure Oguia, ta ez nirea, ez arena*, adierazoteco, emoten deuscuna guztioen Aita bat dala; guztioe mai batecoac, gareala: guretzat ez ece, beste guztientzat bere escatu bear dogula: besteacaz, ta batezbere gueure anae ta lagun pobreacaz zatitu bear dogula: aberatzac, pobre esquecoac leguez, eztabela ecer enquico Jaungoicoac emoten ezpadeutse, ta guztioe bere bearra dogula.

Diñogu *gueure Oguia*, adietan emoteco, Jaunac emoten deuscuzan ondasunetarie atera bear dogula pobreentsat ganez daucaguna, falta eguiten ezteuscun jatecoa ta jastecoa. Bada San Ambrosio andiac

dirantse cuticiotsuai: *Oh cequen, cicotz, gogor, escu estucoa! goseac illeena da zuc gorderic dozun garia ta garaua: billoseena da, zuc escutauric, citsac jalen, daucazuzan jastecoac.* Dirauscu Jesusec, escatu daiogula gaureo ta ez biarco, biar bere escatu daigun barriro, bere bearra dogula dazangun: gaur emoten deuscunac, beste egunetan bere emongo deuscula sinistu daigun: egunero berari ezquer onac emotera beartu gaitecen: bada bein betico emongo baleuscu guztia batera, aztuco guenduque mesede andi au, gueure onguillea ta gueure emollea. Onetan gu segurututeco ifinten deuscu beguien aurean bere erri maiteco Isrraeltarracaz eguin eban miraria arrigarria. Ermu bacarrean ibilli cirean berrogei urteetan iru milloi persona chiqui ta andi: ez euqueen cegaz mantendu, ez gariric, ez urunic, ez non eio. Eta Jaungoico maite erruquiorrac biralduten eutsen gau guztietan iños uts eguin baga *mana* cerichon ceruzco ogui janarigozo bat: alangoz ece, iños gordeten bazan biaramoneraco, nsteldu urdindu, birrindu ta arrez betetan zan: eta bacarric

jai aurreco egunecoac irauten eban egun bi, Domecan lan bearric eguin ez eguien á ceatuten ta maneatsen. Jatecoaz eguiten eban miraria, soñecoaz bere eguiten eban: ez enquen non erosi oyalic, ez eunic, ez oñetacoric, eta Jaungoicoac iraun eraso eutseen urratu baga, eten baga, Egitoco erbesteric atera cituezan soñeco guztia. Ez bacarric emon eutseen soñeraco ta sabeleraco bear eben guztia, baita Davidec diñoalez, gorde cituan gaissotasunic, ta iñor eurretanic gaissotu etzan; ta ori guztia onac ez izanic, euren artean gaito oquer asco egonic. ¿Noc estacuz omen Aita cerucoaren probidencia ta gugaz daucan contua, gobernua ta ardurea? ¿Noc beragan confiantsa guztia ifinico eztan? ¿Nor bildur izango da, utseguingo ete deutsan eguneango janaria? ¿Ce mirariac eguin eztitu Jaungoicoac, guri eracusteco, ueatuco ez deuscula eguneroco ognia, jatecoa ta bear dogun guztia? Legue zar ta legue barrico liburn santu guztia dagoz onelango mirariz beteric. Elias Igarla santua egoan eremu bacar baten goseac illic, ta Angueru batec ecarri eutsan ce-

ruzco ogui zuri eder gozo bat. Babilonia-
co iru zaldun santuac jaten cituezan baba
ta ogui utsari Jaunac emou eutseen ain
gozotasun andia, ce beste erregne maian
jaten eben lagun guztiaac baño ederrago,
guicenago, cendoago aguerta cirean. Da-
niel iru zaldun oneen lagun santua leoi
amurratuen toquian sarturic gosetiric
egoala, Jaungoicoac biraldu eutsan bear
eban jateco guztia, Abacuc Igarlearen es-
cuz ta bitartez. San Juanen Evangelioan
daczgu, Jesucristo berac egun baten ase
bete cituala bost milla guizon bost ogui
ta arrain bigaz. San Mateoc San Marco-
segaz dacar, beste bein zazpi ogui ta
arrain guichi batsucaz janaritu cituala Je-
susec lau milla guizon, contau baga an
egozan andra ta umeac. Apostolu santuai
esan eutsen bein baten Jesusec, nic biral-
du zaituezadanean erriric erri predique-
tan diru baga, ogui baga, bide-zorro baga,
ecerbere baga, *menturaz inos faltau jatzue
eguneango janaria ta igaropidea?* Ez Jau-
na, eurac erantsun eutseen: eceren faltaric
euqui estogu, jan bagueco egunic izan ez-
togu. Baña cer? bera dan guztia Comuni-

ñoan emoten jacun Jesus maiteac, cer emongo ezteuseu?

Bada beste santu azcogaz ce mirariac Jaungoicoac eguin eztitu, guri eracusteco, gugaz daucan contu ardurazcoa, ta^ancatucoco ezteuzcula bear dogun janaria ta jantsia? San Paulo eremutar santuac cirautsan San Antonio Abatari: Oh ce ona, ce biotz beraa, ce erruquiorra dan gure Jaungoico maitea, bada mendi bacar onetan bici nasan iruroguei urteetan egunero biraldu deust ogui erdi gozo bat bela baten bitartez: gaur barriz ogui osoa, zугaz batera jateco. San Gil edo San Egidio batarrari eremuan bici zan demporan, basauutza bat cetorean jateco orduetan ta bere ezneaz janariteten eban. San Roque bere gaisotasunaz, erritic campora bici zan egunetan, chacur batec artu oguia bere nagusiaren maitic ta eroaten eutsan. ¿Ceimbat onelaco mirari, Jaungoicoac eguin eztitu beste Santu azcogaz, eracusteco bere ontasun erruquitsua gugaz? ¿Ceimbatec euren bicitza guztia ta lucea eremu mendi bacarretan igaro eztabe, Jaungoicoagan euren segurutasun

guztia ifiniric, inos falta baga mantenua? Ceimbat milla Erligioso Jaungoicoac mantentsen eztitu mirariz errenta baga, eche, solo ta ondasun baga, Aita San Franciscoren erligiñoan, ta beste ascotan? Ceimbat alargun pobre icusten eztira umeez beteric ta ondazun baga, ta orregaiti bere ecer falta ezjaquela bear daben eguneango sustenturaco, jaquin ta esagutu baga, nondic eta celan jatorqueen? Ceimbat bider lucetu eztau Jaungoicoac bere escu zabala eracusteco pobre beartuacaz daucan contua? Asco milla fraide batu cirean Capitulu guztiroco baten, esan eutseen Aita San Franciscori bere semeac: Aita, asco batu gara emen, ta ez dogu cegaz bascaldu. Santuac erantsun eutsen: Ea semeac, biztu eguizue ceuroen fedea: errezau daigun biotz guztiaz: *eguneango gueure oguia gaur iguzu*, oh Jaun maitea! zure amorez ichi guenduzan munduco ondasun guztia: zuc janaritu cenduzan eremuan bost milla guizon bost oguigaz; zuc mantentsen dozuz egaztiac, arraiñac ta lurreco arrac; ez gaizuz bada orain aztu, oh Jesus maitea! Ea seme maiteac, gonzan Jatelecura. One-

tan sartu cirean jatelecuan Oguei Anguera zaldun gasteen irudian, batsuc oguiacaz, beste batsuc araguiacaz, besteac fruta gozoacaz; ta Anguernac eurac maia serbidu eben bazcaria azquendu artean: ta guztiai buru macurte ta agur gozo bat eguini, urten eben. ¡Oh gueure Jaungoico maitea! ce prestua, ce escu zabalecoa, ce miragarria zarean ceugan confiatu ta ichedoten dabenacaz! Anguernac, cerutarrac ta criatura guztia, alabatu, andizcatu, bedecatatu zaiezala, gugaz dozun contua gaiti. Bai Jauna, len baño icharomen ta esperantsa biciago bat zugan euquico dot emetic aurrera.

Ce promesac, ce esquintsac Jaungoicoac eguin eztitu, guri sinisterazoteco, beti dagoala prest, abiatu ta beguiac zabalic, gu zaindu, mantendu ta jantsiteco, baldin gu onac bagara, gure aldetie aleguiña eguiten badogu: alperqueriara ta gaistaqueriara emoten ezpagara: bere legue santua gordeten badogu, ta beragan icharomen oso bat ifinten badogu? Isaias Igarle santuaren aotic dirauscu: pecaturie eguin ez eguizue: pobre goseac ill bear-

tuac socorridu eizuez: alargunac ta ume-
zurtsac ondo artu eguizuez; au eguinié,
pecatuac parcatuten ezpadeutsnedaz, ta
jatecoa, jatecoa ta bear dozuen guztia
emoten ezpadeutsnedaz, erdue, esetsi ei-
dazue, esan eidazue, neure Jaungoicozco
berbea bete edo cumpli eztodala: esana be-
te eztodala: esqueña ucatu dodala. Cer
gueiago Jaungoicoac esan leigu bere
ontasuean gueure fidautsia gue ifinte-
co? Guizon prestu baten berbeari бага-
gocaz, ceimbat eta gueiago Jaungoicoe-
nari sinistuco ezteutsegu? David santua-
ren Salmu-canta santu guztia onelaco
promesaz beteric dagoz. Lecu baten diño:
errespeto, beguirrña ta lotsa bildurrezco
bat euqui eiozue Jaungoicoari, bada ecer
faltaco ezjaque bere bildur lotsazcoa da-
benari. Beste bein diño: beragan gueure
ardura guztia ifini daignla, ta berac man-
tenduco gaituala. Beste bein diño: Jaun-
goicoaren beguiac beguira dagozala berag-
an ichedoten dabenaí, euren premiñetan
socorrietaco. Beste lecu baten diño: oh
Jauna, zugar josiric dagoz guztien be-
guiac, ta zuc emoten deutseezu bere dem-

poran bear daben jatecoa. David berac diño: eun ta berrogueta seigarren Salmuan beste gauza miragarri bat: esan ezquero, abere bacochari berari dagoquion jatecoa emoten deutseela, diño, belacume goseac illac bere aztuten eztituzala. Esan daroe, bela egazti gogorrac icusirie euren ume chiquiac ulle zuriz jantsirie, ta ez baltzez eurac leguez, larga ta ichiten dituezala abian, jaramon baga, lume baltzez jantsi arteraño: bada dempora onetan Jaunac janarituten dituz, ta belacumen chilioac, negarrac ta deiac Jaungoicoaren belarrietaguño elduten dira. Au eguiten badau belacumeacaz, guri calte baño eguiten ezteuscuen egaztiacaz, ce eguiugo eztau gu bere semeocaz? Menturaz ama bat aztu leiteque bere bularreco ume chiqui laztan maiteagaz? Ez; ez dirudi. Bada au jasoco balizt bere, baña ez inolacoz ni zuecaz astutea, diño Jaungoico eguiatiac berac, Isaias Igarla santuaren aotic.

Jaungoicoac Escritura santean egui au eguiatu, baiestu ta eracutsico ezpaleu bere, asco liteque Jesusec berac Evangelio santuan esatea, bildur ardurazcoric artu

eztaigula, ea cer jan, ta cegaz jantsico garean: bada berac ondo daquiela ceren bearra dogun. Eta onetan zegurututeco dirauscu: eztacutzue ce ederric jantsiten dodazan lurreco lirio, lora ta larrosa galantac? Eztacutzuez choriac ta egaztiac ce apainduric, ce politic, ce lume bichigarriz jantsiric dabiltsan; ce pocic, ce guicen, ce ardura, бага bici direan jatecoaren ganean? eztabe ereinten, eztabe achurtu ez jorratuten: eztabe garauteguietan bildu ez ecer gordeten; eztira larritu ez arduratuten ea cer jango daben. Neuc mantendu, janaritu ta jantsiten dodaz. Bada combat gueiago, ta obeto zuecaz eguingo eztot? Ceren bildurra dozube? Ori baño confianza gueiago ez dozube nigan? Zuec gaiti guizon egnin lintzan: zuec gaiti neque gogorrac igaro nituan: zuec gaiti ibilte nequezoac, laztazunac, icerdi labanac, nabague sentigarriac iruntsi nituan: ta zuec bildur zaree emongo deutsuedan edo ez jateco pusca bat, ta eguneango oguia? Ondo prestueztzat nozue: ondo guichitan nancazue. Guizon dollor, guzurti, ilcor bategaz beste orrembeste eguingo ez cenduque.

Zucc gaiti odol guztia emon neban: neure bicitza maitea curutze baten galdu neban. Nasan guzti au Comuniño santuan emoten nachazue: zuecaz nago ta egongonaz altaran azquen egunera guiño. Menturaz au guztiau ezta guciago, zuei eguneango janaria emotea baño? Neure berbea, berba eguiazcoa da; ta dot emonic pecatu guztia e parcatuco deusadazala, damu eguiazcoaz, propositu benetacoaz confesetan danari. Au sinisten dozue fedeco eguia sinismentzat, ¿bada cegaitic ez, mantenduco zaituedazala? bear dozue na soñeraco ta sabeleraco ucatuco ezteutzuedala?⁽¹⁾ ¿ce itsutasuna da zuena? ceruan ta munduan dan guztia zuentzat eguiña da: bada cec larritu, estutu, izutu, ansiatuten zaitue? Eguneroco eguzquia biralduten deusnet: frutuac, egaztiac, arraiñac, abereac, lurrean ta ichasoan dan guztia ceuroen naiau, anqueran, escuetan, ta borondatera ifinia dot; eta bildur zaree utseguingo bajatsue jatecoa, jastecoa, mantenua, bicilecua? ¿Non da zuen sentsuna? ¡Oh ce ederto berba eguiten da-

(1) Modicæ fidei, quare dubitasti?

ben onen ganean Fr. Luis Granada Bene-
ragarriac! Gueure beguiz dacuzgu, diño,†
Jaungoicuac daucan contua mantendu ta
jantsiteco animalia guztia. Batzuc jasten
ditu lumez; beste-batzuc ullez: beste-ba-
tzuc narruz: beste-batzuc conchaz ta azal
gogorraz. Bacochari emoten deutso be-
rezco jatecoa: batzuei garaua, besteai be-
darra, besteai arrac, besteai euliac. Au
dacuzcu, ta bildur gara faltauco deuscula
bere semeoi bear doguna bicitzaraco. ¡Oh
confiantsa laburra! ¡Oh esperantza guichia
Aita ceruco maite prestuagan! Lurrac be-
re faltauco deuscula uste dogu, Jaungoi-
coac Santa Terosari esan eutsan leguez.
Santa miragarri au ebillela Conventu asco
ereguiten, euretariac bat eguiteco pusca
bat estutu zan, uste izanic, ez eucala bear
eban lecu guztia, ta Jaungoicoac esan eu-
tsan, ¡oh ce labor, chiquia dan guizona-
ren biotza, bada bildur da lurric bere izan-
go ezabela eche bat eguiteco! Gu lotsa-
tuteco etorten dira udebarrian elaiac ta
benceju edo cirrinqueru egaztiac. Dacuz-
dazanean gogoratuten jat Jaungoicoaren
Probidentsiaren predicariac diriala. Ezta-

be oñic lurrean ifinten: eztira jatsiteu beste choriac leguez jatecoaren billa. Beti dabilitz aidean axetan. Eta noc mantentsen ditu? Jaungoicoaren probidentsiac: an goian daucaz eurentsat euliac ta elchoac, ta guiceu, pocie ta ardura bague dabilitz beti. Choriac ta lurreco arrac mantentsen dituan Jaun aberatsac, aztuco ete gaitu bere semeac erosi ta ceruco gloria-raco sortnac gareanoc? ¡Ce guichi!

Ume chiquer batec urte bete gneiago eracusten dau bere aitagan, gue ceruco Aita Jaungoicoagaz baño. Itandu eiozue mutil chiqui bati, diño Belarmino Cardenalac, umechoa, zuc ez dozu soñean daucazun jaztecoa baño besteric. Ori urratu ezquero, cer eguingo dozu? noc jantsico zaitu? zuc ezdozu ez dirurie, ez oficorie, ez ganorarie irabasteco, eta alan guixagaisso ori billosie ibilli bearco zara. Berpertatie erantsungo dentsu mutilchoac: esta antsi; ezdot dirurie, ez oficorie, baña esta ardurarie bere; bada au urratu ezquero, neure aitac beste barri bat eguingo deust; berac dauco nire contu. Bada orain, seme batec munduco aita baten

ifinten badau segurantsa au, ce segurutasun gueiago Aita Jaungoicoagan ifini bear eztogu? ce sinismen da gurea? Ondo guichitan daucaga gueure Eguillea, guenre jabe bacarra. Ezpadogu cegaz mantendu, da eztaucagulaco sinisteric, federic, icharopenic beragan. Onetan eguiten dan Jaungoicuac, eguin daroana medicuac, gaissoaz, diño San Agustinec. Medicu osaguille batec, quendu, laburtu ta eragosten deutso gaixo bati calte eguiten deutsana. Jaungoicoac guichi emoten badeutsu, da, ascoac calte eguingo deutsalaco, umilde icusi gura zaitualaco, berari deitu ta escatu daiozulaco. Jasoten da batsnetan, diño Santo Tomasec, cristiñau garbi, on, jaungoicoti batec guichi euquitea, baña ez ecer бага gueratutea: bada Jaungoicoa maite dabena, beti dago contentu daucanaz: ta iñoz uste eztan, Jaunac neatuco deutsalala bear dabena. Eta alan diño San Juan Crisostomoc: ¿zortzi erreal bear dozuz ceure familia mantentseco, ta ecin irabaci dozuz ezpada lau? Jaungoicuac beste laurac bete ta gueituco ditu. Ecin irabaci dozuz ezpada bi? Beste seirac

Jaungoicuaren contura dagoz. Zortzi seme alabetaric erdiac baño ecin mantendu dozuz? Bada beste ganecoac larga Jaungoicuaren ardurara. Noc emon deutsuz zortzi semeoc? Jaungoicoac. Bada celan ucatuco deutsu, zu nor bazara, aentzat bear dozuna?

Zu, ta zure umeac mantentsean baño, gueiago eguiten dau Jaungoicuac, zuri pecatu bacar bat parcatutean. Zuc esan daroazu, Jaungoicuac ondo confesetan danari parcatuten deutzala, ez bacarric autor-tuten dituan pecatu esagutuac baita erru бага azturic guelditsen direanac. Bada gezta errasago, pecatuac parcatutea baño, zure echea ondasunez betetea? ¡Ceimbat! guraso icusico litequez dagozan baño pobreago, euren madaricaciño, birao, errierta ta gaistaqueric gaiti, ezpalitz Jaungoicuac daucan erruquia euren ume chiqui, Angu eru inocenteacaz. ¡Jaungoicua beti dago begui onez beguira, ta bendeciñoa ezarten, ume chiquiac, zarrac ta gaixoac dagozan echeetara, eurecaz dauquen neque ta eroanquizuna gaiti. Bost baquzguz munduan ume bague egonic, euren buruac mantendu ecin dituenac:

baita contrara bere, seme alabaz beteric dagozan alargun pobre asco, guztiraco dauqueenac. Oh Jaungoico maitearen probidentsia ta gobernuá, eta ce estalia ta miragarria zarean ganza guztietan!

Ori guztiori eguia da, esango dabe, bateg baño gueiagoc: baña dacuzcuna da, ascoc ez dabela cer jan, ez cer jautsi. Eta noc ezpada ceuc daucazu errua? Celan beguiratuco deutsu Jaungoicuac, celan mantenduco zaitu, cenc bera azturic badozu? bere conturic, ez bere bildurric ezpadozu? Urte osoan, edo gueiagoan, etzara confesetan, ez comulguetan, osta mesa bat domeca ta jaiegunean entsuten dozu; eguneco errezu, ez echean Errosarioa errezetan ez dozu: eztozu limosna bat eguiten. Bada celan Jaungoicoac mantenduco zaitu? Beti zagoz madaricaciñoa, biraoa, añena, deabruaren icena aotic dariazula: entsuten ez jatzuz ezpada berba-loi, ciquin atsituac, murmuraciñoac, besteac gaiti deunguero esateac. Ce gauza on izan litique zure echean onelaco bicimoduaz? Bici zara amorentasunean, adisquidetasun eragotzian: ez dozu inogaz baqueric, zagoz

cenre arerioaz gorroto bician, baqueac eguin бага, azpaldian barbaric eguin gura ezteutzazula, beraganic ta bere echeric iguesca. Eztozun quitututen zor eguiac-coac: eztozu biirtuten ganza ostua: eztozu mesa bat ateraten: eztozun testamentuco sufragio ta aguinduac beteten: zure tratu guztiac, zure zaldu erosteac, zure pisu ta neurriac, guztiac dabiltz trampa, falsiaz ta engañuz beteric. Onelango bicitsa gais-toaz, ce gauza on etorri lequiquio zure echeari?


Guraso ascoc aurreratu bearrean eheco ondasuna, atseratu, ondatu, baguetu, ta galdu baño eguiten estabe. Senarrac ondasun zati bat urtuten dau jocoan, jan edan gueieguietan, ardaoan, aucietan, desones-querian, ecandu charretan, edo alperrian demporia emonic, edo lan bearrac, lurrac, officioa largaric. Emasteac bestetic ondatuten dau ondasuna, burua apainduten gala, moda, soñeco eder balio andicoacaz, gulleria ta gastu bear estireanacaz. Umeac barriz, osturic ehecoa, alper andiac egu- nic, echeari ez beguiraturic, officioric ez icasiric. Onelacoen echean cegaz erosico

da janarituteco ta soñecoraco bear dana?
(1) Celan beguiratuco deutse Jaungoicoac
gogo onagaz onelaco aita semeai? Lau ira-
baci ta zortzi gastetan badira: errenta gui-
chi enqui ta aberats andien antsera bici
badira, iñori ostua, echeco ondasunaz nas-
tuten bada, bicitsa gaisto bat eguiten ba-
da, ce ganza on izango da famelietan? ceu-
re buruari, ta ez Jaungoicoari egotsi bear
deutsazu errua, zue ez zure echecoac ez
enquitea cegaz mantendu, janaritu ta jan-
tsi. Cristiñau bicitsa bat eguizue echeco
guztiac, laburtu eizuez gastu ganezcoac,
nrrindu eizuez betico ecandū charrac, bi-
rao, aserre, lapurreta ta beste gaistaque-
ri guztiac, ta orduan ugaritasun andiaz
sartuco dira zuen echeetan Jaungoicoaren
bedeincaciñoac. David santuac ciñoan:
gaztea nintsan, zartu ta aguratu nas, ba-
ña secula icusi eztot persona on bat la-
guntasun baga, janaria baga, ez ateric ate
oguia ezque. Eguia da Jaungoicuac laque-
tuten dabela batsuetan ta batsuecaz au
bere: baña da bere oneraco ta nequezco
bidetic cerura eruatenco ta an gloria gaeia-

(1) Unde ememus panes ut manducent hi?

gogaz sarituteco: baña gueienetan dator beartasun au, alperqueriatic, lapurqueriatic, bearrari ez eragotea gaiti, ganora bagnetasuna gaiti, lan guichi ta jan asco eguitea gaiti, concienciaco gaucetan zucen ez ibiltea gaiti, Jaungoicuagaz ta arimiagaz azturic egotea gaiti.

¡Oh Jesus maitea! eta bada dirauscuzu escatu daigula gueure eguneango ognia: iguzu arren bear dogun guztia, bicitsa nequezo au igaroteco. Ceuc mundu onetan igaro cenduzan gose-egarri ta beartasun andiac gaiti, ucatu ez eiguzu, ez gorputsari dagoquiou janaria, ez arimari dagocana, gracia ta comuniño santua, alan osasunean, celan azqueneco gaissotasunean. Es beguiratu, Jauna, gure gaistaqueriai, ezpada ceure misericordia ta ontasun andiari. Galduac gara zuc aztuten bagozuz, zuc socorrietan ezpagozuz. Erruquia gugaz. Amen.



BOSTGARREN ESCABIDEA:

PARCATU EIGUZUZ GUEURE ZORRAC,
GUC GUEURE ZORDUNAI
PARCATUTEN DEUTZEGUZAN LEGUEZ.

Aita gureco bostgarren escabideac zati bi ditu. Lenengoa: parcatu daiguzala gueure zorrac, edo pecatuac. Bigarrena: gueuc-gueure zordunai, gueur ofendidu gaituzanai parcatuten deutzeguzan leguez, gueuri eguin deuscuezan injuriac, iraiñac, ofentsac. laburtasunac, zantarqueriac ezquer gaistoac, ta billanqueria citel pres-tuezac. Lenengo escatuten dogu, Jaungoico maiteac parcatu deiguzala bere ontasun miragarriaren contra eguin doguzan gaistaqueriac: begui erruquitsuaz beguiratu daigula: gure misericordia ta erruquia equi daguiala: bere adisquidetasu-nera biurtu gaizala: estedilla gomutau gure esquerbagnetasunagaz, ta aztu daizala chiquitaric ona eguin doguzan pecatu guztia.

Escatuten dogu, ez bacarrie pecatuen
 parcaciñoia, baita eurai zor jaquen pena,
 castigua, ordea, quitutasuna. Zor au, gura
 ta gura ez, quitutu bear dogu; edo emen
 mundu onetan, edo bestean. Emen quitu
 ordetuten da penitentsiacaz, biotz nega-
 rracaz, barauacaz, limosnacaz, azote, cili-
 cio, lastasunacaz, parcamen edo indulgen-
 tsiacaz, oraciñoacaz, mesac atera edo en-
 tsunaz, confesiñoiagaz ta confesiñoico pe-
 nitentsiacaz, injuriac parcatuagaz, eroa-
 pen edo patientsiagaz munduco curutseac
 artuagaz, gaisotasunac, beartasun ta
 gora-berac. Beste munduan quitu-saritu-
 ten dira betico infernuagaz pecatu mortal
 parcatu-bagueac: eta Purgatorioan pecatu
 mortal parcatuac, ta pecatu venial arin
 chiquiac, baldin emen munduan ordea,
 quitutasuna, satisfaciño osoa emon ezpa-
 zan. One-gaiti diño San Agustinec, biotz
 guztiaz eguin bear dogula escabide au,
parcatu eizuzuz gueure zorrac, ta gueure
 pecatnac. Bada oraciño onec berez peca-
 tu mortalac parcatuten ezpadanz bere,
 baña bai erraztu ta bidea idigui, Jaungoi-
 coac parcaciño-raco prestau gaizan, diño

Santuac berac. Eta ceimbatec oraciño onen bitartez irabaci eztabe mesede andi au? Escabide onetan escatuten dogu, diño Erromaco Catecismuac, Jaunac parcatu daiguzala gueure pecatuac gaiti zor dogun guztia, Jesueristo bere seme maitearen bicitsa ta erioetsaco irabaci balio andicoac gaiti. Gugu cumpli dedilla, Isaia-sen aotic Jaungoicoac esan ebana: *Jacob-en echeari parcatu jaco, eguin daben gais-taqueria*. Eta Davidec diñoana: *zorionec-uac dira, Jaungoicoac parcatuten de-utseesanac euren pecatuac*. Mereci daigula, entsutea Jesucristoren ao gozotic, Evan-gelioco peccatariaac leguez: ⁽¹⁾ *parcatuten ja-tsuz ceure pecatuac*. Begniratu daigula begui onez Madalenari, San Pedrori ta beste peccatari ascori leguez. Baña onetaraco enqui bear dogu pecatu eguñaren damu eguiazco bat: beste bein ez eguiteco gogo sendo benetaco bat: ezagutu bear doguz gueure pecatuac: autortu umiltasun ta arguirotasunaz, ta ifini nste bete edo con-fiantsa andi bat ta icharopen oso bat Jaun-goicoaren erruquitasun neurri baguean.

(1) Remittuntur tibi peccata.

Icharopen edo esperantsa onen ezagaz condenau cirean Cain Adanen seme lenen jaioa, Judas Apostolua ta beste asco. Esperantza, damu ta propositu au bague, Jaungoicoac pecaturic bapere parcatuco ezteuscu. Eldu bear gara Jaungoicoagana Evangelioo seme galtsallea leguez damuturic: Madalena leguez negaturic, ta arantza edo elorri bat oñean sarturic daucana, beste bategana doian leguez, atera danguion. Eldu beargara lotsa santu bategaz, araco Jerusalengo Elexara joan zan Publicano pecatari agniria leguez, ceñec lotsaren lotsaz ez eban besteric eguiten, ezpada beeratu bere beguiac, jo bere bularra, ta escatu misericordia. Madalena ta beste andra gaissoa bere lotsa cirean Jesucristoren aurrean ifinten, ta atzetic bere oñac mun eguiten cituezan umiltasun andiaz. Ondo lotsa andia artu bear guenduque, icustez, gueure Jaungoico maitearen contra pecatu eguin dogula.

Ceimbat eta guciago direan gure peccatuac, beste aimbeste zorren zordun eguin gara. Bada David santuac diñoan leguez: Noc dazauz, noc bururatu leiz, noc jaquin

lei ce neurri muga baguera gure pecatuac elduten direan?⁹⁽¹⁾ Ondo badacusgu, bicitsa guztia iensico dogu pecatuz ereinic. Ume chiquiac guñeanean ceimbat gaistaqueria, ceimbat eruegu, errierta, desobedientsia; ceimbat desonesqueria, icuste, eracuste, ibillera gaisto, ta umequeria lagun idecoacaz! Umequeriac cirean; menturaz ez egoan peaturie, baña cirean gauza lotsagarriac. Gaste demporan, ceimbat arrotasun, baneria, eraqueria, buru eracuste: ceimbat escuca loi, berba zantar, oracada, besarca, dantza nastu ta escandalo: ceimbat adisquidetasun, amoretasun, alcaribilté eragotsiac: ceimbat pentsamentu ez garbi, gogoraciño char, icuste eiquin ta besteari peaturaco bidea emotene: ce azutasuna Jaungoicoagaz, ce ardura guichi arimearen salvaciñoagaz: ce gogo laburra debociñoraco ta ceruco gaucetaraco. Pecatu guztioe ¿cer dira ezpada beste aimeste Jaungoicoaren justiciari eguiñac?

Cembat pecatuzco zor eguiten ez doguz Sacramentu santuac denugnero artuteaz? Ceimbat, bacochoe bere estaduta

(1) Delicta quis intelligit?

oficioco premiñac bete edo ez cumplitseaz? Noc gogoratuco leiz, Jaungoicoaren legue santuaren contra eguiten direan pecatuzco zorrac? Ceimbat madaricaciño, birao, ta juramentu guzurrezco caltegarriac? Celan meza entsuten da, ta celan jaiegun santuae gordeten dira? Ce semec dentso bere gurasoari zor jacon maitetasuna, lotsa, errespeto ta obediencia? Ce gurasco azten ditu ondo bere seme alabac? Noc maite dau projimu laguna bere burua leguez? Ceimbat bici eztira gorrotoz beteric, alcar icusi ecinic, barbaric, baqueric, adisquidetasunic eguin gura eztabela? Ceimbat ordiqueria, lapurreta, juzgu char, murmuraciño, esate ta eguite gaistoen zordun ezgara Jaungoicoaren beguietan? Conta alac eztira gure miñagaz bacarric eguin doguzan pecatuac. Cembat berba aztun, cembat esaca zorrotz edendu, cembat esate sentigarriac! Bada contu estu ciurrac arturic beguiac, belarriac, gogo ta borondateari, eztira errudun ta zordun chiquiagoc izango. Non dira guero, eguin baga larga doguzan gauza onac ta premiñazcuac? Non dira Jaungoicoari zor deu-

tzaguzan ezquer, mesede ta gracia neurri ta muga bagueac? Oh ceibat eta ce andiac diroan gure zorrac! Ez bacarric gara zordunac pecatuac gaiti. baiti zorpecoac gara Jaungoicoaren aurrean bere ontasunac eguin deuscuzan mesedeac gaiti. Ceibat zor ezteutzagu Jaunari, sortu gaitualaco ecerbere ecetic ta cristiñau errietan? Bene escuan egoan gu eguitea arri bat edo abere bat: baña eguin gaitu errazoidunac. Sortu guinduezan Turquian, edo federic ez egoan munduco bastor ezcutu baten: eta sortu gaitu Elexa. Ama santearen sabelean eta besartean. Ceibat zor ezteutzagu onembeste mesede gaiti? Ceibat erosi gaitualaco bere Seme Jesucristoren odol balio andicoaz atera gaitualaco deabru ta pecatuaren azpitic, ta eguin gaituzalaco ceruco ondasun ta gloriaren jabe gai? Ceibat zor ezteutsagu, aimbeste urtean mantendu, jautsi ta gorde gaitualaco?

Ceibat zor ezteutsagu, emou deuzcuzalaco arimaco almenac ta gorputzeco centsunac, beguiac, belarriac, escuac, oñac, indarra, osasuna, ondasuna ta bear

dogun guztia ondo biciteco? Eguin guin-
duquezan itsuac, mutuac, gorrac ta gago-
zan baño pobreagone, beste asco dacuz-
cuzan leguez; baña gugaz mesede au
eguin gura izan dau. Ceimbat zor ezteu-
tsagu Jaungoico maiteari, arimau ta gor-
putzean eguin densenzan mesedeac gaiti:
biraldu deuscuzan argni, dei santu, biotz
quisquetada, ezagüera, fede, dotriña, pre-
dicari, libru ta adibide santuac gaiti, gu
beraganduteco, guri on egniteco? Ceimbat
zor ezteutsagu, gueure pecatuac parcatu
densuczalaco, ta ichi densuczan Sacra-
mentu, erremedio, bide ta bitarteco gue-
ure arimac garbituteco? Ceimbatean eu-
quico leuquee condenausac, emon baleu-
tze guri leguez, demporia infernutic iguez
eguiteco? Aec erremedio baga ichi cituan,
gu ez. Eta celan erantzuten deutzegu, ez-
quer mesede miragarrioi? ta eurac gaiti
Jaunari zor deutzaganari? Ce bearturic
ezgagoz berari escatutera, parcatu daigu-
zala gueure zorrac: parcatu deigula era-
cutsi dentsagun esquer-gaistoa ta billan-
queria, mesede onei ondo erantzun esteu-
tsegulaco?

Jensiric bada Jesus maiteac, biotzecoac, ceimbat eta ce andiac cirean gure zorrac, iracatsi enscun oraciño ceruzco onetan, escatu deiogula euren parcaciñoa egunero ta sarri umiltasun andiaz. Eta onetan eracusten denscu, bera prest daguala, guri parcatuteco, gu prestatsen bagara, guc eragosten ezpadeutsagu, guc gueure buruac zorduntzat badazauguz. Onetaraco ifinteu jacu Escritura Santan, celan Jaungoicoac parcatu entzeen David ta Manases Erregueni ta beste ascori. Onetaraco ifinteu jacu beguien aurrean Evangelioce seme galdu guistoa onduric, damuturic ta parcaturic. San Mateo pecatari lucrerubat Apostolu eguinic. Santa Maria Madalena, Samaritana, Andra adultera ezcondua, Publicano edo pecatari aguiria, zaqueo, tratu charretacoa ta Calvarioan ilzan lapur santua, ta beste pecatari ascoren biurrerea Jaungoicoa gana. San Pedro neatsallea ta San Paulo Jesusen persegullea, Elexaco Buru, Nagusi, ta cimetaurriac eguinic. Eta ceimbat beste peccatari irabaci eztabe euren peccatuen parcaciñoa? Parccaciño au jatoren Jesucristoren irabaci

edo merecimentuetaric: eguia au eracusten deuscue Elexa-Ama Santear, Concilio ta Aita Santuar: ta San Pedro cinoan leguez, eztago salbaciñoric, graciari, paracaciñoric, ezpada Jesusegan.

Jaungoicoaren Semea mundura jatsi ta guizondu baño leu, oituagoa egoan Jaungoicoa castiguetara, parcatutera baño. Agniri da Jesucristoc atseratuten dabela bere Aita aserratuaren ezpatea ta justicia, ta bitarteco ifinten dala bere anaeta, naturaleza araguzcoan partill dirian guizonacaz. Len, ce castigu gogor arrigarric eguiten etsituzan? Angueru gaistoac soberbiatu cirealaco, ondatu cituan seculabetico infernuan. Adan eta Eva gure gurasoac bota cituan ordu gachean Paradisu ederretic campora, fruta eragotsi bat jan ebelaco. Baña orain pecatu andiagoc bere parcatuten ditu. Desonesqueriaco pecatu araguiscoa gaiti, itu cituan zortzi persona ez beste guztiac. Noe Santuaren demporan, ta Abrahamen demporan erre cituan ceruco su ta garraz Sodoma, Gomorra, ta beste erriac. Orain barriz sufrietan ditu desonesqueriac, esate ta egui-

te lotsagarriac. Bat edo bestea castiguetan dau mundu onetan, baña gueienac ez. Seirenu milla Israeltario, bi ez besteac il cituan Eremuan, ta eragotsi eutsen erri zorionecora eldutea. Core, Datan ta Abiron irantsi cituan bicirie, lurra ondandu edo embidiaco pecatua gaiti; ta orain embidiac ez ece, gorroto ta alcar icusi ecin andiac igaroten dira munduan castigu baga; baita eriotzac, anzi justicia bagueac, ta cer ez?

Israeltar batec jaiegun baten lan bear pusca bat eguin ebalaco batuten cituala arech-orri igartuac edo orbelac, Jaungoicoac agundu eutsen Moises ta Josue Burren Aguintariai, atera eguiela erritic campora a guizona ta arrica il eguiela. Gaureo egunean castigauco balitu jaieguneco bear eguiteac, ta pecatnac, ¿ceimbatec il bearco eleuquee? Ezequiel Igarla santuaren demporan Jerusalemen eguiten cirean gaitaqueriac gaiti, Angueru bati Jaungoicoac agundu eutzan, canibeta edo cuchillo bat gaz il eizala errico zar ta gaste guztia, ta une chiqui guñocoac, Sacerdoteetarie asirie. ¿Ce izango liteque gugaz, Jannac

orain aguinguico balensquico Angueru bati? Ceimbat erri ondatu ta aportunco ez leuquez? Ozac nentu ebalaco azartasun, atreventzia ta lotsa guichigaz, oraingo Altareco irudintsa bat zan Testamentuco Ucha santua, bertan bat batean guelditu bazan beingoan illic, çer izango liteque gogortade onegaz castigauco balituz, orain pecatu mortalean comulguetan direanac? Orain lotsa ta beguirune baga Elexan Sacramentnaren aurrean ifinten direanac?

Eta, oh Janu maitea, çer escatuten deusecuzu, zue guri pecatuac parcatuteco? Menturaz, mundua ichiric eremu bacarrera bacartutea, ta an cilicioz, penitentsiaz, odolezco azoteacaz gure gorputz gaistoac zatitutea? ango lur gogorrean lo eguitea? ur eta ogui, edo bedar utsez barautzea? ondasun guztiaç pobreai emotea? edo erriço gente guztien aurrean gueure pecatuac aguertutea? Ez orrembeste. Escatuten deusecu, berac gueure pecatuen zorrac parcatuco badeusecu, guc bere biotz guztiric parcatu daiogula gure zordunai, gueure arerioai, ofendidu ta perseguidu gaituezai. Celan parcatuco deutzuz Jaungoicoac

berari eguinico ofentsac, ceuc besteari parcatu gura ezpadeutsazuz? Oh gueure Jaungoico maitea! iguzu arguia gueure pecatuac ezagututeco, gueure biotz gaiztoac onduteco. Parcatu eiguzuz gueure zorrac, gueure gaizqui eguiñac, gueure zordunai parcatu daieguzan euren ofentsac.

Bai: gure Jaungoico maitea prest eta abiaturic dago beti, guri gueure zorrac ta pecatuac parcatuteco: baña onetaraco beartuten gaituz, gueure bere gueure zordunai parcatutera biotzez ta amorez, gueure contra esan, eguin ta asman dituezan injuriac, iraiñac, ofentsac, laburtasunac, citaiqueriac, saladura, persecuciñoe, calte ta gach guztiac. Au iracatsi euscun Jesu-eristo eguiac berac *Aita gureco* hostgarren escabide onetan. Au iracatsi euscun arguiroago sermoi bateu esan ebandan: *parcatu eguizue, ta parcatuco jatsue*. Zuec ceuroen arerioai, ceuroen persequilla ta gaisquillai parcatuten badentsazue, ceuroen pecatuac; baña iñolacoz ez ceuroen areriocaz lenago baquetu, compoundu, parcatu, adisquidetu ta maituten ezpazaree: berba ta on eguin gura ezpadeutseezue:

arerioturic, malteinduric, ozturic, alcar
icusi ecinic, gorrotoan bici bazaree.

Onegaiti San Juan Evangelistiac bere
dicipulnai cirautseca sermoi guztietan,
neure seme biotzecoac, batac bestea mai-
tetu eguizue: alcar amau zaitece; ez baca-
rrie miñagaz, aoz, berbaz, baita obracaz,
eguiteucac, injuriac parcaturic, ofentsac
azturic, ceuroen biotzean arerioa ondo
arturic. Icaratu ta arritu bear gaitu, San
Juanec berac dirauscun sententsia bildur-
garriac: *Maite eztabenac bere laguna, di-
ño, illtzallee da: gorroto dabenac orain-
ganic dago illic*, condenauric. Bardin da
Apostolo santu onen ustez, bat iltea, cein
gorrotoa euquitea. Bideric onena, artece-
na ta errazena irabasteco pecatuen parca-
oiñoa, Jaungoicoaren adisquidetasuna ta
ceruco gloria, da, arerioa parcatutea, on
eguitea. Bere arerioai parcatuten dentsa-
nac, esan lei San Agustiñegaz,⁽¹⁾ Neure
Jaungoico maitea, ceuc dozu esanic, nie
parcatuten badot, ceuc bere niri parcatu-
co denstazula. Parcatu deustat zure amo-

(1) Fecimus quod iusisti, redde quod promi-
ssisti.

rez neure arerioari, berba eguin deutzat, parca escatu deutzat, baquetu ta adisquidetu nas beragaz. Orain bada, Janna, parcatu cidazu niri bere, bete eguizu ceure esana, cumpli eguizu ceure aguindua: aztu eguizuz nire zorrac, nire pecatuac, nire esquer-baguetasunac ta gaistaqueria guztia: zure berbeac ecin uts eguin lei: ta ceruac eta lurra lenago uts eguingo dabe zure berbeac baño. Bai: guc besteari parcatuac, prest egongo da Jaungoicoa guri parcatuteaco, guri mesedeac eguiteco, gu zorionduteaco, gu bere adisquideac ta bere semeac eguiteco. Jesus maiteac bere Apostoluai cirantsen: onetan ezagutuco zaitue zarcanez nire icasleac ta nire escolacuac, alcar maite bazaree. Mandamentu barri bat ifinten deutsuet, eta au da, alcar amau zaitueccela, maitetu daizuezala ceuroen arerioac, on eguin deiezuela, deunguerro eguiten deutsuenai, erregutu, escatu ta oraciño eguin daizuela ofendidu, iraindu, perseguietan zaituezanac gaiti, izan zaituecen ceruco Aitaren seme maiteac, ceñec onen ta gaistoen ganera biralduten ditu eguzquia, euria ta frutuac. Baquea ta amo-

dioa guztiacaz enqui eguizue: inñori gachic ez eguiozue.

Jesucristoc ez bacarric ezatez, baita eguitez bere iracasteu eban arerioac maitatsea. Zan Jesus maitea guztia biguna, gozoa, maitetsua, biotz-beraa, moduzcoa ta erruquiorra. Inñori sentimenturic chiquiena emon ez eutsan, eguin bai on bere arerioric andienai. Equian Jerusalem guztia bere contra egoala, ta an bertan inñon baño mesede ta mirari gueiago eguiten eban, ara sarriago joaten zan, an gaisso gueiago osatuten cituan, an gueiagotan prediquetan eban an urtuten zan guztien onean. Judasi oñac garbitu eutsazan, bere maian jarri eban. Sacerdote eguin eban ta maitetasunic andienaz laztan mosu bat emon eutsan bera catigu lotutera soldaduacaz eldu zanean. Malcori osatu ta osotu eutzan San Pedroc ebagui eutsan balarrria berari escuae ezarri eutsazanean. Curutsean egoala josiric, minduric, despreciaturic, guztientsat parcaciñoa bere Aitari escatu eutsan negarrez ta dedarrez.⁽¹⁾ Judegnac preso artu ebenean. Apostolu

(1) Pater ignosce illis.

guztiac igues eguin eben bera ganic: San Pedroc ucatu eban, baña orrez guztiaz ascotan aguertu jaqueen biztu zanean, alangoric eguin ezpalebe leguez. Oh amodio eguiazcoa! oh maitetasun entzuneza! oh adibide ceruzcoac guri iracasteco arerioai parcatuten! Noc au entzunic, parcatuco esteutso bere arerioai? Nor ibillico da iguesca bera ganic? Noc gordeco dau bere biotzean gorrotoa, otzasuna, icusi eziña? Jeremias Igarla santuaren aotic diño Jaungoicoac: alperric deitu ta escatuco deustazue, ceuroen arerioai parcatuten osteutsezuen bitartean: gortuco nas zuen deietara, jaramongo ezteutzuet. Eztago parcaciñoric, parcaciño бага.

Parcatu gura eztabena gaiti esan-lei, Santiago Apostolnac ciñoana: escatuten dozue, baña ucatuten jatsue, deunguero escatuten dozuelaco, arerioturic zagoceelaco. Bera gaiti esan lei Davidec ciñoana, eguiten daben oraciñoa ta escaria bere contra etorri bedi, misericordia ta erruquiric lagunaz ez dabelaco. Parcatu gura eztabenac, *Aita gureco* escabide au diñoan bacochean, bere burnari botetan deutso

condenaciñoeco setentsia gogorra, diño San Pedro Crisologoé, beste guraso santu azcogaz. Bada escaturic Jaungoicoari bere zordunai, bere arerioai parcatuten deutzazau leguez: baldin berac bere arerioai parcatu gura ezpadentso. Jaungoicoari escatuten deutso, beste orrembeste beragaz eguin daijala, berari bere parcatu eztaiola. Eguia da Catecismuac eracasten deuscula, ez orregaiti ichitea erresau бага oraciño au: baña ori eguin bear da, parcatuteco deseoz, uste ta gogo onagaz, Elexa Santearen ta cristiñau guztien icenean, aleguiña eguinic beneietaco danean gorrotoa, ta Jaungoicoari escatuten jacala gracia ta laguntasuna, gueuc besteai parcatuteco, arerioaz baquetuteco, beraganaco iensi ecina ta oztasuna gu ganic quentseco, ta ceimbat lasterren adisquidetu ta alcartuteco. Bestela utsa da erreteea, confesetea, comilguetea, ta uste izatea salbanco garcalá, injuriac parcatu бага arerioaz baquetu бага.

Bere arerioari, bere persegulleari parcatu gura ezteutanac galduten ditu bere eguite on guztia, bere arimea, bere Jaun-

goico maitea. Quenda ta ebagniten dau Jaungoicoagana igaroteco dagoan zubia: ichiten dau beragana joateco dagoan bidea ta atea. Baña parcatuteac idigniten ditu ceruco ateac, ichi infernecoac, poztu Angueruac, irabaci pecatuen parcaciñoa. Parcatuten dabenac eracusten dau, Jesusen icaslea dala, Jaungoicoa maite dabela, caridadea daucala. Arerioac gaiti erregututen dabenac, beratzat ez ece, aentzat bere irabasten dau pecatuen parcaciñoa. Bada Jaungoicoac beste oraciñoac baño obeto entsuten ditu, perseguille, gaisquille ta arerioac gaiti eguiten direanac. Jesucristoc Curutsean josirie escatu ebanean bere arerioac gaiti, orduan bere Aitac onradu ta andizcatu eban gueiago. Biurtu cirean bera gana Dimas lapur santua, Centurion Soldaduen Capitaia ta beste pecatari asco, ta eracutsi eben sentimentua eguzquiac, illarguiac, ceruac, lurrac ta criatura guztiac. San Estebanec escatu ebanean bera arrica ilten ebanac gaiti, icusi cituan ceruac idiguiric, ta irabaci euscun San Paulo Apostolu andia, arricarien jaztecoac gordeten egoana. Santiago biga-

rren Apostoluac, ta beste martir santu ascoc escaturic parcaciñoa, euren bicitsea quentsen entsenentsat, irabaci cituezan ceruraco. Santa Isabel Ungriaco Erreguiñac Jaungoicoari escatu entsan, arren parcatu eioela bere perseguillai, ta mesedetu eguiezala, ta Jaunac erantsun entsan maitetasun andiaz: secula eguin eztozu neure gogocoago dan oraciño cberic, ta ezcatu dozulaco arerioac gaiti, ceure pecatu guztiac parcatuten dentsudaz. San Juan limosnaguille Obispoac escatu entsan parcaciñoa bere arerioa zan bati, ta au orduatariac asi zan santu bat izatera. San Juan Gualbertoc parcatu entsan bere anae il eban bati: au eguini sartu zan Elezan, ta Santo Cristo batec burua macurtu, beguinez beguiratu ta esquer onac emon entsazan bere amorioa gaiti, bere arerioari parcatu entsalaco.

Ain bearra da arerioari parcatutea eguin deusecuzan ofentsac, ece, ecin iñor bestela salban liteque Eztauco iño iguesbideric, achaquiariac, au ez eguiteco. Jesucristoren agüindua da to al daiguna. Jesusec agüinduco ez leusquigu, ecin baguendu, diño

San Agustiñec. Eta San Geronimoc diñoan leguez, ecin inoec eguiaz esan lei, ecin amau dabela bere lagun progimua. Esan lei batec, diño Santuac berac, ecin barauric, limosnariac, laztasunic eguin nei; ez dot astiric, lecuric, eperic, oraciñoraco, mesentsuteco, iracurteco, baña ecin esan lei, ecin amau dabela arerioa, ecin parcatu deutsalac. Guc gueure arerioaz eguin guñai, Jaungoicoac lagunduric, eguin ebeena Jose Egitoco Erregue ordecoac berac saldu eben anaecaz: David Erregueac Saul bere arerio gogorraz; San Estebanec, Apostoluac Martirac ta Santu ascoc euren perseguillacaz: ta gueiago dana, Jesucristoc bere arerio gaistoacaz, eracutsi eban amodio maitetasun ta on eguiteaz.


Zor deuntsuezan diru ta gauzac parcatu-tera bearturic ezpazagoz bere, baña bai injuriac ta ofentsa zuri eguina. San Pabloac diño, Jaungoicoac bere contra artuco dabela zure contra eguin dituezan ofentsac bengnetea. Zuc eztozu bengantsariac artu bear: ori liteque Jaungoicoari oficioa quentsea. Eztozu uste izan bear, injuriac parcatutea ta arerioac maitetutea

dala cumpiimentuzco ceremonia bat, azaleco cumplimentu bat, conseju ta adibide uts ariñen bat, munduco erregueren aguin-
du bat. Da bai, Jaungoicoac berac aguin-
duten deutsun mandamentu estu estu bat:
*nic ceuroen Jaungoicoac aguinduten deu-
tsuet*, ceuroen arerioac amau daizuezala,
on eguin daioznela gorroto zaituezanai.
Eta noc contraratu ta ezetz erantzungo
deutzo Jaungoico bati? Gu ezerberezetie
eguin, cristiñau errietan sortu, bere odolaz
irabaci gaituan Jaungoico bati? Aimbeste
urtean janaritu, jantsi, mesedetu gaituzan
Jaungoico bati? cernco guiltzac ta infer-
nucoac bere escuan daucazanari? Gorputz
ta arima infernura gu botateco escubidea
daucan bati? Noc Jaun bildugarri oni obe-
diuco ezteutso? Jaungoicoac aguindu ez-
quero arerioac maitatsea, injuriac parca-
tutea, noc aguindu au beteco eztau? noc
bengantza artuco dan? nor gorrotauric,
arerioturic, baquetu baga bere arerioaz
gueldituco da? Capitai batec bere solda-
duai aguindutea da asco, eriozsaco arris-
cuan ifinteco, ta barriz Jaungoicoac aguin-
tsea zuri arerioai parcatuteco ezta izango

asco, Jann andi oni obedietaco. Oh peccari areriotna, cer diñozu berba onetara? Diñozu injuria andiac eguin deutzuzala ceure arerioac: testimonio guzurrezcoac eregui deutzuzala: azpitic ta traiciñoz saldu zaituala: eztozula gura besteric, ezpada ondra ta fama galdu deutzuzana biurtu ta osotu daizula. Eta contu au beran Jaungoicoac zugaz artsen badau, ¿cer izango da zugaz? Ce erru eucan Jesusec, zu gaiti curutse baten lotsaturic ilteco? Ceimbat bider ceuc Jaungoicoa ofendidu dozu? Ceimbat desonesqueria, escandalo, lapurqueria ta birao eguin dozu? Ceimbat bider Jesucristori eguin deutzuzu traiciñoa peccatu mortalean comulguetan zareala? Ceimbat bider ceuc ceure lagun projimnac ofendidu dozuz?

Bada cer izango da zugaz Jaungoicoac eguiten badau, ceure arerioaz eguiten dozuna? *Juicio erruqui baguea*, diño Santia-goc, *eguingo dabela Jaungoicoac*, *erruquiric eztabenaz*. Ezteutsue ecer balio confesiñoac; eriozsaco ordnan bere ecin absolvidu ciñeiz munduan dan Sacerdoteric audienac, parcatu, berbatu, ta baquetu ar-

tean ceure arerioaz. Lotsa bazara au eguiten, biraldu eguizu ceure icenean beste bat parcaciñoa ezqueric. O ceimbat arima condenetan direan, arerioturic egotea gaiti, berba ez eguin gura izatia gaiti, bere tema, bere porfia, bere puntua aurrera eroatea gaiti. ¡Oh Jesus maitea! bigundu ta arguitu eguizuz arerioturic bici direan arima tristeac. Ezbeitez galdu zure odolaz erosi cirean arimac. Sortu bedi gure biotsean amodioa, buquea, maitetasuna; acaba bitez bengantsac, gorrotoac, erriertac. Amen.



SEIGARREN ESCABIDEA:

ICHI EZ EIGUZU TENTACIÑOAN JAUSTEN.

Aurrengo escabidean Jaungoicoari escatu ezquero lengo pecatuen parcaciñoa, orain seigarren escari onetan escatuten deitsagu, *ichi ez gaizala jausten* gneroco pecatuetan, tentaciñoetan, gachetan. Guichi balioco dau, orain arpeguia edo escuac garbitutea, andie laster eiquindu ta loituten badira; orain osatutea, barrero gaisso-
tuten bagara: orain Jaungoicoac gure pecatuac parcatutea, osterabere jausi ta biurtuten bagara pecatura. Onegaitie sarri, gogoz ta biotzez Jaunari escatu bear deitsagu, *ichi ez gaizala tentaciñoan jausten*. Esteutzagu escatuten, tentaciñoric emon eztaigula, ezpada *ichi ez gaizala tentaciñoan jausten*: emon deigula bere escua, jausi ezgaitzan, lagundu deigula bere graciaz, sendotu, indartu gaizala datorre-
nean; ezauguerazo, nos datorren tentaldia.

Escatuten dentsagu, ucatu ezteigula bere bitartetasuna. csetsi ta erasoten deuscu-
nean tentamentuac, peligruac, arriscuac,
grüña charrac ta arerio asmutsuac. Es-
catuten dentsagu Jaungoicoari, aguertu
deiguzala deabruaren asmu charrac, mun-
duaren laquiac, araguiaren grüña citelac.
Itsutu ez gaitzala munduco queaz, lagu-
nen odoi illunaz, lurreco gozotasuu, poz-
caria, atseguin ta ondasuu guzurrezcoa-
caz. Ichi ez gaizala gueure borondate ta
biotz oquerraren nai-gura deungai jarrai-
ten. Laquetu eztaiala, gueure indarrez ga-
nera tentauac izatea. Tentaciñoari boron-
datezco lecuia emon baño len biraldü dei-
guzala nequeric audienac, gachic latzenac
ta eriotsea bera bere. Gueure argaltasunez
tentaciñoan jausten bagara, begui erruqui-
tsuaz beguiratu deigula, ta digula gracia,
barriro jaguiteco. Ustecabez idoroten ga-
reanean pecatuzco ocasiño edo peligruan,
larga ez gaizala ta librau gaizala arriscu
ataric. Escatuten dentsagu San Paulogaz
deabru tentaguillea gure oñen azpian
humilduric ifioi daijala. Ez gaizala bere
amu-ta azmoacaz engañoau, goitu, bera-

gandu: urratu daizala bere sareac, indarba-
guetu bere arrotasun ta goitura aizartuac.

Escatuten deutzagu Jaungoicoari, zain-
du, jagon, gorde, librau ta atera gaizala
jazoera ta guertaera char guztietaric, ate-
ra eban leguez Jose Egitoarra bere eche-
coandre desonesteac beragaz pecatu egui-
tera, beartu gura izan ebanean; ta Susana
emacume Santa garbia leguez, aguratzar
ciquin gaisto bic galdu gura ebanean: eta
beste Santu Santa asco gorde dituzan le-
guez, pecaturaco bidean ifini dituezanean
lagun gaistoac. Oh ceimbat emacumec
ezainduco ez eben doncellatasuna, ta gor-
deco cirean garbiric, errezau balebe debo-
ciñoaz, *ichi ez gaizuz, Jauna, tentaciñoan
jausten!* escatu baleutse biotsetic Jaun-
goicoari bere laguntsa ta gracia. Oh ceim-
bat buraco min, lotsaria, auci, ta caltee-
taric librauco cirean, oitu, ta ecandutu
balira Aita gureco escabideac errecetan!
Tentaciñoac ez tira deseatu bear, baña ez
eta gorrotatu bere: ezpada larga Jaungoi-
coaren anqueran ta borondatera: bada on-
do bentzutaric, on asco dacarde. Ontsuac,
probechugarriac dira, berez tentamentuac:

daracuscue, guerra bici jarraituan gagozala beti lurrean: aguertuten deuscuez gueure arriscuac Janngoicua galtseco: adierazoten deuscue gueure argaltasuna, ecerbere eza, gaissotasuna, ta on bearra: umilduta beeratuten gaitue: atseratuten gaitue pecatura ta gachera ez elduteco: beartuten gaituez Jaungoicoari dedarrez escatutera Apostoluac leguez: *Jauna, gorde gaituz, jausi ez gaitazan*, ondatu, galdu, ito ta laprast eguin eztaigun tentaciño onetan: Alan dedar eguin daroio nme eniqui batec bere amari, iñoc bildurtu, edo gach eguin gura deutsanean. San Pauloc iru bider Jaungoicoari escatu eutsan, quendu eguiola bere araguiaren tentaciño gogaitubat, baña Jannac erantsun eutsan, etsaite orregaitic arduratu, conbeni jatsn arrotu etzaitezan: on eguingo deutsu: neuc la-gunduco deutsut.

Tentaciñoac irazarri, oartu, ta contuan ifinteu gaitue, pecatuan jausi ez gaitazan. San Lorenzo Justinianoc diño: aragua gatsituten eztanean, ustelduten dan leguez, alan arimea otzitu, epeldu, naguitu, nazaitu ta mascartuten dala, tentaciñoco

gatzaz igortzen ezpada. Ura gueldi bada-
go, atsituten da, ta badabil, beti dirau sa-
soian. Achur ta laiac gueldi dagozanean
nguerrez beteric ta echura bagueac dagoz,
baña badabilz lurreco lan bearretan, urre
zuria dirudie: ta an berau jasoten da bur-
diña latz, motz bat limeaz politu, garbitu
ta leunduten danean. Auxe berberau ten-
taciñoac gugan eguiten dau; leundu, ga-
lantu ta edertuten gaitu. Jaquitunac diño,
ecer eztaquiála, tentamenturic igaroten
eztabenac. San Pauloc diño, birtutea
apaindu ta obetuten dala gaixotasunaz:
gaixotasunac ta tentaciñoac sendotu, biz-
cortu, conortetu, indartuten dan arimea:
bada gaisoric dagoan bat ardura ta contu
andiaz gordeten da, gach eta calte eguin
leion gauceetaric. Tentaciñoaren peligrac
eguiten gaituz beguiratuac, contuzcoac,
ardurazcoac, pecatuan jausi ez gaitezan.
Tentaciñoac irabaci eraguiten deuscuez
gloriazco coroi eder baliotsuac. Agaitie
dirauscu Jaungoicoac Apocalipsis derichon
libruan: bentsutu ta goituten dabena ten-
taciño char bat, eguingo dot neure Elexa-
co metaori edo coluna eder bat. Santiago

Apostoluac diño, zorionecua da tentaciñoan jausten eztana, bada ceruan emongo jaco betico coroa ta gloria. Davidec diño; Santuac ceruan gozotazun andiaz cantetan dabela: oh Jauna! zue lagunduric igá-ro guenduzan munduan sua, ura, nequea ta tentaciñoa: orain barriz aen sarian emoten deuscuzu gloria, baquea, atseguiña, gozotazuna ta poza. Oh ceimbat zorion ta arimaco ondasun dacarzan tentaciñoac, baldin bencietan badoguz Jaungoicoaren graziaz! Orain gogaicarriac dira, baña egunen baten pozez ta gozoz beteco gaituez. Espiritu Santuac diño: labaco suac daracuz ona dan edo ez lurrezco ontsi bat: eta tentaciñoac nor nor dan, guizon ona dan ala ez. San Rafael Angueruac Tobias santuari esan eutsan, Jaungoicoaren adisquide maitea izan zarealaco, combeni izan da, tentaciñoaz ta nequeacaz zure pruebac eguitea: ta San Pauloc diño, Jaungoicoac maite daben semea lazquiroago castiguetan dabela, obetu dedin. Onela Jaungoicoac tentau ta probau eban Abraham santua, aguindu eutsanean, Isaac bere seme bacar maiteari bicitsea

quentseco. Icusi gura eban, ea eguiazcoa bazan bere fedea, sinistea, amodioa ta obediencia. Esaten danean, Jaungoicua tentetan gaituala, da esatea, probetan gaituala maite badogu edo ez: alan diño Escritura Santeac Denteronomio derichon libruan. Guc bere tella bat, basu edo ontsi bat tentauta joten dogu, icusteco osorie dagoanez. Santiagoc diño, Jaungoicoac secula tentauten ez gaituala ganza charre-raco: bada berac diño Daviden aotic, gorroto dituala gaistaquerien eguilleac. Eta alan: iracurten dogunean Escrituran, Jaungoicoac, gogortu ebala Faraonen biot-sa; edo Isaiasen aotic diñoanean, erri ta gente gaistoen adimentua itsutueo dubela; edo San Pauloc diñoanean, Jaungoicoac emoten dituala peccataria euren guraria, griña ta nai lotsagarrietara, larguetan dituzala, itsutu, gogortu, ta usteltsen euren gaistaquerietan, ta beraganic alde eguiten dituala: onetarico gauzac dautsuguzanean, ezto gu nste izan bear, diño Erromaco Catecismuac, Jaungoicoac gauzoc eguiten dituala, ezpada laquetu edo permitietan dituala. Tentaldi batsuc Jaungoicoac bi-

raltsen deuscuz guentre oleraco, ta dea-
bruac beste batsuc gure calteraco. Zu on-
do bici bazara: contuz bazabilz; gorroto
badozu pecatua; maite badozu Jaungoi-
coa: gordeten badozu bere legnea: emoten
bazara gogozco edo adimentuzco oraciño-
ra, libru santuac iracurtera, sarri ta ondo
confesetara: orduan esan lei, Jaungoicoac
biralduten deutzuzala tentaciñoac, perse-
cuciñoac, gaissotasunac zure oneraco, zu
beragarduteco. Baña badarioizu bicitza
gaisto bati: ardura baga austen badozuz
mandamentu santuac: batuten bazara la-
gun gaistoacaz, meatz confesetan bazara,
sartsen bazara pecatuzco ocasiño, galbide
ta arriscuetan, señale ezagutu adigarria
da, deabruac biraltsen deutzuzala tenta-
ciñoac zu galtseco. Gu tentatsean eguiten
dan Jaungoicoac ama batec bere une chi-
quiaz eguin darcana: icaratu, cemaitu,
bildurtsen dan, ignes eguin gura dabenean;
ta onembestegaz bere besarte ta altzora
biurerazoten dan. Eguiten dan oi dabena
aita batec bere semeaz: armac maneatu-
ten iracasten deutso, ondo peleatu, escu-
datu defendidu dedin. Onelan Jaungoi-

coac, Jaquintsuac diñon leguez, guerra gogorrean bere adisquideac ifinten ditu, bere gracia laguntariaz bentzuturic tentaciñoac ta tentatsalleac, guero ceruan sarituteco Eta San Juan Crisostomoc diño-
lez, emen lurrean bitoria irabacirie guero cerutar santuen laguntsan zoriondu, co-
roitu, saritu ta gloriaz betetaco. Aita San Franciscoc ciñoan: eztala Jaungoicoaren serbitsaria, tentaciñoric igaro eztabena. Salomonec diño, Jaungoicoac bere adisquideac tentan cituan, ta ezagutu eban maite ebeela. Guerra utsa, guda luce jarraitu bat da guizonaren bicitsea, diño Job santuac. Ez da lurrean guizonic, tentacinoric ez dabenic. Lur pecatuaz mada-ricatu baten aci gara. Batzuc dira tentauac bicio baten, ta bestebatzuc bestean: batzuc birtute baten ta besteac bestean. Batetic tentetan gaituz deabruac, bestetic araguiac, bestetic munduac, guizonac, duscunac, dautzugunac eta griña charrac. San Pauloc diño, pecaturaco peligruac idoroten direala lecu bacarrean ta lecu aguirian: arriscuac ta peligruac pobrezan ta aberastasuncan: osasuncan ta gaixota-

sunean: alperquerian ta bearrean. Oh ce bicitsa nequezcoa, aricatua, gogaicarria dan gurea! Oh mundua ce beterie zagozan lazuz, sarez, laquioz, amuz, laprasturaz, estropezuz, jausigarriz, ondaquizunez, zorigachez! Alan bein eracutsi eutsan Jaungoicoac San Antonio Abatari: ta Santuac esan eutsan: Janna celan igues eguin guñei jausi baga, deabruac bide guztietan ifini dituan sareetarie? Jannac erautsun eutsan, direanac bentzutu ta urratuco dozuz umiltasunaz, oraciñonaz, neure laguntsez. Santuac bildur circan, gu barriz ardua baga bici gara. Santo Tomus Villanovacoc diño, Jesucristoren cristiñan soldadu bati, lurrean bici dan artean, ecin faltau lequiquiola guerra, tentaciñon: non nai; nos nai ta edocciu lecu ta estadutan izango dituala tentamendusc. Bat bentsietan bada, beste indartsuago bat erneco jacala, ta au goituric beste andiagoc jaioco dala. Onegaitic mundu onetan dagoan Elexeari dericho, *guerralaria*, *guerran dagoana*. Au gogoraturic, cirantsan San Agustinec Jaungoicoari: Janna, librau gaizuz deabruaren sareetarie, bada beti

dabil gu galdu ecinic ta gu tentetan: ezta iñoz azperten: ezta iñoz loric eguiten: beti daragoiyo bere asmu gaistoari gu galtseco: gure bide guztiac betetan dituz sarez, saietaz, amuz, dala egunez, dala ganbez, dala maian, nai oraciñoan, lan bearean, campoan, elexan ta lecu guztietan. Au ondo equianac leguez dirauscu San Pedro: unac maiteac, beti egon zaitece irazarric, zur, zeli, ta contuan: bada deabru gaisto asmutsua beti dabil zuen inguruan, zuec iruntsi ta ondatuteco leoi amurratu goseac il bat leguez

Tentaciñoac izan arren luceac ta dempora andian diranenac, eztira izango pecatu, baldin borondatezeoac ezpadira, oartuten ezpadira. San Pauloc, San Benitec, San Franciscoc, ta beste santu asecc igarro cituezau aragnizeco tentaciñoac dempora luceetan; eta ez bacarric peccaturic eguin ez eben, ezpada bai asecc mercci Jaungoicoaren beguetan. Eta alan, bajatortzu pentsamentu char bat, aragniareu muguida gaistoen bat, baldin ceure borondatean lecuric emoten ezpadeutsasu; baldin cartu edo esagutu ezquero, quentsera

eguiten badozu, emen eztago pecaturic, meritu andia bai, diño San Bernardoc. Zuc eztaquizula chingar batec zure soñe-coa erretan badau, zuc onetan erruric ez dozu: baña oartu ezquero, bota ta quenduteu ezpadozu, edo aleguiña eguiten ezpadozu botetaco, guero erretan dana, zure erruz erretan da. Baña orrez guztiaz, on da confesoriari contu emotea tentaciño guztiena, borondatezcoac ez izana gaiti; bada ceure buruaz engañau cintequez uste utzaz: berac erremedioac emongo deutsuz: berac bere óraciñoacaz laguuduco deutsu: berac jaquin bear dau, celan dabiltzan zure concientsia ta arimaco gora berac. Au ez eguitea gaiti, arima ascoc dempora lucean irann dabe quendu ecinic euren tentaciñoac. Sospecha andia emoten dentso confesoriari, dacusanean arima bat tentaciño ta prueba bague: bada onenac igaroten dituez andienac. Deabruac tentetan ezpazaitu, señaie da, berea zareala: chacur batec ausica, aguitca eguiten eztentso bere echeoari, ezpada campocoari. Tentaciñoac ez bacarric dira pruebas; baita irazarle, acullu ta cia batsuc gu biztuteco.

Santu asco ameneco eldueo etzirian bir-
tute ain miragarrira, izan ezpalituez eu-
ren tentaldia ta tentagarriac. Bear bada
igues eguingo ez eben cremu bacurretara,
eguingo etsituezan ain penitentsia arriga-
rriac, baranac, laztasunac, odolezco azo-
teac, ceiteco euren gorputzac, bencietaco
tentaciñone. Tentaciño baga ezantueo ez
eben euren araguiaren usteltasuna, grina
gaistoan bicitasuna, naturalezaren argal-
tasuna, oneraco atserapena, gacheraco
errastasuna, debociñoraco otztazuna. Ez
eben ezagutueo adimentuaren iluntasuna,
borondatearen macurtasuna deungueraco,
munduco peligruac, ondatuteo galdabi-
deac, peccatun jausteco arriscuac. Tenta-
ciñone aguersten ditu gure biotzean escu-
tauric dagozan lapurrac, gure inguruan
dabiltzan arerionac, guri gachi eguin lei-
güen gauza edenduac.

Tentaciño bati lecu emotean, edo ez
emotean, dago gure zorion edo adugach
guztia. Tentaldi bat jatorcunean dagoz
beguira, alde bateric Jaungoicoa Angueru
santuacaz, besteric deabrua, ea cer egui-
ten dogun: ea noren aldera goazan, ea

cein maiteago dogun. Pentsamentu char bati lecu emotea: begniac bear eztanaren arpegui edo gorputzean jositea: berba desonestu, ciquin, loi bat entsutea edo esate, ganza char bati biotzean ostatua borondatez emotea da peligruric asco, gu betico condenetaco: Jaungoico maitea secula guztietan galtzeco; oguei edo berroguiei urtean eguin doguzan gauza on guztia galdueraguiteco. Peligruan esagaturic San Paulo dedar eguiten eban: noc ateraco nau, nos urtengo dot gorputz eta mundu galdu onetarie? Ay, cinoan Apostolu andi onec, ay ene, borondate bat dot, eta ez nas bere jabe: neugan asmetan dot griña char bat, ta nire adimentuaren contra dagoan legue bat; beti dacurt neure burua ondaquizuu galdugarriaren ondoan. Au cinoan San Paulo batec: Jesucristogaz crucificaturic beti bici zan batec: beretsat ta munduarentsat illic egoan batec: munduco ondasunac satsa baño guichiagotzat eucazan batec: bere griña, pasiño ta nairac ecirie eucazan batec: eta gu bildur ezgara? eta gu ifriten gara ardura baga arriscuric bildurgarrienetan? eta gue segu-


rutsat ditaguz gueure buruac? Oh ce itsuric gagozan! Oh guichi dazaagun gueure argaltasuna! gueure ecereza! Eta eguiaz, cer eguiten dogu, tentaciñoan ez jausteco: tentaciñoac bentzututeco: tentaciñoric igues eguiteco? Tentaciñoa bentsietaco erremedio da *Aita gureco* oraciño au ondo errecetea: baña ceimbat bider errecetan eztoqu arinca, presaca, aguin artean, debo-ciño apur baga? Erremedio da, curutze santeaz astiro ta ondo ciñatutea: baña gue eguiten doguzan caico curutse, siñu ta lapur curutzeacaz ce tentaciño ta ce tentatsalle goiartuco doguz? Erremedio da, Jesusen llaga santuetara igues eguitea: Jesusen neque penac, Pasiño ta eriotsea gogoratutea: baña ceimbati igaroteu ez jaque egun guztia, ta bear bada aste guztia aren gomuteric ez acorduric equi baga? Erremedio da, Ama Virginiaren debotoac izatea: baña ceimbat dagoz, errosario santubat errecetan eztabenac eta ez daquienac: Ave Maria bacar bat ondo esaten eztabenac, eta bere jaietan gaistaqueriaric lotzagarrienac eguiten ditnenac? Quei celan lagunduco deutsee Maria Santisimac, ta bere seme Jesucristoc?

Tentaciñoac bencietaco erremedioa, osagarria ta bitartecoa da, oraciñoa: *oraciño equizue*, ciñoan Jesusec, *sartu etzaitzezan* tentaciñoan: da beguiacaz contu eugitea; da, jan edanean beguiratua izatea: da lagun gaistoacaz ez batutea: len pecatu eguindozen echera ez eldutea; len galdu zaituan personea ganic ignes eguitea: gorputz eta arimaco sentsuac ta almenac eci ta nequetutea. Bada orain, celan jausico etsara tentaciñoan, ceu bazabilz ocasiñoaren billa: ceue gueitu ta aciten badozu tentaciñoa: ceure echean badozu pecatuco laguna, ichigura ezpadozu araco ceue daquizen echera jostea: ta lengo oñean ta adisquidetasunean badozu ceue galaia, ceu maite zaituan guizon edo emacumea? Celan ignes èguingo dozu tentaciño ta pecatuic, beti beguira, ta beti berbaz bazagoz araco tentaguilleaz: celan bestea icusi, ta celan ceure burua eracutsico dozun bazabilz ero zoro bat eguinic? Estago fiestario, dantsario, erromeriaric zu jouten etzareanic. Santa Teresa ta Santa Clara bat orrela ibilli ta bici izan balira, etzirian Santac izango, ezpada ema-

cume galdu batzue. Batuten zara gazte zoroacaz: gogo onaz artzen dozuz aec eguiten deutzuezan llanezac, besarac, oracdad, erabilte zantarrac: ta orrez guztiaz uste dozu, peccatric areambere ez dala orretan. Barreca ta aca zabalic entzuten dozuz berba loi ta ciquinac: zarabilde dantsa nastuan: ta orrez guztiaz eztozu idoroten confesaquizunic, confesiñoan esan bearric: uste dozu ondo confesetan zarea-la, tentaciñoari lecuric emoten ezteztazula. Ori da esatea, su ta garretan sarturic, erreten etzareala: uretan ondaturic, itoten etzareala: chingar gorien ganean oñ utsean ibilliric, oñ azpia berotu eztala. Eztozu entsun David guizon andia jausi zala andra bati beguiratutea gaiti? Salomon bere seme jaquintsua galdu zala andra gaistoacaz batutea gaiti? Eremu baccarrean penitentsia luceac ta mirari andiac eguin ezquero, Santu asco jausi dira peccatuan: ta zue dozu ceure burna segurratsat beti zabiltzala sarturic ocasiño, laguntsa ta jolaz gaistoetan? Eta diñozu, eztozula orregaitic tentaciño charric asmetan, eztozula gauza deungneric egui-

ten? Baña eztozu entzuan, Espiritu Santuac dirautsula: pecatnaren peligruan ifin-
tea bera dala pecatu? Igues eguin bear
dala pecatuzco bide ta ocasiñoric. Urratu
bear dala adisquidetasuna, baldin pecatu-
raco bidea emoten badentzu? Au ez ece,
beguia atera, escua ta oña ebagui bear
direala, pecaturaco bidea emoten badeu-
tsue? Zu zabiltzan leguez ibilliric, celan
esetsico esteutzue tentaciñoac, ta celan
gorde ciñei arimea garbiric?

Oh Jesus maitea! eremuan ceue igaro
eenduzan tentaciñoec gaiti, librau gaizuz
tentamentu ta tentagnille gaistuctaric.
Larga ez gaizuz tentaciñoan jausten: igu-
zu ceure escua ta ceure gracia. Dainu do-
gu orainguño eguin doguzan pecatuaz:
Jauna, erruquia gogaz. Amen.



ZAZPIGARREN ESCABIDEA:

LIBRADU GAIZUZ GACHERIC. AMEN,

Aita gureco zazpigarren ta azquenengo escabidea da, *libradu gaizuz gacheric*. Ezcaera once barruratuten ditu lengo escabide guztia: desondrau ezteigula Jaungoicoaren icen Santua: gneure pecatuaz eztaiogula Jaungoicoari eragotsi gugan erreinatutea: bere borondate santuari contraratu eztaiogula: egunecango janaria ucatu eztaigula: parcatu daiguzala gueure pecatuac, bada euraq dira gachic andienac: ichi ezteigula tentaciñoan ta pecatuan jausten, betico galdu ezgaitezan, seculaco infernura hota ezgaizan, bada onec dira gachic negargarrienac. Escabide oneguz azquendu eban Jesucristoc ceruzco oraciño miragarri au: ta escabide onetaco herbac esan cituan Jesus maiteac bere azquenengo gaubean, bere Aita Eternoari ci-rautzala gogoz ta biotzez: nenre Aita ona, eldu da ni munda onetarie zugana biur-

tzeco demporea: alan bada erregutu ta escatuten deuntsut, *gorde daizuzala gacheric* nire discipulu ta adisquide maiteoc, baita munduan izango direan guizon guztia: bada guztia gaiti noa neure odol'ballotsua ta neure bicitsea emotera.

San Cipriano Obispo ta martir santuac diño: escatu ta descau al guñaien guztia dagoala sarturic, barraturic ta adierazoric escabide santu onetan. Bada esateaz: *librau guizuz gacheric*, escatu ta erregututen deuntsagu Jaungoicoari, librau gaizala deabruaganic, bere aguintaritzaric, bere mendearen beetic: bere escubide gogorarren azpitic: bere zare ta usmu gaistoetaric: bere tentaciñoetaric, berac egin al leiguu gacheric ta calte guztietaric. Escatuten deuntsagu Jaungoicoari librau gaizala, deabruac, munduac, araguiac eguiten deuscuezan guerraric: onelan Zacarias santuac ciñoan leguez, *gueure arerioen bildur baga Jauna serbidu daigun*: ta mundu atsecabez bete onetan, seguru ta baquean bici gaitazan. Librau gaizala argal ta jau-sicorrac leguez egin al guñeiquezan gacheric: gueure grina ta bicio gaistoetaric:

laquetso eztaizala, pecatuac gugau agnitaritutea: ucatu ezteigula bere gracia, bere escua, bere laguntasuna, gachen batec esetsi gura deuscnean. Librau gaizala pecatuzco ocasiño, peligru, arriscu ta galbideetarie: bere ontasunaren contra eguin guñaiquezan injuria, irain ta ofentsarie. Librau gaizala, ez bacarric peccaturic, baita onec arimeari dacarcozan calte ta gacheetarie, peccatuari zor jacozan castiguetarie, alan mundu onetan, cein bestean infernuan ta purgatorioan. Librau gaizala peccatu guztien sustrai, erro ta buruetarie, celan direan audiustea, arrotasuna, alperqueria, cequentasuna, desonesqueria, aserrea, gulleria, icensiecina, gorrotoa, naguitasuna, ta euroetarie jaio ta eruetan direan gaistaqueria guztietarie. Librau, gorde ta atera gaizala, guizonac eguin al leigüezan calte guztietarie, lapurreta, injusticia, eriotza, auci bidebague, bengantsa, cartsela, desterru, errierta, traicicño ta asmaquizun dongue guztietarie.

Escatuten dentsagu Jaungoicoari, gachac artu ez gaizala: ez gaitezala erre, ez ito, ez jausi, ez gorputz calteric artu. Arri

chingorrac, abazuzac, arrizeo ecachac galdu eztaizala ereintzac, soloac, arbolac, frutuac. Peste izurriac, garestiac, urritasunac, gose gueieguiac ez gaizala lar estatu, larritu. Galdu ez titecela gure irabaste onac: ez erre gure echeac, ez caltetu gure gauzac. Eta Jaungoico maiteac baldin gara badau, gachoc, calteoc, eguraldi charrac, gaissotasuna, beartasuna, premiña, gosea, persecuciñoa ta beste onetaricoac, gure ganera etortea, edo gueure pecatuen castiguraco, edo gueure arimaren oneraco: ordnan emon deigula paciencia ta eroapena, gustia eroateco bere gloriarie andienerraco, ta gueure pecatuen quitusari orderaco. Bada ascotan on eguiten deuscuez onetarico nequeac, irardaurteac, edari min garratsac, purgac, astinduerac, naibagueac ta curutzeac. Ecin daitequen gauza da, mundu onetan gachi bage, curutze ta neque sentigarriren bat edo bestea bage egoitea. Santurio andienac, ez Jesucristo santu guztien buru, capilai ta bide-iracasleac, ez bere Ama maiteac ez eben igaro gura izan, neque, garratzmin ta curutze bage bicitza au. Jesusec berac diño Evangelio

Santuan, ezagutuco ezabela bere adisquidetzat, egunero curutzea ezaroana; berac bere eroan ebala, ta discipulua ezala maisua baño zori obeagocoa izango: munduac bera perseguitu ebala, ta guri bere esetsico deuscula, persecusiñoac ta curutzeac jarraituco deuscula dempora guztietan: mundua ta mundutarrac atseguñez ase beteric, gu barriz tristuraz ta naigabez beteric ibillico gareala: estua ta bedarra dala ceruco bidea: eta bide au arantzaz elorritz beteric dagoala: baña guero suerteac aldatuco direala: bada curutze ta nequez orain astunduric dabiltzanac Jaungoicoa gaiti, guero bere glorian betico bicico dira, ta orain munduco atseguin pecatuzcoetan dabiltzanac, guero infernuan seculaco egon bearco dabe. Job santuac diño, guizonaren bicitzea laburra dala, gachez beteric dagoala: eztagoala beimbere izate irauncor batean: dala lora mee argal bat leguez, jaio ta laster zapaldu, macaldu, igartuten dala. Oh ce gauza erbal argala dan gure bicitzea! ceimbat gach igaroteco jaioten dan guizona! eta ce bearturic gagozan Jaurgoicoari escatutera *librau gaizuz gacheric.*

Elexa Ama santeac oraciño ascotan escatuten deutso Jaungoicoari, librau gaizala gach guztietarie. Letañia nagusia ezcatu ezquero Santu Santa guztien bitartesuna, diño⁽¹⁾ Oh gueure Jaungoico maitea, librau gaizuz gacheric eta pecatutic..... librau gaizuz ceure aserre, justicia ta arbin-tasuneric, uste bagneco ta prestaera bagneco eriotzaric. Librau gaizuz deabruaren sare ta asmu gaistoetarie: aserretasan, errierta, gorroto ta borondate charretic, desonesqueria, lujuria, aragnisco pecatuetarie trumoi, ecach ta erraioetarie, lur icaratic, infernucio eriotzaric: eta guero diño. Jauna, mesede au escatuteu deutsugu, Jesucristo ceure Seme maitearen bicitza, eriotza, dolore ta merecimentu ugaria gaiti. Au berau Elexa Ama Santeac escatuten dau ilteco dagoan arimaren gomendaciñoan, diñoala: Oh Jauna, librau eguizu ceure serbitsari au bere arima ta gorputzeco gach guztietarie, librau cenduzan leguez Enoc ta Elias eriotzaric: Noe, mundu guztico urjolatie, Job, bere griña

(1) Ab omni malo, ab omni peccato..... Libera nos Domine.

charretaric, Lot, Sodomaco su ta garretaric, Moises, Faraon Egitoco erreguearen escu gogorretaric, librau cenduan leguez David Saul eta Goliat perseguilletaric, Daniel, leoi amurratuaren atsamarretaric: Babiloniaco iru mutil santu suzco laba goritic, Susana, emacume garbia, eregui eutsen guzur lotsagarritic, San Pedro ta San Paulo Apostoluac Sarturic egozan presondegui, carcela ta cateetaric. Au beran Elexa Santeac Mezan escatuten dau Jaungoicoari erreguturic, libra gaizala lengo gacheetaric, orain goetaric ta guerocoetaric. Onela iracasten deuscula bere semeoi, ce sarri, ce gogoz, ce biotzez, ce uste bete andiaz escatu bear deutsagun Jaunari, *libra gaizala gacheric.*

Erromaco Catecismuac diño, escabide onetan escatu bear doguna, dala, ez gach guzti guztietaric libretea, edo gachie areambere бага egotea; ezpada librau gaizala Jaungoicoac, gueure arimari onic ecarrico eztentsaneetaric. Baita escatu bear deutsagu, bere ontasun ta escu zabal prestuac emoten deuscusan ondasunac, aberastasuna, osasuna, indarra, jaquituria,

ondra, andiqueria ta bicitzea, izan ezte-
zala gñeure gacheraco, gñeure arimaren
calteraco, ezpada oneraco, ondo emoteco,
besteai on egñiteco. Ceimbat baliatu ezti-
ra, Jaungoicoa ofendietaco, berac emoni-
co ondasunez? berac egñinico esquer me-
sedez? Jaunac bere escuan eucan, zubes-
teco leguez pobre egñitea: emon deutuz
ondasunac ugaritasunaz, euracaz limosna
egñiteco: beartuai beguiratuteco: lagun
proximna bere estura ta premiñetarie ate-
rateco: baña ceimbat bider baliatu etzara
eurecaz, peccatua erraztuteco: araco emacu-
me tristea galduteco, besteai gach egñite-
co, aueitan, jocoan, ordiquerian, desonez-
querian ibilteco? Jaungoico maitea ofen-
dietaco? bere contra jagñiteco, bere icen
santua desondretaco? Jaungoicoac emon
deutsu osasuna, edertasuna, indarra bes-
teai baño gñeiago: baña ceimbat bider
emon ta urtu eztozuz mesedeoc, besteac
peccaturaco bidean ta ocasiñoan ifinteco?
besteen arimac ta ceurea gultseco? Ceim-
bat aberats, ceimbat andiqui ta aidenagu-
si eztagoz orain infernuan, ara joango
etsirecanac pobre, umil batzue izan balira?

osasun ta oodasun guichiago euqui balebe? Jaungoicoac jaquituria emon ezpaleutsu, ibillico etziriau erri guztia nastaten, besteac azpiratuten, guztiai aguintsen. Echn-rabacoa eguin bacindu, etzinian ibillico, zabiltzan leguez, ero bat, eguinic, fiestarie, fiesta, pluzan ta aguirian ceure buru arroa eracusten ta besteac galduten. Jaungoicoac ondasun urri escaza emon baleutsu, etzinian ibillico orren ederric, apainduric, baneriz beteric, burua goituric. Orra non, berez gauza onac direanac, biurtu litequezan zure gacheraco, zure condenaciñoraco. Eta gauza onetatic gachac badatoz, ondo baliatuten ezipagara, ceimbat gach, ceimbat calte etorrico eztira gauza charretatic? Jaungoicoac libran gairala guztietatic.

Alde guztiric gagoz gachez inguraturic ta beteric. Gach batzuc bacuzguz, bazauguz, baña guztiae ez. Guo eztazaugula bere, Jaungoicoac gach ascotatic libretan gaituz, gorde ta ateraten gaituz; bada besteetan dacuzguzan gach guztiae, guban egon litequez, ta Ontasun maiteac libran gaituz. Guizon batec dituan gachac, beste

guizon baten idoro litequez. Ceimbat gach negargarri eztacuzguz mundu zabalean? Bada gagan ezpadagoz, Jaungoicoari milla esquer: berari zor deutzagu mesede andi an. Batec dauco buruco mina: besteac min dauco beguietan, besteac belarrietan, besteac aguietan: besteac bularrean; besteac sabelean. Bat dago itsuturic, bestea gorturic, bestea mututuric, bestea zoraturic, bestea baldauric, bestea beso edo besua бага. Bateri erreco jaco echea: besteari galdu jaco ondasuna, besteari ostu deutse eucana. Bat anrquituten da entero pobre ta bearturic: bestea gaissoric; bestea presondeguian edo erbesteturic, bestea perseguituric. Gueengan gachoc ezpadagoz, Jaungoicoari an zor deutzagu, berac euretatic librau gaituz. Continan beran atera guinei gach arimacoetan. San Agustineo diño: guizon batec eguin dituzan pecatu ta gaistaqueriac, beste batec eguin leicela, guizonaren Egnille cerucoac, escua emon, gorde ta lagunduten ezpadeutso. Ceimbat gaistaqueria entsun, icusi ta iracurri eztoguz munduan jazo direala? Bada aec, ta andiangoac guec eguin guinaiquezan, Jaun-

goicoac librau ezpaguinduz. Ascotan entsun dogu emen eriotza bat eguin dabeela: an, Elex-ganzac, lampadac, calizac, ta copoi santuac forma ta guzti ostu dituezala: bestean ume chiqui bat ito edo il dabela, aguertu eztedin bere ama zorigaistocoaren pecatua: bestean pecatu arrigarri ezain bat guerta dala Au ta gueiago guo eguin guñeiquian Jaungoicoac laquetu baleu. Ce gach andia, ce desgracia izango etzan gurea, jaio baguiña gentil fedebague, Judegu ta Herege itsuen errietan? izan baguiña guraso gentilen semeac? Jaunac librau gaitu gach onetarie, emonic guraso Cristiñan fededunac, sorturic cristiñan errietan: eguinic Elexa-Ama Santearen semeac: eta ori, guc gueure aldetic mercedu baga: bada sortu baño leu ezguednan mercoimenturic, ez birtuteric, ez eguite onic: ez eta derechoric bere gentilen suertea baño, guc ohea enquiteco. Au dala bai mesedea! celan ezgara obeac? celan orren esquerbagueac? celan maite eztoqu Jaungoicoa? baña; ay! celan ofendietan dogu aimbeste gacheric librau gaituzan libratsalle santua?

Ceibat eta ceibat Jaunac bota ezti-
tu infernura pecatu mortal eriozco bate
gaiti? Guri bat ez ece, eueca ta millaca
sufridu denzeuz. Gure contsientsijac sala-
tuten gaituz, ceibat gaistaquerietan ga-
rean errudnac. Chiquitaric ona pecatua-
ri jarraitu dentsagu; pecatua baño beste-
ric eguin eztogu: eztago mandamenturic
ausi eztogunic: eztago aguinduric obeditu
dogunic: eztago Sacramenturic dennguero
artu eztogunic: Jaungoico maitea baño
gauza aztuagoric equi eztogu: ecertan
obeditu ezteutsagu: mundnac ta gorputsac
eroan ditu gure gogo guztia: gentil ascoc
guc adiña pecatu eguin eztabe. Baña, ¡ay!
gueuc ez ece, beste ascori bere peccatura-
co bidea emon deutsegu: asco galdu do-
guz: asco datzaz gu gaiti infernuco onda-
rretan. Eta orrez guztiaz Aita cerncoac
begui onez beguiratu densecu: ontasan an-
diaz ichadon densecu; gure erruquia equi
dau: eztan gugaz eguin, gure gaistaque-
riac escatuten eben castigua. Orrez guz-
tiaz bicitsea luzatu densecu: penitentsia-
raco lecu emon densecu: munduan gauez
infernura bota бага. Deabruac pecatu

eguin ebenean, euren gachean ichi cituan: sacramenturie ta erremedioric emon baga: guri barriz, pecatu asco eguin ta bere, ichi deuseu Confesiñoco Sacramentuco garbitegui ta osagarri santua; bere gracia-ra ta adisquidetasnara biurtzeco, inferneco gach eta calte gogorretarie libretaco. Ez bacarric librau gaituz gach ascotarie, baita biraldu ezteuzenz, guc baño pecatu guichiago eguin daben ascori, biraldu deutzazan gachac, calteac ta castiguac. Ceimbat ito eztira? ceimbat erre? erraio zorrotzac ceimbat zatitu, apurta, auts biurta eztitu? ceimbatec goitic bera jausiric istanda eguin eztabe? ceimbat zoratu, centsun baguetu eztira? ceimbat artu eztitu eriotzeac beingoan, bat batean, ustecabean, confesetaco, damututeco astiric enqui baga? ceimbat guizon ta erri oso luricarac ondatu eztitu? ceimbat iruntsi eztitue abereac? ceimbat eche ta guzti erre eztira? Eta noc ezpada Jaungoicoac atera ta librau gaituz gach onectaric?

Onetarico castiguac ascotan eguin ditu bere serbitsari ta adisquide maiteacaz bere, baña gugaz ez, gu bere arerioac izan


gareanean. Baña Jauna maitagarri oni, noc esqner onac emoten deutzaz onembeste mesede gaiti? Nor orregaiti asi da bicitza on bat eguiten? Sacramentuac sarrituten? arerio pertseguillai parcatuten? gauza ostua bere jabeari biurtuten? pecatuzco lagun, eche, ta ocasiñoric alde eguiten? bere joco luceac, edate gueieguiac, apaindura costotsuac laburtuten? bere arimaren contu ardurazco bat euquiten? ¡Oh ee sorgor, itsuturic gaucazan mundu gaisto zoro oneo! ceimbat gach ez jatorenz gueure bicitza, edo izate guisagaixo, argal, erbal onetari? Dana dago gachez, doacabez beterie ta ereinic. Eztago guizonagan zatiric, ez centsunic, ez almenic, gacharen bat igaro bear eztabenic. Gueu gneuretzat eguiten gara astunac ta gogaicarrien, diño Job santuac. Hugo jaquituu andiac diño, gure bicitza an dala sosegu baguea, itsua, ta atsecabez betea: nmorea, audituten dabe, doloreac ta miñac, argalduten dabe: beroac igartuten dau: otsac, dar dar darabil: axeac gaissotuten dau: jateco andiac, aspertuten dau: barauac, mascartu: erregaloac, misquetu ta gastatu: tristureac,

urtu: poz gueieguiac, ganeztu: ardureac,
estutu; bildurrac, ansiatu: icareac larritu:
alperqueriac, gogaierazo; atseguñac, as-
peltu; aberastasunac, arduratu: pobreceac,
azpitu: lan bearrac, nequetu: gaztetasu-
nac, goratu; zaartasunac, beeratu: gaisso-
tasunac, mindu; gachac, adorabaguetu: ta
zorigach guzti oncen ondoan ta ostean da-
tor eriotzaco gacha, quenduco deuscuza-
na munduco ondasunac, atseguñac, olgu-
rac, pozcariac, osasuna, edertasuna, andi-
naia ta bicitzea. Noc eztacuz emen, ceim-
bat gachez-inguraturic gagozan? Enda cer,
euroi badarraioe infernucac gachac? Cer
bearturic ezcagoz bada, Jaungoicoari es-
catutera, *librau gaizala gacheric?* Bestela,
cer izango da gugaz? Noc esan lei onem-
beste gach dagoala munduan ta gu ardu-
ra baga, bildur baga bici gareala? eta guc
orren segurutzat dogula burua? Gachen
bildurric baucac, gachen billa dabillen cris-
tiñauc? pecatuan buruz sarturic dabile-
nac? egun guztian eguite on bat eguiten
eztabenac? beti epel, beti nagui Jaungoi-
coaren gaucetan dagoanac? cristiñau fede-
dunen señaie adigarric beimbere emoten

eztabenac? gacheric libretaco eguiten eztabenac, ez oraciñoric, ez limosnariac, ez meza bat entsun, ez errosario bat errezan, ez libru on bat iracurri, ez dempora lucean confesau? Celan onela irauun ta egouciñei gach ascotan jansi baga? celan milla estropezu emougo eztozu? ce laguntsa, ce gracia, ce bitartetasun enqui ciñei Jaungoicoaganic, ceure burua gordeten ezpadozu gacheric, berari escatuten ezpadeutzazu gorde ta librau zaizala, eguinic onetaraco ceure aldetie dagoana, ceuri jago-cotsuna?

Oh Jesus, gure Salbaguille maitea! gure Aita biotzecoa! gueure Eroslea, Egnillea ta Jabe bacarra! Gachez ta arerioz inguraturic gagoz alde guztietara, ta ceu baño besteric ez dogu, noc gugaiti beguiratu dagnian. Zue ateraten ezpagozuz aimbeste gacheric, noc libranco gaitu? betico galduac izango gara. Oh Jesus maitea, gure pecatuac gaiti curutzean il ciñiana! librau gaizuz arreu peccaturic ta gach guztietaric. Au escatuten ceue iracasten deustazu *Aita gureco* oraciño onetan. Ceue atarea, ceue iracatsia da. Ceue

bada iguzuz bere zazpi escabide santuetan escatuten dentsuguzan gracia ta mesede guztia. Santutu gaizuz, guc zure icena santifiquetaco: agundu eguizuz gudan, baita eguin ceure borondatea, ucatu ez eiguzu eguneango janaria, parcatu gure pecatuac, zaindu tentaciñoetan, ta librau gach guztiric. Amen. Alan izan dedilla: alan ichedoten ta sinisten dogu. Entsun gaizuz: ucatu ez eiguzu mesede au: eguin gaizuz ceureac, ceu gurea izateco. Parcatu eiguzu orainguiño euqui dogun epeltasuna, oraciño ceruzcoan errecetaco. Sartu ta sortu eguizu gure biotzetan debociño bici bero bat; beran diñogunean. Ondo entsunac izan bitez zure aurrean, esaten doguzan zazpi escabideac. Amen.





Ave Mariaco oraciñoaren ganean

Gauza asco, andiac ta miragarriac Ama Virgiña gaiti esan dira: baña guztijac dagoz sarturic *Ave Mariaco* oraciño gozo ceruzcoan. Elexaco guraso Santuac meatu dituez euren adimentuac: zorroztu ta ondo euren lumac, andizeatuteco Ama Virgiñaren alabantzac: escribidu dabe onen ganean esan al guztia; baña guztia dago barruturic *Ave Mariaco* oraciño Angueruzcoan. Bada esateaz *Maria Santisima dala graziaz betea* bete betean dago adierazoric guztia. Esateaz *Jauna dagoala beragaz*, beste criatura, guizon ta Angueru guztia baño neurri beteagoan, eztago cer esan guiago. Esateaz *bedeincatea dala andra guztien artean*, da esateu, beragan idoroten direala Jaungoicoaren benedeciño guztia, birtute, santutasun, doe, prenda edergarri guztia. Esateaz *Jesus dala bere*

sabeleco frutua, bere seme eguiazcoa, bere sabelean sortua, dago oarturic guztia, estago cer esan gueiago. Ta esateaz *dala Jaungoicoaren Ama*, esaquizun guztia, ta esan al guztia dago berba onetan laburturic, adietan emonic. Lau Evangelistac, izanic munduan izan direan jaquitunenac ta Espiritu Santuz beteac, berba onetan batu, bildu ta adierazo eben Ama Virgiñaren anditasun ta alabantza guztia.

Iruen artean compoundu zan Oraciño au: eta dira Angueru San Gabriel, Santa Isabel ta Elexa Santea. Baña dirudi, lenengo compontzallea zala Jaungoicoa; bada iracatsi eutsazan Angueruari Ama Virgiñari esango eutsazan berbac; berac arguitu eban Santa Isabel ta iracatsi eutsazan Elexa Santeari. Bai ta sartu lei Santa Isabel gaz bere seme San Juan Bautista, ceñec bere: amaren aoz ta bitartez berbec atera cituan: bada San Ambrosioco diño, ama baño lenago bete zala Espiritu Santuz San Juan bere semea, ta semea ganic ama gana igaro zala. Iru zati ditu oraciño onec. Lenengoa da: *Ave Maria graziaz betea*, *Jauna da zugaz*: eta dira San Ga-

briel Angueruac ezan cituan berbac. Bigarrena da: *Bedeincatea zara zu andra guztien artean, ta bedeincatua da zure sabeleco frutua*, Jesus; eta dira Santa Isabelec esan cituanac, Ama Virgiña seindun egoala, bere echera etorri zanean, bere seme San Juan santifiquetara. Irugarren zatia da: *Santa Maria Jaungoicoaren Ama, erre gutu eguizu gu pecatarioc gaiti, orain ta gure eriotzaco orduan. Amen.* Eta escabide au compondu ta atera dau Elexa Santeac, Ama Virgiña alabetaco ta beroni mesedeac escatuteco. Eta dauco aguinduric, Elex-guizon ordenduac errezuan esan dargiela. Parcamen edo indulgentsia ascoditu zabalduric *Ave Maria* esatea gaiti erlojuac emoten dabenean goxean, egüerdian ta arratseco Ave Marietan: Errosario santua esaten danean. Apostoluen demporatic asi cirean cristiñauac oraciño au errecetan: ta iracurten da Santiago Apostolu bigarrenaren Mezan. Deituten da *Angueruzcoa*, bere lenengo berbac Angueruac esan citualaco, Ama Virgiñari barri onac emon eutsazanean, bere sabelean sortu, guizondu, ta araguz jantsico zala

Jaungoicoaren seme maitea bere Dontze-
lletasunaren calte baga, Espiritu Santua-
ren eguitez ta graciaz. Eta emendie zo-
rion guztia e etorri jacozan leguez, guz-
tiz bere gogocoa da guc oraciño au erre-
cetea, bada dauzuan guztian, gomuterazo
ta barrerotuten jacaz lenengo entsun eba-
nean artu cituan mesede miragarriac, gra-
ciae, gozo, poz, ta zorion guztia. Eta
orregaiti esan oi da Aita gurearen irren-
go ta jarraian. Bada *Aita gurea* dan le-
guez oraciñoric andiena ta baliotsuena,
alan Ama Virginiari zuzenduten deutsegun
oraciñoric onena ta maitagarriena da *Ave
Maria*. Beimbere erresau ezta, bera ganic
mesederen bat artu baga. Da armaric sen-
doena goiartuteco deabrua: dautzuanean
igues eguiten dau: entzuteac berac izutu,
itsutu, uxatu, ta bildurtuten dau. Tenta-
ciño citel gogaicarriz esetsiric egoan bati,
bere confesoreac esan eutsan: jatortzun
guztian esazu *Ave Maria*: Etorren dea-
brua, baña *Ave Maria* esanic, laster igues
erazoten entzan. Orduan deabruac esan
eutsan gogaituric ta saminduric: madari-
catua izan dedilla zuri ori iracatsi deutsun

aoa. Eta ceimbat onetarico mirari eztagoz libruetan? Eta ceimbat eztacuzguz gueure beguiz? Ceimbat estauzuguz gueure belarriz?

Ave Maria da, araco Moisesen zotz edo cigor miraguillea leguez, ceindegaz eguiten cituan mirariae. Da Davidec Goliat il eban ezpatea leguez: da emacume batec Abimelec Capitaí arrotua il eban arria leguez: da Jael emacumeac Sisara Aguintari gaistori buruan sartu eutsan untzea leguez: da Judit andra alargunac Holofernesi burua ebagui eutsan agotz zorrotza leguez. Bada iru andracumeoc cerbaitean Ama Virginiaren antz irudintzat ciruan: eta aec euren arerio perseguillac leguez, Ama Virginiac bere, bentzutu, astindu, goiberatu, lurre-ratu ta azpiratuten ditu deabru gaistoac, oraciño au dirautsagunecan gogoz, debociñoz ta biotzez. San Antonino Obispo Florenciacoc San Bernardogaz diño, *Ave Maria* esaten dogun bacochean, ceruac barre eguiten dabela, Angueruac poztuten direala, mundua atseguinhez bete, infernuac icaratu, deabruac bildurtu, San Antonino berac diño, Ama Virginiac artu eban poz-

caria, gozotazuna, ta atseguin andia, Anguernac oraciño au lenengo esan eutsanean, au berau artuten dabela barriro, orain diñogun guztian. Bada Bernardino Burtos jaquintsuac diñoan leguez, Octaviano Emperadoreac erosi baeban amar milla dirutan bere icena esaten eban bela egazti bat: eta Tiberio Erromaco Aguintariac ain maite baeban, plazatic igaroten zanean, *bici bedi Tiberio* esaten icasi eban beste egazti bat, ce maite izango eztitu Ama Virgiñac *Ave Maria* agur gozoa dirautsen cristiñau debotoac? Eztago, ta ecin asmau leiz, oraciño onetan dagozan alabantza, bedeincaciño, escabide ta gauza mirariz beteagoric, alabetaco Ama Virgiñea. Esan al guztia emen dago sarturic. Esaquizun asco dago berba bacochean ta onegaiti emen ifinico dodaz bacochea berez.

Ave

Anguernac Ama Virgiñari esan eutsan lenengo berbea zan, *Ave*. Eta da esatea leguez, poztu zaite, baquea zugaz, barri onac dacartsudaz, ez bildurric euqui, zo-

rion zuri zagoz seguru, consola zaito,
 Jaungoicoac gorde zaizala. (Eusquera uts
 garbian esan bear liteque *Agur Maria*,
 cartilla eusquerazcoan dagoan leguez: ba-
 da *Ave* latiniari quendua da, ta onegaiti
 erdeldunac bere lecuari ifinten dabe *Jaun-
 goicoac salba zaizala Maria*. Dempora lu-
 cean icusi eztogun adisquide maite bati,
 adierazoteco bera icuzteaz artzen dogun
 poza, esan daroagu, *Agur urlia*, celan za-
 biltz azpaldian?) *Ave* era ascotara artu lei.
 Contrara iracurriric esan gura dau *Eva*,
 guenre leuengo Amaren icena: eta onen
 contrara zau Ama Virginiac egniu eban
 guztia, diño au San Agustiuec Evac gal-
 du guinduzan, diño, ta Mariac irabaci:
 Evac ecarri eban pecatua, Mariac quendu:
 Evac il guinduzan, Mariac biztu. Evac
 ecarri euscuzan negarra, cizpurua, nequea,
 gaisotasuna, eriotsea ta gach guztia: eta
 Mariac poza, gozotasuna, osasuna, ba-
 quea, bicitzea, gracia ta zorrión guztia.
 Onegaiti jaquitun bateo ciñoan, Ave-co A
 lenengo letreac esan gura dabela *Adan*:
 azqueneco E-ac *Eva*, ta erdico V-c Vir-
 ginea, erdico ta bitarteco ifini zalaco aen

ta Jaungoicoaren artean. Orregaiti diño Elexa Santeac: *Sumens illud Ave.... mutans Evæ nomen. Væ* lutiñez esau gura dau *biraoa, zorigacha*, ta Alberto Nagusiac diño, *Evaren A Væ* gaistoric Mariac atera gaituala. *Ave* agur gozo au Angueruac Ama Virgiñari esau eutsan, adierazoteco, etorrela berari emotera barric onena, pozena, andiena, miragarriena, zorionecoena beretzat. Angueruentzat ta guizonentzat. Eta zau esatea leguez, poztu zaita Maria, bada zure sabelean sortuco da, zu ganic jaioco da, zu ganic urtengo dau, zue acico dozu Jaungoicoaren semea guizon eguinic, guizona salbetaco. Jaungoicoac autu zaitu eguiteco bere Ama, bere urrengoa, ceru ta lurreco Erregiña, criatura guztien Aguintaria, guizon ta Angueru guztien ganecoa. Ama Virgiñac au entsuñic arta eban atseguin ta pozac eztauco cer icusi, Angueru ta guztia eucui dituezan pozcaria ta gozotasun guztia alcar baturic.

Maria

Mariaren icen santu beneragarria era ascotara azalduten dabe Guraso Santuac. Mariac esan gura dan *Andrea* edo *Señorea*, alan dalaco muudu guzticoa. Esan gura dan *ichasoco izarra*, bere izartarguiac zuzenduten ditualaco munduco ichaso onetan dabilteenac: arguituten ditualaco gure adimentuac, ta quendu gure odoi illun itsalac. *Mariac* esan gura dan, *mare amarum*, ichaso gatzitu, garratz, miña, bere sabelean bere seme Jesucristoc artu ebalaco gure aragui senticorra, argala ta ilcorra: ta bere semearen Pasiño ta eriotzan edan ta iruntsico citualaco neque, pena, larritasud, garratasun ta min biciac. Baita dericho ichasoa, bada ichasoco ur tantac ecin ceimbatetu ta neurtu litequecen leguez, alan ecin mugatu ditequez Ama Virginnan idoroten direan gracia. Mariac San Geronimoren ustez esan gura dan *illuminatrix*, argui emollea, arguitara emon eusculaco arguia bera, ta San Juanec diñoan leguez, mundura datozañ guizon guz-

tiac arguituten dituan argui arguitsua. Onegaiti Eseritura Santeac Ama Virginiari deituten deutso eguzqui arguia, illargui oso betea ta izar ederra. Maria Santisimac Santa Brigidari esan eutsan, bere icena icentau ta aitetuten dogunean, Angueruac poztuten direala; Santuac gozotu; Purgatorioco arimac atseguindu, deabruac bildurta, izutu, mirutu, indarbaguetu. Idiota jaquitunac diño, Jaungoicoac Maria Santisimari ifini eutsan icena dala, Jesusen icenaren urrengo dagoan andiena ta bene-ragarriena: ta cerutar guztia burua ma-curtuten dabela dautzuenean, eta icen santu onec jazoten dituala jausiac, osatu gaissoac, arguitu itsuac, bigundu biotzie arrituenac, mugitu, penitentsiara, sendatu il aguinian dagozanac, igues crazo deabruac. Celan bada, eztarabilgu sarriago guenre aoran? Celan *Maria* esan bearrean entsuten jaque ascoti deabrua, biraoa, berba zautar loi ciquiñac? Oh zu mundu-co erbeste negarrezco onetan bici zareana, diño San Bernardo gozoac; oh zu mundu-co ichaso bildurgarri onetan eacachen artean ito aguinian zabilzaua, beguiratu eio-

zu izar ceruzco oní, galdu ta ondatu gura
 ezpadozu: *respice stellam*. Baldin tentaci-
 ñoac esetsiten badeutsu, edo persecuci-
 ñoac, edo infernuac deitu egiozu Mariari:
voca Mariam. Bajatortzu gogoraciño cha-
 rra, arrotasuna, andiustea, cuticia, gorro-
 toa, icusiecina, ondamu edo embidea, dei-
 tu eiozu Ama Virginiari. Tentetan bazaitu
 araguiac, munduac, deabruac, lagun gais-
 toac, griña charrac, *respice ad Mariam*;
 biotz biotzeric escatu eiozu, atera zaizala
 ondaquizun onetarie. Icaratuten bazaitue
 ceure pecatuac, ceure concientsia deun-
 gueac, Jaungoicoaren juicioac, infernuco
 bildurrac, *cogita Mariam*, zoaz Ama maite
 onen oñetara. Peligruetan, arriscuetan,
 dudetan, eztueretan, deitu egiozu: erabil-
 tzu beti ceure aoran, ceure biotzean, ta se-
 guru zagoz. ¡Oh Maria! oh icen ezta baño
 gozoagoa! oh ee damu dedan orainguiño
 ez ezagutu izauaz zure icen beueragarria!
 oh eta deitu baneutsu sarriago, enintzan
 orrembeste pecatutan jausico! Emetic an-
 rrera aztuco etzaitut: aspertuco eznaiz zuri
 deituteaz, zuri esateaz *Ave Maria*.

Graciaz Betea

Esatea Maria Santisima dala *gracias betea*; da esatea, Jaungoicoac beste criatura guztia baño neurri oso beteagoan bete ebala graciaz, santutasunez, arimaco ondasunez ta mesedez. Santu guztietan idoroten direan gracia guztia aurquituten direala Maria Santisimagan. Beguira ce santutasun andira eldu cirean San Juan Bautista, San Esteban ta Apostolnac, ecintzuc gaiti diño Escritura Santeac, graciaz ta Espiritu Santuz beteric egozala. Beguira ce *gracias* beteric ta ederturic dagozan, Angueruac ta Serafin amorezco su ta garrez beteac: bada guztioe baño graciaz beteago egon zan Ama Virgine. Ibai ta erreca guztia ichasoan sartzen direan leguez, ichasoac orregaiti ganes eguin haga, Salomonen esatez; ouela diño San Buenaventurac, Angueru ta Santuetan dagozan graciazco iturriac, Santutasunezco ibaiac, sartuten dira Maria Santisimagan, ceñeganic urten eban Jesus gracia berac. Orain bada, diño guztia mi-

rarituric San Ambrosioco, ce graciaz betea, apaindua, edertua ez zan egongo, bere sa-belean bederatsi illebetea ta bere laguntzan ogueta amairu nrtean euqui ebana Jaungoicoaren Seme graciaz, santutasunez ta eguiatz betea? Obededonen echean iru illebetea egon zalaco Testamentuco Ucha santua, guelditu bazan eche guztia ondasun ugariz zorionduric ta aberasturic, cer jasoco zan Ama Virginiatz, aimbeste demporan beragan euquiric, ez Ucha utsa, ezpada onec adierazoten eban Jesus maitea? Nor eldu zan, diño San Juan Crisostomoc, Maria Santisimaren gracia ta santutasunera? Ez Aitalen edo Patriarcac, ez Igarla edo Profetac, ez Martirac, ez Apostoluac, ez Angueru goratuenac: Jaungoicoaren urrengo ecintopau lei criatura graciaz ta birtutez beteagoric. San Buena Ventura ta Santo Tomás Elexaco Dotore arguituac aurreratu ta azartu cirean esatera: Jaungoicoac eguin euquezan beste ceru, mundo, ta criatura andiagoac, ederragoac, zabalagoac; baña ez Ama Virginiã baña ganza miragarriagoric. San Geronimoc diño, eguiatz da *gracias betea*, bada

besteai emoten juquee zatica, baña Ama Virgiñari gracia oso betea: beste santuetan zatituric ta zabalduric dagozan graciae, Maria Santisiman idoroten dira neurri oso beteun. Onegaiti esan eutsan Anguernac: *idoro dozu gracia Jaungoicoaren aurrean*. San Leon, San Bernardoc, Santo Tomasec diñoec, Jaungoicoac bere Semearen Ama eguin ebalaco, agaiti beste Santu guztiai aurreratn ebala: Augueru ta guizon guztiaac baño graciaz beteago ta maiteago eguin ebala: beste iñori orrembeste eguin ez eutsala: beste guztiaac baño gneiago edo capazago eguin ebala: eta ontzi batec, ceibat andiago dan, aibat gneiago artzen dan.

Eztago graciae, eztago birtuteric, eztago edertasunic, Ama Virgiñan eztanic, diño Elexa Santeac bere errezuan. Beragan icusi zan Angueruen santutasuna, Serafinen amodio sutsua, Apostoluen caridadea, Martiren sendotasuna, Confesoreen debociñoa, Dontzellen garbitasuna. Beragan iñogan baño obeto icusi cirean gracia guztiaac, fedea, iharopena, caridadea, umiltasuna, obediencia, eroapena. Bete-

ric egoan jaquituriaz, ontasunez, misericordiaz, maitetasunez, Espiritu Santnaren doe edergarri guztiaz. Bere gogoa beti egon zan Jaungoicoagan josiric: bere borondatea Jaunarenaz bat eguinic, baturic, garturic, suturic. San Lorenzo Justiniano diño, aimeste gracia artu ta emon ebala, ce. beraganic urten ebela zorion guztiaz: Jaungoicoaren urrengo: berac emon entsan ceruari gloria: munduari Jaungoico guizon eguiña: Angueruai gozo ta poza: guizonai baquea; ta percaçiñoa eta pecatuari azquena: Santuac berac diño, celau *gracias petea* izango ezta, izanic Jaungoicoaren Ama, ceruco Erreguiña, gracia guztien ecarlea? Baña onetan dagoan gauzaric miragarriena da, jaqnitea, Ama Virginiac ez bacarric bere bicitzaren azquenean, bai ta bera sortu zan lenengo une edo instantean euqui ebala, Angueruac eta Santuac euren atserengõ demporau euqui eben gracia ta santutasuna baño andiagoa. Au alan iracasten dabe Elexaco guraso Santuac, ta au dirudi adirazo ebala Davidee ciñoanean: *fundamenta ejus in montibus sanctis*: Ama Virginiaren leuen-

go cimendua ta pausua ifini zala Santurio goratuenen ganean. Bere leneugo izatean autu eban Jaungoicoae bere Amatzat: librau eban pecatu jatorrizcoric, beguiraturic bere semeareu Pasiño ta erioseari: bete eban gracia ta santutasuuen. Orain bada, leuengo izatean beste santu guztiac erabatera baño gracia gueiago equi baeban, ceimbatera elduco zan, mundu onetan bici izan zan irrogueta amabi urteetan? Ceimbatera bere Seme Jesus bere sabelean equi eban bederatzi illebetetan, ta bere laguntzan equi eban ogueta ainairu urteetan? Ceimbat irabacico ez eban bere eguite miragarriacaz; igaro cituan pena ta nequeacaz, eguin cituan lau bearracaz fundetaco Elexa-jaiio barria? Contulariac ondo daque, ce contu contau ecin ala dan, numeru bati erantsiten bajacoz irrogueta amabi numeru: milloi milloitea bere ecin cembatu leiz. Oh ce ondo esan eben Jaquintsuac bere icencan; *in plenitudine Sanctorum detentio mea*: Santuen betetasunean dagoala bere egon lecu. Oh gure dicha, oh gure fortuna, oh gure zoriona, equitea Ama bat ain

aberatza, ain graciaduna, ain ederra, ta maitegarria! Celan sarriago ezgoaz bera-gana mesedeen ezque? Celan amodioz suturic ifinten ez gara bere debociñoan? Celan errezetan doguz *Ave Mariaco* berba misterioz beteac, orren otz epelic ta ganorra bāga? Celan igaroten jacu orduric esan bāga, ta egunic Errosario santua errezau bāga?

Jauna da zugaz

Angueru San Gabrieleec agur gozoa Ama Virginari eguin ezquero, esan eutsan: *Jauna da zugaz*. Judegnac an berba-egui-cunau enqueen euren artean: ta guc bere alcarri esan daraiogu: *zagoz edo zoaz Jaungoicoaz: Jaungoicoac lagun daizula; zugaz izan deilla*. Alan esan eutsan Angueru bat-ec Gedeon Aguintariari: alan Booz guizon andiac garia iguitanduten ebiltzen bearguilleai: alan Saul Erregueac Davidi, Goliat indartsuaz peleetara joan zanean: alan Davidec berac ilte orduan bere Seme Salomoni: alan Tobias santuac bere semeari: ta alan Angueruac Ama Virginari,

Jauna da zugaz. Jaungoicoa badago gugaz, diño San Pauloc, noren ta ceren bildurra enqui guñei? Abraham, Isaac, Jacob, David, Tobias ta beste santuai nondic etorri jacoazan aibeste zorion ta bedeincaeiño? Jauna euraçaz egoteric, diño Escritura Santeac. Moises, Josue, Judit ta beste Capitai famadunac, celan irabaci citnezan ain vitoria andiac? Jaungoicoa euraçaz egonic. Jauna eztagoanean guizonaz, onec eerbere ecin lei, diño Jesusec Evangelioan. Guztia galdu, guztia oquer etorrico jacu. Au arguiro dacusgu Isrraeltarracaz, Saul Erregueaz ta peccatari ascoçaz

Emendic aguirida, ce gozo ta poz miragarria artuco eban Ama Virginiac, Angueruac esan eutsanean: *Jauna da zugaz.* Maria Santisimaz dago Jaungoicoa, ez baccaric beste criaturetan leguez, ezpada egote eztagoaz, batasun alcartuagoaz, beste Santu ta Angueru guztiaç baño maiteago dabela: ondratu, aberastu ta graciaç betetan dabela: bere gogo ta pentsamentuac zucenduten dituala: escatuten daben guztia emoten deutsalac, bere urrengo ce-

ruan ta cerupe guztian eguiten dabela. Beragan dago, beragan bici da, beragan danco bere bici-lecua. Beragaz dago, diño San Bernardoc, ez bacarric bere sabelean guizondu zan Jaungoicoaren Semea, baita Aita Jaungoico bere Seme au Ama Virginiñaren Seme eguin ebana, ta Ama Virginiña bere Alabatzat artu ebana: beragaz dago misterio miragarri au eguin eban Espiritu Santua ta Ama-Virginiña bere Espozatzat artu ebana: beragaz dago Irutasun Santu guztia, iru Personac artuten dabela Alabatzat, Espozatzat, ceruco Erreguiñatsat, Jaungoico ta guizonen arteco Bitartecoztat. Oh Maria, diño San Agustiñec, *Jau-na da zugaz* ganza guztietan, ceure sabelean, ceure gorputzean, ceure biotzean, ceure ariman. Zure aguindura egon zan bicitsa guztian: zugaz egon zan ceure echean, bere ibilteetan; bere eriotzaco orduan: bai ta biztu ezquero berrogei egunean, ta zugaz dago ta egongo da ceruan beti irauteetan. Eta Espiritu Santuae badiño, graciazco egotean dagoan arima baten dancala bere jarlecua, ce obeto egongo ezta Ama graciazcoan? Onegaitic diño

Kempis debotoac, Jesusegaz egon gura dabena, egon bedi Ama Virgiñaz, bada beti dagoz batera, beimbere alde eguiten ez-tira, Ama Virgiñaren laguntzan idoro eban Jesus Belenen Artzaiñac ta Erregue Magoac ta Simeonec Templuan. Ama Virgiñaren laguntzan eguin cituan Jesucristoc lenengo mirariac, San Juan Bautista santuturic, ta Cana Galileaco ezteguetan ura ardao biurturic. *Qui me invenerit, inveniet vitam.* Virgiña Ama Maria billaturic, idorooc dogu ceruco bidea, bicitzea ta seculaco gloria.

Bedeincatea zara zu andra guztien artean

Berboe esan cituezan ez bacarric Angueru San Gabrieleac, baita Santa Isabeleo bere. Jesucristoren urrengo beste iñoc euzqui eztitu Maria Santisimac baño bende-ciño gueiago. Da *bedeincatea*, ecarri euscuzan bedeincaciño, gracia, ondasun ta zorionac gaiti: quendu euscuzan madari-caciño, calte ta zorigachac gaiti; osotu, compoundu, quitutu, ordetu, erremediatu cituelaco, lenengo emacumeac ecarri euscuzan

zan gachac ta calte negargarriac gaiti. Da *bedeincatea*, ta danic preciatusen, ederra ta maitegarria; munduan lucero ichedona: Aita aurrecoac deseatua: Igarlac adierazoa: Santuac escatua: guizonai munduaren asieratic esqueña ta aguindua. *Bedeincatea*, beragan dagozulaco munduan izan direan andra bedeincatu guztietan icusi cirean bendiciño guztiac: Sara, Rebecca, Raquel, Ana, ta ama guztiac euqui eben zoriona, umeac euquiteaz, lucero urec boga egon ezquero: Abigail, ta Tecasiteseñ jaquituria: irabaci cituezan bitoriac, Jael emacumeac bicitza quenduric Sisara Capitai arroari: Ester Erreguiñac libauric bere erritarrac Asuero bere senarrac euren contra emonic eucan erioztaco sententsiaric: Judit emacumeac burua ebagnuric Olofernes Capitai gogorrari, baita uxaturic ta ignes eraguinic beragaz egozan eun ta ogueta amabi milla soldadu armadunai: bada ouec bitoria andiagoc irabaci cituan Ama Virgiña Mariac.

Bedeincatea da, aurreratu zalaco beste criatura guztiari amodioan, jaquiturian, edertasuuean, garbitasuuean, humiltasu-

nean. Aurreratu zan Virgiña guztiai, Doncelletasunean; alargunai, bacartadean, oraciñoan, barauan, moduzcotasunean; esconduai, bada Ama Virgiña ez bestec, seiñic eguin eztau, dontzella gueldituric: bestec emon eztau seme oberic. Eta asco eldu badira bere Erregue, Patriarca, Profeta, Aita Santuaren ama izatera: Ama Virgiñac emon eban Erregueen Erreguea, Angueruen Burua, ceru ta lurreco Aguintaria, Nagusia, Jaungoico guizon eguiña. *Ce bedeincatea*, ce zorionecoa ezta onetan? Da *bedeincatea*, Jaungoicoac eternidadetic autu ebalaco; bere lenengo sortueran pecatu etorrizcoric libran ebalaco; bere jatorrija euqui ebalaco Erregue, Sacerdote, familia ta odolic argui, noble, santuenetic; dalaco lurreco arantza artean jaio zan lirio, lora ta larrosa usaintsua: munduco ondragarria: ceruco edertasuna: Adanen alaba guztien artean estimagarriena. *Bedeincatea da andra guztien artean*, bada orduguño andracume guztiac igaro biar eben lotzaren bat; guztiac euqueen bere cera: dontsella ta escondu baga guelditsea euqui oi zan orduan afruntu

lotzarizcotzat euren etorguitie jaico
etzalaco Jaungoicoaren Semea; ta onegai-
tie Jepteren alabeac negar eguiten eban,
dontsella ilten zalaco. Escondurie, baldin
becinean sengueac, edo ume bagueac, bur-
la ta barre eguiten eutseen, enretarie
jaico etzalaco Jesucristo: seindun sabe-
lean catigu gueratuten bacircan, dolore,
min, estura ta larritasunac igaro bear ci-
tuezau: *in dolore paries*. Baña guzti one-
tan zan Ama Virgîna *bedeincatea* privile-
giatua, zorionecoa, diño San Bernardoc:
bada zan Ama, doncellatasuna galdu ba-
ga, pecatu baga, guizonaz parte euqui
baga: ta seiña eguin eban tristura ta do-
lore haga. Agaiti Elexa sauteac cante-
tan deutso, Ama izan ezquero, dontsella
guelditu zala: alan eucan lenagotic adie-
r-zoric Isaias Igarla santuac. Ouetan au-
rrescua daroioa beste andra guztiai. Baña
cetan ez? Nor eldu zan secula bere santu-
tasun, garbitasun ta graciara?

Bedeincatea zai gauza guztietan: be-
deincatua bere sabela, non egon zan Jaun-
goicoaren Semea: bedeincatuac, bere bu-
larrac, ugatza ta alimentua emon eutsee-

nae, criatura guztiaue janarrituten dituan
 Jaanari: bedeincatuac, Jesus maiteari mo-
 su ta laztangozoac emon eutseesan ezpa-
 nae; bedeincatuac bera laztandu ta besu-
 cartu eben besuac, beguiratu ta icusi
 ebeen beguiac, bere Semea mantenduteco
 ta jantsiteco bear eguin ebeen escu ede-
 rrac. Ama Virgīna berac ezagutu ta autor-
 tu eban, gente guztiaue *bedeincatea* deituco
 eutseola, gauza andiaue Jaanac beragaz
 eguin citualaco. Eta Hugo Cardenalac
 onen ganean diñoan leguez, guztiaue be-
 deincatuco dabe: Angueruac, eta guizonac:
 chiquiaue eta andiaue: pobreac eta abera-
 tzac; biciaue eta illac, Purgatorioan dago-
 zanac. Guztiaue alabatu, maitetu, audisca-
 tu, ondratu, zoriondu, deitu ta begondo-
 tuc dabe. Bere aurean umildu, beeratu,
 echungo dira deabrurie gogorrenac. Angue-
 ruac ta cerntar guztiaue dauque ondra, di-
 cha, zoriontzat bera serbieteac. Bere ondra
 ta alabantzan Elexa Santeac ereguiten
 ditu eleszac, altarac, imagiñac, cofradiaue
 ta jai fiestac: bere icenaren azpian fundau
 dira Erligiñoac, predicau sermoiaue, escri-
 bidu liburuac, deitu bere estura ta premi-

ñetan: esquiñi ta opa botoac eta promesac, oraciñoac, erreguteac, errezuac ta Letañiac: eta bacarric Loretoco Letañian berrogueta aimbeste bider deituta erregututen deutso. Oh milla bider *bedeincatea!* Angueruac, guizonac, ta criatura guztiaac bedeincatu ta alabatu zaiezala secula betico. Oh Ama maitea! daucadan damuada, ez errezau izana sarriago, astiroago ta debociño gueiagoaz *Ave Mariaco* oraciño onetan dagozan misterio ezcutapen ezcutauac ta miragarriac.

Bedeincatua da zure sabeleco frutua Jesus

Berba santuoc Santa Isabelc esan cituan, Ama Virgíñá bere semeaz sabelean icusi ebanean. Gué bere esaten dentsaguz, adierazoteco, ez bacarric zor jacola ondra, gloria, ta alabantza bera dana gaiti, bai ta Jesus bere sabeleco *frutu* edergozoa gaiti: ta emon ensculaco gneure Salbaguillea, Erredentorea, Eroslea ta Libertaguillea. Ez guenduan Jesus enquico, ezpalitz Maria gaiti: berari zor dentsagu *frutu* ceruzco au. Deituteu da *frutua*, bada frutuac

urteten daben leguez arbolatic, oni gachio eguin baga, alau Jesusec urteu eban Ama Virgíña ganic, beroneu doutsellata-sunaren calte baga. *Frutu* au da bedeincatua; bendeciño guztien ecarlea, gracia guztien iturria: cernac emon daben *fruturic* miragarriena; ceruco zabalera guztia cabitzen eztabena: Angueruac bere jariecutzat oin pean ifiinten jacozana: gloria, ondra, bendeciño, ta alabantza guztia zorjacona. Auxe da Maria Santisimaren sabe-lac emou euscun *frutua*.

Paradisueo frutua bazan ain gozoa, gustosou, ederra, cer izaungo da *Jesus frutu bedeincatua*? Elexa Santeac cautetan dau, eztago Jesus baño gauza gozoagoric, zalegarragoric, icusgarriagoric, usaintsuagoric, eztidarioagoric, bigunagoric. *Erdue*, diño Davidec, ta *icusi eguizue ce gozoa dan Jauna*. Eztia baño gozoagoa da Jesusen icena, diño San Bernardoc: arguia da, osasun emollea da, janaria da, gachac osatuten ditu, adimentua arguitu, borondatea berotu, arimea mantendu, gorputza sendotu, gogo ona aci, tentaciñoac quendu, deabruac uxatu, biotza poztu, atseguinez ta

zorionez bete. Jesusen icena bada orren gozoa ta miragarria, cer izango da Jesus bera? Non nai beguiratu deiogula Jesusi, eracusten deuseu pozcaria ta atseguina. Badacusgu bere jaiotsan, guztia da amodioa ta gozotasuna. Badacusgu bere predicaldi demporan, ce gozosotasuna, ce ez-titasuna, ce amodioa, ce erruquitasuna ez-taracus pecatariric audienacaz? Ain zan maitetsua, biguna, umilla, erruquiorra, moduzcoa, ce gente guztia ce joiazan bere billa ta bere atsean eremu bacarretaraño, azturic euren jatecoaz ta euren buruacaz. Badacusgu curutzean, eztaracus ezpada maitetasuna, samurtasuna, biguntasuna ta gozotasuna: burua macurturic, pecatariaideituteco: besoac zabalic, gu laztandute-co: bularra idiguiric, gu an sartseco ta bere biotza andie eracusteco: oñac josiric, adierazoteco eztabela igues eguingo, anche egongo dala gure beguira ta zain.

Paradisuco frutua jatea gaiti etzan bat eguiten jaquituna, ezilcorra, edo ecin illa, deabruac Evari cirantsan leguez, baña *frutu* au janic, betico bicico da ceruan: Jaungoicoaz bat eguiten gara, ta bere Na-

turalezan parte artsen dogu, diño San Pauloc. *Frutu* au zan Jaunac esquiñi eutsana Davidi ifinico ebala bere urrengoe-tan. Sabeleco frutna ta semeac euquitea da, Jaungoicoac emoten deutsan saria, senipartea, erentsia ta mesedea arima on bati. Jesus *frutu* eder au zan gracia ta bendeciño guztiaz bedeinatua. Jaungoicoac Angueru guztiai agiundu eutseen, bedeinatu, alabau, adorau eguiela bere seme maitea, diño San Pauloc. Beragan gueldita cirean, diño Isaiac, Espiritu Santuaren doe ta gracia guztia. Bedeinatu eben Angueruac, Erregue Magoac, ta Artzaiñac Belenen jaio zanean. Bedeinatu eben Simeon eta Anac Jerusalengo Templuan. Bedeinatu eben une chiqui guñocoac Jerusalenen sartu zanean Erramu egunean. Bedeinatunac dira Jesusegan dagozan gorputz zati guztia. Bedeinatunac bere aoa ta miña ain berba ta sermoi gozoac esan cituana. Bedeinatunac bere begui sotilac, beguirada bategaz peccatariac beragandu, irabaci, ta Madalenea, San Pedro ta beste asco negar ta penitentsia eguitera mugitu citunac. Bedeinatua

bere arpegui eder, galant maitetsua, tris-
teac cousoletan cituena: bere escuac, gais-
soac osatu, itsuac arguitu, illac biztu, ta
guztiai ou eguiten equienac: bere oñac or-
tocic, oin utsean ardi galduen biila ebil-
tsenac. Bedeincatua bere biotza, bere odo-
la, bere arimea, bere gorputza, ta dan guz-
tia: bada direanac emon cituan gure ari-
mac erosi ta peccaturic ateretea gaiti. Be-
deincatu daigun bada, iñoz aspertu baga,
gau ta egun ta ordu guztietan. Au da Ama
Virgiñac emon euscun *frutu bedeincatua*.

Orain bada, ce bedeincatua ezta izan-
go, *frutu* eder gozo ceruzco an emon eus-
cun Ama Virgiñaren sabela? Ezta izan
munduan Maria Santisimaren sabela ba-
ño lecu beneragarri eta santuagoric, diño
bere deboto San Bernardoc: ez eta cernau
bere Jesucristoren urrengo berac dancana
baño lecu goratuagoric. Agaitic Elexa
Santeac Ama Virgiñaren jai gucienetan
ifinten dan Evangeliotzat, Marcela, Mada-
lena ta Martaren nescacha serbitzari de-
boteac Jesucristori gente pilo baten au-
rrean esan entsazan berbac: milla bider
zorionecan zu erabili cinduzan sabela ta

zuri ngatza emon entsuezen bularrac. Agaiti Elexa Santeac *Salbean* dirautso Maria Santisimari. Oh Ama maitea! erbeste onen ondoren eracuscuzu Jesus ceure sabeleco frutua. Errezuan diño: bedeincatuac Jaungoicoaren Semea eron ebeu erraiac. Eta *Te-Deum* nen cantan dirautso Jesucristori: Oh Jauna! etzireau atzeratu etortera Ama Virgiñareu sabelera, gu eriotzaric libretarren. Esan daigun bada Santa Isabel gaz: Oh Maria! *bedeincatua da zure sabeleco frutua, Jesus*. Erregutu eiozu arren gu gaiti. Cer ucatu leio ain Seme onac bere Ama maite bati?

Santa Maria Jaungoicoaren Ama

Leugo alabantzac andiac ta miragarriac badira, eztira guichiago Elexa Santeac Ama Virgiñari zucenduten deutzazanac, esanic, dala *Jaungoicoaren Ama*. Bada izanic Jesucristo Jaungoico ta guizon eguiazcoa persona baten, ta izanic Maria Santisima bere Ama, eguia guztiaz da *Jaungoicoaren Ama*. Alan deituteu entscen San Juan Evangelistac ta Apostolu

guztiac, alan lenengo cristiñauac; ta alan dauco erabaguiric eguia sinisgneitzat Elexa Ama santeac, Efesoco Concilio edo Batzar santuan, Guichitan icusi dira, Batzar onetan eguin cirean fiesta, solasa pozcariac baño audiagoac. Elduric eta jaquinic eguna ceñetan ifinico zan Articulo fedecotzat, Maria Santissima dala *Jaungoicoaren Ama*, errico gente guztia batu zan: plaza, cale ta eche aurre guztia apaindu, edertu, bichitu cirean: jo cirean campai guztia entsuten cirean musica, canta, suñu ta alabantzac: eguin cirean suac: erre iutsenzo ta gauza usaingarriac. Guztia, baña batezberere emacumeac aurreratu cirean funciño onetan, icusiric euren naturaleza emacumezcoric eldu zala bat, *Jaungoicoaren Ama* izatera: guztia palma, erimontz, lorasorta, ta candela erresseguiñacaz eldu cirean, Obispo, Cardenal ta Nagusiac egozan Batzar echecho atartera, ichadon, esquer-onac emon ta lagunduteco aen Mesedeai euren echeetaraño, ifini ta erabagui ebeelaco fedeco sinimentzat Maria Santissimaren *Amatasun Jaungoicozcoa*. Esanic Maria Santissima dala *Jaun-*

goicoaren Ama, dago guztia esanic, diño San Anselmoc. Dago esanic, Jaungoicoaren urrengo eztagoala bera baño andiagoric, goratuagoric, miragarriagoric, santuagoric. Dago eracutsiric, pecatu baga sortua dala: Angueruac baño gueiago dala, ta berari dagocazala ceruco Erreguñia, Jaungoicoaren Esposa, ta Ama misericordiazoaren icenac. Esatea dala *Jaungoicoaren Ama*, da esatea, diño San Buenaventurac, bera gan dagozala neurri betean, santutasuna, edertasuna, jaquituria ta gloria guztia Jesucristoren urrengo. Da esatea, diño Santuac, Jesusen Ama eguiazcoagoa dala, beste ama guraso guztiac euren semeenac baño: bada guizona dan aldetic, eztauco Jesusec Aitaric, ezpada bacarric Ama. San Bernardiño Senecnac diño, Angueru ta guizonen artean eztagoala, daucanic semetzat Jaungoicoa, ezpada Aita Eternoa ta Maria Santisima. *Amatasun* au icusteaz, diño San Juan Crisostomoc, cernac mirarituten dira: Angueruac umildu; criaturac mututu ta infernua icaratu. Esatea dala *Jaungoicoaren Ama*, da esatea, dala peccatarien Ama peccatarien bitartecoa, be-

re contura gagozala, bere semeac gareala.
¡Oh gure zorioná, euquitea alaco Ama bat!

Erregutu eguizu gu Pecatarioc gaiti

Elexa Santeac autortu ezquero Maria Santisima dala Jaungoicoaren Ama escatuten deutso, *erregutu daiala gu gaiti*: izan dedilla Ama graciazcoa, Ama erruquizcoa; escatuten deutzagu, erregutu daguiela Elexa Ama Santearen premiñac gaiti: ecindu daizala heregiac; fede bagueac federa dacarzala: pecatariac Jaungoicoa gana biurtu daizala: penitentsija eguiteco demporea, astia, epea ta gogoa irabaci daigula. Escatuten deutzagu, Ama eguiazcoaren officioac gugaz eguin daizala: gaistoac ondu daizala: onac obetu: itsuac arguitu: tristeac postu: gaissoac osatu: nequean lagundu: ta guztiacaz bere ontasun maitea eracutsi daguiela. Çer izango liteque gugaz, Ama Virgiñac gugaiti erregutueo ezpaleu? San Fulgencioç diño, Jaungoicoac oraingo ondatueo ebala mundua, ezpalitz bere Amaren erreguac gaiti. San Bernardoc diño, Ama Virgiñaren mi-

sericordiaz beteric dagoala mundua: bere erreguz ta bitartez jatorruzala ceruco mesede guztia. San Pedro Damianoc diño, beti dagoala erreguca bere Semearen aurean gu gaiti. San Anselmoc diño, baldin Ama Virgiñac artuten badau bat bere con- tura, ecin condenau litequeala. San Agus- tinec diño, ezogala irabacico pecatuen parcaciñoa, ez ceruco gloria, ezpada Ma- ria Santisimaren bitartez ta erreguz. San Buenaventurac diño, atzeratu ta guelditu- ten dabela bere Semea, castigau eztaizan peccataria. San Antonio Paduacoac diño, Ama Virgiña gana doian peccataria biotz damutuaz, duda baga erditsico edo alcan- tsauco dabela peccatuen parcaciñoa. Ceim- bat peccataric zor estentse Maria Santisi- mari euren salbaciñoa? Ceimbat ilgo etzi- rean euren peccatuen erdian, ezpalitz bera gaiti? Ce balio andicoac eztira bere erre- guac ta escariac Jaungoicoaren aurean? Cer ucatu leio Jesusec bere Ama maiteari? ¡Oh ceimbatec negar eguingo daben az- queneco egunean, ez balietu izana Ama Virgiñaren bitartetasunez! Oh neure ala- ba maitea cirantsan Maria Santisimac Ma-

ria Jesus Agredar Beneragarriari, oh baleque peccataria, ceimbat galtsen daben nizaz ez baliatseaz, nire debotu eguiascoac ez izateuz, nire curae ganaco maitetasuna ez ezagutzeaz! Aiu egarri andia dot peccataria salbetaco, ce arima bat irabastea gaiti, bear balitz jatsico nindaque mundura: inguratu lur guztia: igaronequeric andienac: urtu negarrez: erre surten, arima bat graciazco estaduan ifintea gaiti.

Orain, ta gure Eriotzaco orduan. Amen.

Beti dogu Ama Virginiaren bearra, *orain*, ta batezbero *eriotzaco orduan*. Noc estacuz ce peligru bildurgarrietan bici garean orain? Alde guztiric gagoz gachez ta arerioz inguraturic. Deabruac batetic, munduac ta araguiac bestetic esetsiten deuscue. Guerra uts jarraituan ta gugaituan bici gara, diño Job santuac. Egun bateco baqueric bere ez dogu. Campotic criaturac, ta barrutic griña, pasiño, tentaciño gaistoac perseguietan gaitue. Sarez, amuz, laquioz, estropezuz ta arriscuz be-


teric dago oraingo bicitza au. Agaiti bada sarri escatu bear dentsagu Ama Virginiari *erregutu daiala orain gu gaiti*, galdu ez gaitazan, pecatuac azpitu ez gaizan: deabruac, munduac ta aragniac benzutu ta goitu ez gaizan. Orain misericordiazco dempora da; il ezquero pecatu mortalean, misericordiaric idoroco eztogu, ez Jaungoicoagan, ez Maria Santisimagan. Orregaiti dogu orain bere bearra.

Baña nos eta bearrago dogun Ama Virginiaren bitartetasuna, laguntza ta erregua, da, *gueure eriotzaco orduan*. Ta onegaiti Ave Mariaco oraciño au azquenduten da escabide onegaz. Oh eta gogoratuco baguendu, ce estura, larritasun, bildur icaragarrian icusico doguzan gueure burnac eriotzaco demporan. Orduan salatuco gaitue deabruac ta gueure concientsiac. Orduan esetsico deuscue gueure pecatu gustiac. Orduan deabruac eguingo deuscu guerraric gogorrena, icusiric, acabetan jacala gu tentauteco demporea: Faraonec Israelitac ta Labanec, Jacob santua perseguitu cituen leguez igues eguitera abiatu cireanean. Orduan eracutsico ditu bere

amurru, asmu ta al guztiaç gu galtseco. Santuric andienac ordu atan estu larri badabiltz, cer izango peccatariaz? Nora biurtuco doguz orduan beguiac? Noc defendiduco gaitu? Eztabe orduan balioco ez adisquideac, ez ondasunac, ez jaquituriac, ez indarrac; Contuac emon biar dira: Jueza dago aserraturic: sententsia erabagnico da bein betico; bicitsea acabetan da. Bada nogana biurtuco gara? Baña nogana, ezpada zugana, oh Ama Virgiña maite biotzecoa? Oh peccatarien Ama, orainganic erregututen dentsugu, aztu ez gaizuzala *gure eriotzaco orduan*. Galdnac izango gara seculaco, zuc orduan gu gaiti erregututen ezpadozu. Gomute zaite orduan, ceimbat bider mesede an escatu dentsugun Ave Maria erreceta orduan. Eta zure birtetasuna orduraco irabasteco, orain ganic asico gara, errecetara debociño gueia-goaz oraciño santu au. Oh ceimbat bider esan dogun *Ave Maria*, baña ce guichitan bear dan leguez! Oh Ama Virgiña gozoa, iguzu gracia, emendic aurrera ceure deboto eguiazcoac izateco: ceure birtuteac jarraituteco: ceu gure gogoan ta gueure

biotzean beti erabilteco: orain lurrean ta
guero ceruan zuri esateco.

AVE MARIA.





Goizean ta gaubean eguingo direan oraciñoac.

Goizean irazartu ta Jaungoicoagana biotza jazoric, ezan ciñai, ur bedeincatua artu ta guero.

«¡Jesus, Jose ta Maria!, emoten deusuedaz neure biotza ta arimea.»

¡Jesus, Jose ta Maria!, lagundu eguidazue agoniaco ordu larrian.

¡Jesus, Jose ta Maria! zuezaz baquean izan deilla neure azquenengo arnasia.

Orain belaunicoturic, edo ecin bada, jantsiten zarean bitartean, esango dozuz urrengo oraciño laburrac, «Curutze Santearen» eguin da guero.

«¡Neure Jaun eta Jabe maitea! Ezquer onac emoten deusudaz, orain artean cenre escutic artu dodazan mesede guztiac gaiti, batez bere barco gauban gorde, ta ecarri nozulaco egun santu onetara, cein eztaquit izango dan neure azquenengoa.»

Ezquintsen deusudaz gaurco neure

pentsamentu, esate, eguite, ta lan bearrac guztiac, Elexa Santearen escariacaz, Ama Virgiñaren eta Jesucristo neure Salbaguille maitearen merecimentuacaz batera, ceure gloriarie andieneraco, neure pecatuen paracaciñoraco, eta purgatorioco arimen sufragioraco. Amen.

Aita gurea, Ave Maria ta Gloria.....

Ama Virgiñari.

Jaungoicoaren Ama maitea ta peccarien gorde lecu! Zugana nator, Ama erruquizcoa! lagundu eguidazu egun santu onetan, eta escatu eguiozu ceure Seme ta neure erosle maiteari, gorde naiala galbi-
de guztietarico. Amen.

Iru Ave Maria ta Salvea.

Aingueru gordetsalleari.

Neure Aingueru jaolia, Sortua izan nintsanetic Jaungoicoac laguntsat emon eustana! Arguitu, gorde ta lagundu eguidazu

gaur ta neure bicitsaco egun guztietan.
Amen.»

Aita gurea.....

Bazcari ta Aparijaco orduan maija bedeinca-
tu eta azquenean esquerrac emoteco Oracifioac.

Aitearen eguinda: Ceure Seme Jesucris-
toren icenean bedeincatu gaizuz, Jauna,
gu eta ceure icenean artutera goazan ja-
narijac. Amen. *Aita gurea ta guero*: Mai
onetan batu garianoc, batu gaizala Jaun-
goicoac ceruco mai ederrean. Amen.

Azquenean.

Ezquerrac emoten deuntsuguz, Jauna,
ceure icenean artu dogun janariagaiti.
Emon eiguzu eguneango oguia ceu serbi-
du ta ametaco eta ceruan bedeincatuteco.
Amen.

*Aita guerea..... Purgatorioco arimac-
gaiti.*





CURUTZETECOEN IBILBIDEA

Esan eguizu lenengo biotsetie *Neure Jesucris-
to Jauna*, eta geraldí bacochean, *Aitearen*, ta
gogartea esan da guero, errezaucó dozu, *Aita
gurea, Ave Maria, Gloria.*



LELENGO GUERALDIJA: Aitearen...

JESUS ERIOTZARA CONDENAUA.

GOGARTEA:

Pilatos tribunalean jarriric, ta Jaungoi-
coaren Semea, gaizquille bat leguez bere
aurrean. Pecatari billau bat tronuan: Erru
bagea, Santu guztien Santua, Jaungoi-
coa bera, bere oñetan. Ce lotzaria! Begui-
ra cer dan pecatua! *Aita gurea...*



BIGARREN GUERALDIJA: Aitearen...

JESUSEC ARTSEN DAU CURUTZEA.

GOGARTEA:

Curutze orretan egozan baturic mundu guztico pecatuac: alambere gu erostearren, gu salbeteagaiti, artsen dau Jesus maiteac pocez ta atseguñez. Eta nic ¿ez dot cerbait eguingo ta eruango neure Salbaguilleagaitic? *Aita gurea...*



IRUGARREN GUERALDIJA: Aitearen....

JESUS CURUTZEPEAN JAUSIRIC.

GOGARTEA:

Ce poza arerioena! Celaco barre ta bur-lac jausiric icustean! Eta nic ¿ceimbat bider ez dot emon pecaturaco bidea? Ceimbat ez naz lagundu peccatariacaz? Indartu nagnizu, Jauna, ceure agundu santueta-co bidean. *Aita gurea....*



LAUGARREN GUERALDIJA: Aitearen.....

JESUS TA MARIA ICUSTEN DEBA.

GOGARTEA:

Ce pena gogorra arpeguiz arpeguî icusi cirenean! Seme ta Amaren biotzac mimberaturic dagoz, baña nigaiti esquintsen dira pena ain andietara. Eta nic ¿ez dodaz maite izango beti ta beti Jesus ta Maria-ren biotz gozoac? *Aita gurea....*



BOSTGARREN GUERALDIJA: Aitearen.....

CIRENEOAC LAGUNDUTEN DEETSO JESUSI
CURUTSEA EROATEN.

GOGARTEA:

Erromaco Aita Santuac biralduco baleuscu curutse eguiazcoaren zati chiqui bat, ce poza euquico gueunquean! Bada naigaben bat dozunean, Jesusec emoten dentsu curutze ori, eta ¿eztozu pocic eruan-go? *Aita gurea...*



SEIGARREN GUERALDIJA: Aitearen....

VERONIQUEAC GARBITUTEN DAU JESUSEN
ARPEGUIA.

GOGARTEA:

Ce amodioa andracume onena! Besteen
cer esanai beguiratu baga doa guztien as-
tetic Jesusgana. Baña ce sari andia artu-
ten daben bere fedearen ordezt: bada bere
eun garbian guelditu zan egotsiric Jaun-
goicoaren Semearen arpeguia. Beguiratu
eguiozu, ene arimea, eta ez eguizu lotza-
ric izan bera autortuteco. *Aita gurea....*



ZAZPIGARREN GUERALDIJA: Aitearen....

JESUS BIGARRENEZ JAUSTEN DA.

GOGARTEA:

Emen barriro burlac, barriro ucabilca-
dac: neure Jesus maitea! Zacuzdaz aim-
beste pena ta naigabeen artean, eta daroa-
zuzanac izanic ain andijac, ¿ez dot nic ica-
sico cerbait zugaitic eroaten? *Aita gurea...*



ZORTZIGARREN GUERALDIJA: Aitearen...

JESUSEC BERBA EGUITEN DEUTSE

JERUSELANGO ALABAI.

GOGARTEA:

Ez eguizue nigaiti negar eguin, dirantse, ezpada zeuec ta zeuen semeac-gaiti: esan balentse leguez, zeuen pecatuac-gaiti negar eguizue. Eta ni beti pecatuan: nire confesiñoiac otsac eta utsac, ain arin ta laster pecatuetan jausten nazalaco. Oh neure Jesus maitea! bigundu ta zamurtu eguizu nire biotz arrizcua. *Aita gurea....*



BEDERATSIGARREN GUERALDIJA:

Aitearen....

JESUS JAUSI DA IRUGARRENEZ.

GOGARTEA:

¿Zelan jausi zara aimbeste bider, neure Jesus biotzecua, izanic zu Jaungoico indartsua? Eta zu, ene semea, ¿ez zara jausi iru bider baño? Bada jaquin eguizu, ni jausi banaz iru aldiz, izan da, eracusteco

zuri celan, altsau bear zarean pecatuen azpitic damuz confesetan dozuzala guztijac, neugan uste betea ifiniric. *Aita gurea..*



AMARGARREN GUERALDIJA: Aitearen...

JESUSI QUENDUTEN DEUTSEZ BERE SOÑECOAC.

GOGARTEA:

Neure Jesus maitea! ¿Cer pentsetan cenduan quendu entsuezenean zeure soñecoac, aragui zatijac eurai egotsijacaz batera? Guztija esquintsen neutsan neure Aita beticoari, zue minic artu ez cinaijan pecatuco bidetic alde eguiteco, ecandu charra ichiteco: zure indar guztija nire penetan dago. *Aita gurea....*



AMAICAGARREN GUERALDIJA: Aitearen...

JESUS DA CURUTSEAN JOSIJA.

GOGARTEA:

Dantsuz, ene arimea, malluaren otsac?

Dacutzu zulaturic Jaungoicoaren escua?
¡Cer! negarrez zagoz? Bada zue eguin do-
zu. Madaricatua pecatua! Lenago ill mi-
lla bider, pecatu eguin baño. *Aita gurea...*



AMABIGARREN GUERALDIJA: Aitearen.....

JESUS ILLIC CURUTZEAN.

GOGARTEA:

Beguiratu eguiozu, ene arimea: oñac
josiric, zureac igues ez ibilteco: besuac
zabalic, zu laztanduteco: alboac idiguiric,
zu anche sartu ta maitatuteco. Burua bee-
ratuten dau, zuri baquezco mosua emote-
co. Neure Jesus biotzeco! ¿nos maite
izango zaitut, zue maite izan nozun mo-
duan? *Aita gurea....*



AMAIRUGARREN GUERALDIJA: Aitearen...

JESUS BERE AMAREN ALTZOAN.

GOGARTEA:

Ene Ama penaz betea! ichi eguidazu

anz pazturic adoran daidan zeure semea...
Erdu, ene Semea; icusi eguizu ezainduric
bere arpeguia: beguijac lauzoturic; odoldu-
ric bere aoa: zulaturic here escu ta oñac:
idiguiric bere alboa: gorputz guztija zati-
turic. Orra Jaungoicoaren justicija! Orra
zure pecatuen anditasuna! *Aita gurea....*



AMALAUGARREN GUERALDIJA: Aitearen..

JESUS SEPULTURAN

GOGARTEA:

Nire arimea bere da Jesusen sepultu-
rea comulguetan nazan bacochean. Egui-
zu arren Jauna nire ariman sepultura ba-
rri bat: quendu eguizuz bere ezaintasunac;
garbitu eguizu: eta ez daizudala gueiago
emon eriotzaric neure pecatnacaz. *Aita
gurea..... Eta guero errezau Sacramentua-
ren estaeiñoa.*

